Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

# LANGILE AUTONOMOENTZAKO (enpresari eta profesionalentzako) TRIBUTAZIO-LIBURUA

2003

Liburu honen edukiak ez du Administrazioa lotzen. Informazioa jasotzen du soil-soilik, eta ezingo da erreklamazio edo errekurtsoak oinarritzeko erabili.

# Aurkezpena

Bere aldetik autonomo gisa lan egiteko asmoa duenak, edo jabegokidea denak, bere jardunari lotutako zergei eta tramiteei buruz izan beharreko informazioa biltzen da liburu honetan. Ondo informatzea eta langile autonomoen edo jabegokideen taldean sartzeko egin beharreko tramiteak, horien zerga-obligazioak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga[1] nahiz Balio Erantsiaren gaineko Zerga[2] ordaintzeko tributazio-modalitate ezberdinak ezagutzea, hara hor liburu honen helburuetako bat.

Izan ere, gure asmoa autonomo-jendeari dagozkion gauzak erraz antzean eta adibideen bidez azaltzea baita. Bestela esanda gure eginkizuna ez da arauen ordez jardutea, ez eta profesionalen (direla publikoak direla pribatuak) lana baztertzea. Kontrara esango genuke profesionalen aholkua oraindik ere gehiago estimatuko dugula, autonomoen gaia ezagututa gero. Espero dezagun liburu honek gaiaz jabetzen lagundu dezala. Berriro diogu, eskuartean duzun hau eskuliburu xume bat baino ez duzu, autonomoen munduan, batez ere zerga-munduan, murgiltzen den edonori laguntzeko egina.

Lehenik, autonomo moduan lanean hasteko, informatu egingo dizkizugu zer tramite egin behar dituzun, eta zein erakundetan: udaletxean, lan-delegaritzan, Gizarte Segurantzan, Osakidetzan... Tramite horietako batzuk zenbait baimen lortzeko izango dira, beste batzuen zeregina, berriz, zure jardueran alta ematea izango da edo erregistroren batean inskribatzeko. Badira zergen aldetik “argazkia” ateratzeko balio dutenak, hau da, zure jarduera ezarrita geldituko da zerga modalitate  jakin batean, edo BEZ zerga likidatzeko modu jakin batean, edo kontabilitate zehatz batean.

Dena den, tramite hauek nahaste-borrastea izan ez daitezen, erakundeka sailkatu ditugu eta ordena kronologikoan. Batez ere, astiro-astiro azaldu dugu nola bete behar diren inprimakirik garrantzitsuenak: Ekonomi Jardueren gaineko Zerga (840, 841) y eta Zentsu Aitorpena (036).

Gero, Ogasunari dagozkien zergak azaldu ditugu, hain zuzen ere zer era dauden zure jardueraren etekinak kalkulatzeko: la Estimación Directa Normal, la Estimación Directa Simplificada y la Estimación Objetiva (Módulos)**.** Jakin ahal izango dugu zein jarduerak dituen aukeran hiru modu horiek, nola ateratzen diren etekinak eta kenkariak, baita bestelako informazioa ere: zein kontabilitate-liburu eraman behar diren, noiz aukeratu behar den modalitatea...

---

[1] Erdaraz *Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas (IRPF)*

[2] Erdaraz *Impuesto sobre el Valor añadido (IVA)*

Beste atal bat, oso garrantzitsua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokiona da. Gainerako herritarren antzera, autonomoak urtero du zita Ogasunarekin, errentaren aitorpena egiteko garaian. Pausoz pauso azalduko dugu, ahalik eta samurren, nola egin aitorpena, betiere adibide egokiak erabiliriz.

Esku liburu honetako beste atal bat, ezinbestekoa jakina, Balio Erantsiaren Zergari dagokiona da: zein jarduerak duten zerga hori, zeinek ez duten eta portzentajeak, nola kobratzen zerga hori eta nola ordaintzen,. Nola egiten diren likidazioak, eta zer-nolako kontabilitate-liburuak eraman behar diren.

Beti izan dugu gogoan zein izan daitekeen liburu honen irakurlea: langile soila. Esan nahi baita, ez duela zertan jakinik ez finantza eta zerga-sistemen berri, eta oraindik gutxiago hizkera teknikoaren (kasu honetan juridiko administratiboa) zirrikitu guztiak.

Hortaz, hizkera teknikoa behar den neurrian erabilirik, jokatu egin dugu euskara errazaren alde. Gauzak samurrago azaltze aldera, honako lan hauek egin ditugu, besteak beste: adibideak erabiltzea, azalpen luzeen ordez; benetako kasuak ekartzea, argibideak emateko garaian; inprimakiak beteta erakustea, zalantzazko puntuetarako irtenbideak eskainiz; eskema eta laukiak parekatzea; herritarrei sortzen zaizkien galderak egitea...

Zehaztasun handiagoa nahi duenak, eranskinetan aurkituko ditu legeen artikulurik garrantzitsuenak eta bestelako taulak, zerrendak eta abar, bere jarduerari dagozkion betebeharrei erantzun ahal izateko, baita funtsezkoen legeen zerrenda ere.

Euskararen aldetik, esan dezagun, ez dela erdararen itzulpena, baizik eta jatorrizko testua. Izan ere, bi hizkuntzek adieraziko baitute gauza bera, baina bakoitzak bere erara.

Poza handia hartuko genuke, liburu apal hau baliagarri izango balitzaizu, Ogasun kontuetan autonomoek dituzten eskubide eta betebeharren inguruan sortzen zaizkizun hainbat zalantza uxatzeko.

Lan honen osagarri dira urtero argitaratzen dugun PFEZren gidaliburua eta aurtengo udaberrian honekin batera kaleratuko dugun zerbitzu-katalogoa eta prozedura-gida. Hiru horiekin ekiten diogu bideari, hain zuzen, zergadun-talde ezberdinentzat interesekoak diren gaiekin osatzen joango garen bideari.

Donostian, 2003ko martxoaren 10ean

Antton Marquet Artola

Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Foru Diputatua

# Aurkibidea

## Langile autonomoentzako tributazio manuala


**1. Autonomoa izateko tramiteak** . . . . . . . . . . 17

1.1. Udaletxean . . . . . . . . . . 19
1.2. Gipuzkoako Foru Ogasunean . . . . . . . . . . 19
1.3. Gizarte Segurantzaren Lan Delegaritzan . . . . . . . . . . 19
1.4. Gizarte Segurantzako Gordailu Orokorrean . . . . . . . . . . 19
1.5. Industria Erregistroan . . . . . . . . . . 19
1.6. Osakidetzan . . . . . . . . . . 19
1.7. Turismoan . . . . . . . . . . 19
1.8. Industrian . . . . . . . . . . 20

**2. Gipuzkoako Foru Ogasunean Egin beharreko tramiteak** . . . . . . . . . . 21

2.1. Inprimakia: 840 (Ekonomi Jardueren gaineko Zerga) . . . . . . . . . . 23
2.1.1. Noiz zaude behartuta 840 inprimakia aurkeztera? . . . . . . . . . . 23
2.1.2. Zertarako da inprimakia? . . . . . . . . . . 23
2.1.3. Inprimakia betetzeak zer ondorio dakar berekin? . . . . . . . . . . 23
2.14. Zertan oinarritzen da zerga? . . . . . . . . . . 24
2.1.5. Nork ez du ordaindu behar Ekonomi Jardueren gaineko Zerga? . . . . . . . . . . 24
2.1.6. Nola bete 840 inprimakia? . . . . . . . . . . 24
2.1.6.1. Kanpoko azala . . . . . . . . . . 24
2.1.6.2. Orria: 1 . . . . . . . . . . 26
2.1.6.3. Orria: 2 . . . . . . . . . . 28
2.1.7. Zein agiri aurkeztu behar dituzu 840 inprimakiarekin batera? . . . . . . . . . . 30
2.1.8. Zein agirirekin etorri behar dute bat 840 inprimakian jarritako datuek? . . . . . . . . . . 30

2.2. Inprimakia: 841 (jarduerarekin zeharka lotutako lokala) . . . . . . . . . . 31
2.2.1. 2.2.1. Zertarako da 841 inprimakia? . . . . . . . . . . 31
2.2.2. Nola bete 841 inprimakia? . . . . . . . . . . 31
2.2.3. Zein agiri aurkeztu behar dituzu 841 inprimakiarekin batera? . . . . . . . . . . 31

2.3. Inprimakia: 036 (zentsu-aitorpena) . . . . . . . . . . 32
2.3.1. Noiz zaude behartuta 036 inprimakia aurkeztera? . . . . . . . . . . 32
2.3.2. Noiz ez zaude behartuta 036 inprimakia aurkeztera? . . . . . . . . . . 32
2.3.3. Zertarako da inprimakia? . . . . . . . . . . 32
2.3.4. Inprimakia betetzeak zer ondorioa dakar berekin? . . . . . . . . . . 32
2.3.5. Nola bete 036 inprimakia? . . . . . . . . . . 32

2.3.5.1. Orria: 1 . . . . . 32
2.3.5.2. Orria: 2 . . . . . 33
2.3.5.3. Orria: 3 . . . . . 40
2.3.5.4. Eranskina: I . . . . . 40
2.3.5.5. Eranskina: II . . . . . 40

**3. Jarduera ekonomikoen etekinak kalkulatzeko moduak** . . . . . 41

3.1. Zuzeneko zenbatespen arrunta . . . . . 43
3.1.1. Modalitate hau aukeratzeko baldintzak . . . . . 43
3.1.2. Zein sistemarekin da bateraezina? . . . . . 44
3.1.3. Nola kalkulatzen dira etekinak? . . . . . 44
3.1.4. Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu? . . . . . 44

3.2. Zuzeneko zenbatespen erraztua . . . . . 45
3.2.1. Modalitate hau aukeratzeko baldintzak . . . . . 45
3.2.2. Zein sistemarekin da bateraezina? . . . . . 45
3.2.3. Uko egiteko modua . . . . . 45
3.2.4. Nola kalkulatzen dira etekinak? . . . . . 45
3.2.4.1. Prozedura arrunta . . . . . 45
3.2.4.2. Prozedura berezia . . . . . 46
3.2.4.3. Prozedura sektoriala . . . . . 46
3.2.4.3.1. Merkantzien garraioa errepidez . . . . . 46
3.2.4.3.2. Basogintza . . . . . 46
3.2.5. Nola kalkulatzen dira etekin irregularrak? . . . . . 51
3.2.5.1. Bi urtetik gorako epean sortutako etekinak . . . . . 51
3.2.5.2. Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak . . . . . 51
3.2.6. Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu? . . . . . 52

3.3. Zenbatespen objektiboa (moduluak) . . . . . 53
3.3.1. Modalitate hau aukeratzeko baldintzak . . . . . 53
3.3.2. Zein sistemarekin da bateraezina? . . . . . 54
3.3.3. Uko egiteko modua . . . . . 54
3.3.4. Nola kalkulatzen dira etekinak? . . . . . 54
3.3.4.1. Langileak . . . . . 54
3.3.4.2. Soldatapekoak ez diren langileak . . . . . 54
3.3.4.3. Soldatapeko langileak . . . . . 54
3.3.4.4. Potentzia elektrikoa . . . . . 55
3.3.4.5. Mahaia . . . . . 55
3.3.4.6. Ibilgailua . . . . . 55
3.3.4.7. Indize zuzentzaileak . . . . . 55
3.3.5. Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu? . . . . . 57

**4. Errentaren aitorpena (PFEZ** . . . . . 59

4.1. Oinarri ezargarria . . . . . 61
4.2. Oinarri likidagarria . . . . . 61
4.2.1. Zer dira, baina, murrizpenak? . . . . . 61
4.3. Kuota osoa . . . . . 62
4.4. Kuota likidoa . . . . . 62
4.4.1. Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak . . . . . 62
4.5. Kuota diferentziala . . . . . 67
4.5.1. Zer dira atxikipenak? . . . . . 67
4.5.2. Zer dira ordainketa zatikatuak? . . . . . 67
4.6. Kalkulu osoaren laburpena . . . . . 71

**5. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)** . . . . . 73

5.1. Zer da BEZ? . . . . . 75
5.2. Nola kalkulatzen da BEZ dela-eta deklaratu beharrekoa? . . . . . 75
5.3. Jarduera salbuetsiak . . . . . 77
5.3.1. Interes publikoa dela-eta salbuetsita dauden jarduerak . . . . . 77
5.3.2. Interes ekonomikoa dela-eta salbuetsita dauden jarduerak . . . . . 77
5.3.3. Interes kulturala dela-eta salbuetsita dauden jarduerak . . . . . 77
5.4. Karga-tasak . . . . . 77
5.5. Nola deduzitu BEZ? . . . . . 77
5.6. Ordaintzeko epeak . . . . . 78
5.7. Kontabilitate-liburuak . . . . . 79
5.8. Erregimen Orokorra eta Erregimen Erraztua . . . . . 87
5.9. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren Erregimen Berezia . . . . . 87
5.10. Baliokidetasun-errekarguko Erregimena . . . . . 88

**6. Ikuska daitezkeen beste dokumentu batzuk** . . . . . 89

**7. Fakturak** . . . . . 93

7.1. Fakturetan jaso beharreko datuak . . . . . 95
7.2. Baleek jaso beharreko datuak . . . . . 96

**I. Eranskina** . . . . . 99
**II. Eranskina** . . . . . 111

# Definizioak


- Aktiboa . . . . . . . . . . 63
    - materiala . . . . . . . . . . 64
    - inmateriala . . . . . . . . . . 64
- Atxikipenak . . . . . . . . . . 67
- BEZ (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) 75
- Debengo printzipioa . . . . . . . . . . 97
- Ekonomi Jardueren gaineko Zerga . . . . . 19
- Enpresari eta profesionalak . . . . . . . . . . 44
- Ibilgailua . . . . . . . . . . 55
- Indize zuzentzaileak . . . . . . . . . . 55
- Kenkariak (ekonomi jarduerak sustatzeko) . . . . . . . . . . 62
- Kuota . . . . . . . . . . 62
    - osoa . . . . . . . . . . 62
    - likidoa . . . . . . . . . . 62
    - diferentziala . . . . . . . . . . 67
- Mahaia . . . . . . . . . . 55
- Murrizpenak . . . . . . . . . . 61
- Oinarria . . . . . . . . . . 61
    - ezargarria . . . . . . . . . . 61
    - likidagarria . . . . . . . . . . 61
- Ondasun-jabegokidetza . . . . . . . . . . 33
- Ordainketa zatikatuak . . . . . . . . . . 67
- Pertsona . . . . . . . . . . 88
    - fisikoa . . . . . . . . . . 88
    - juridikoa . . . . . . . . . . 88
- Pertsonala . . . . . . . . . . 54
    - langilea . . . . . . . . . . 54
    - soldatapekoa ez dena . . . . . . . . . . 54
    - soldatapekoa . . . . . . . . . . 54
- Potentzia elektrikoa . . . . . . . . . . 55
- Txikizkako saltzailea . . . . . . . . . . 88
- Zentsu Aitorpena . . . . . . . . . . 19

# Galderak

## Autonomoa izateko tramiteak


➤ Noiz eman behar da alta Gizarte Segurantzan Autonomoen Erregimenean? . . . . . . . . . . . . 20

➤ Autonomoa naiz. IFZ (identifikazio fiskaleko zenbakia) behar al dut? . . . . . . . . . . . . . . . . 20


## Zentsu Aitorpena (036 inprimakia)


➤ Nire jarduerak 1. sekzioko 673.2 epigrafea du. Hortaz, badut Moduluak aukeratzerik, errentari dagokionez, eta Erregimen Erraztua BEZi dagokionez. Nola bete behar ditut 4 eta 5 atalak bi horiek aukeratu nahi ditudala adierazteko? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 34

➤ Nire jarduerak 1. sekzioko 673.2 epigrafea du, baina ez dut Modulu Sistema aukeratu nahi, baizik eta Zuzeneko Zenbatespen Erraztua. Nola jokatu behar dut? . . . . . . . . . . . . . . . . . 34

➤ Errentari dagokionez, Zuzeneko Zenbatespen Erraztua aukeratu nahi dut, eta Erregimen Orokorra, BEZi dagokionez (nire jarduerak hala dezakeelako). Nola bete behar ditut 4 eta 5 atalak? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 34

➤ Errentari dagokionez, Zuzeneko Zenbatespen Erraztua aukeratzen badut, zenbat urte egon behar dut, gutxienez? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 34

➤ BEZi dagokionez, Erregimen Erraztua aukeratzen badut, zenbat urte egon behar dut, gutxienez? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 34

➤ Errentari dagokionez, urtebetea egin dut Zuzeneko Zenbatespen Erraztuan. Zer egin behar dut Moduluetako Erregimenera itzultzeko? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 35

➤ Denda txiki bat daukat, 651.2. epigrafekoa, eta beraz, ez dut BEZren likidaziorik egiten, izan ere, Baliokidetasun Errekergua erabiltzen baitut. Nola bete behar ditut 4 eta 5 atalak? 35

➤ Taberna bat dut 1. sekzioko 673.2 epigrafea duena. Errentari dagokionez, Moduluetan dago, eta, BEZi dagokionez, berriz, Erregimen Berezi Erraztuan. Nola bete behar ditut 4 eta 5 atalak? . 36

➤ Taberna bat dut 1. sekzioko 673.2 epigrafea duena. Errentari dagokionez, Zuzeneko Zenbatespen Erraztuan dago, eta, BEZi dagokionez, berriz, Erregimen Orokorrean. Nola bete behar ditut 4 eta 5 atalak? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 37

➤ BEZi dagokionez Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren Erregimen Berezian nago. Nola bete behar ditut 4 eta 5 atalak? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 38

➤ Jateko produktuak egiten ditut, 1. sekzioko 423 taldearekin, hain zuzen. Nahitaez egon behar al dut Zuzeneko Zenbatespen sisteman (errentari dagokionez) eta Erregimen Orokorrean (BEZi dagokionez), edo badut bestelako aukerarik? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 39

## Jarduera ekonomikoen etekinak kalkulatzeko moduak

➤ Zurgina naiz eta Zuzeneko Zenbatespen Arruntaren bidez egiten dut Aitorpena. Inoiz bazkideren batekin elkartu eta sozietate bat sortuko bagenu (mugatua edo anonimoa), asko aldatuko lirateke eraman beharreko liburuak eta erregistroak? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 45

➤ Profesional bat naiz. Merkataritza Kodearen arabera eraman behar al ditut nire liburuak? 45

➤ Baso-ustiapenean aritzen naiz. Zenbatespen Objektiboen moduluak aukeratu ditzaket, garraiolariek egin dezaketen bezalaxe? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 51

➤ Enpresaria naiz. Erregistratu behar al ditut liburuak? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 53

➤ Profesional bat naiz, eta, beraz, ez dut zertan eraman nire kontabilitatea Merkataritzako Kodeari jarraituz. Dena dela, egin nahi izanez gero, bidezkoa litzateke? . . . . . . . . . . . . . 53

➤ Profesional bat naiz. Zenbatespen Objektiboa (hau da, Moduluen sistema) aukeratu ahal dut Errenta Aitorpena egiteko? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 57

## Errentaren Aitorpena (PFEZ)

➤ Zer dira aktiboak? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 63

➤ Zein alde dago aktibo “materialen” eta “inmaterialen” artean? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 64

➤ Nire negoziorako lokal berria erosi dut, baina ez diot zuzenean erosi promotoreari, beste pertsona bati baizik. Kenkaria egin dezaket “Aktibo finko material berrietan” inbertitzeagatik? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 64

➤ Zeintzuk dira “Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak”? . . . . . . . . . . . . . . . . 64

➤ Demagun langile bat kontratatzen dudala behin betirako, baina konbenioan ezarritako lanorduen erdian aritzeko. Ba al dut eskubiderik “enplegua sortzeko” kenkarirako? . . . . . . 64

➤ Zer gertatzen da urtea hasita izenpetzen bada kontratua, urrian adibidez? . . . . . . . . . . . 64

➤ Urte batean nire enpresako langileen batez bestekoa 2tik 3ra pasatu zen, beste langile bat kontratatu nuelako; hurrengo urtean, aldiz, behera egin zuen berriro, antzinako langileetariko bat jubilatu zelako. Zer egin beharko nuke lehen urteko kenkariaren diruarekin? . . . . 64

➤ Zer gertatzen da soberakina 8. Eranskinean jasotzea ahazten bazaizu, alegia, “Kenkaria, inbertsioengatik (mugaduna, mugarik gabe)” izeneko laukitxoetan? . . . . . . . . . . . . . . . . 64

➤ Zein dira kuota osotik lehendabizi kendu behar ditudan dedukzioak? . . . . . . . . . . . . . . . 64

## BEZ (Balio Erantsiaren gaineko Zerga)


➤ Noiz egin behar da urteko laburpena? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 78

➤ Baja eman diot nire jarduerari otsailean. BEZ dela-eta, zenbat aitorpen egin behar dut? . . 78

➤ Jasotako fakturen erregistro-liburua (BEZ) eta erosketa eta gastuen erregistro-liburua (PFEZ) liburu ezberdinak al dira? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 81

➤ Jasandako BEZ eta ordaindutako BEZ gauza “bera” al dira? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 87

➤ Baserritarra naiz eta eraiki ezineko lur-sail bat (BEZtik salbuetsitakoa) dut, pinudi batekin. Lurra, pinudi eta guzti, saltzen badut, BEZ ordaindu behar dut? . . . . . . . . . . . . . . . 88


## Fakturak


➤ Autonomoa naiz eta Moduluen Sistema erabiliz egiten dut aitorpena. Fakturak egin behar ditut? . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 95

# 1. Autonomoa izateko tramiteak

1.1. Udaletxean
1.2. Gipuzkoako Foru Ogasunean
1.3. Gizarte Segurantzaren Lan Delegaritzan
1.4. Gizarte Segurantzako Gordailu Orokorrean
1.5. Industria Erregistroan
1.6. Osakidetzan
1.7. Turismoan
1.8. Industrian

Tramiteak egiten hasi baino lehen, komeni zaizu beste gai hauen berri izatea:

- Lanean trebatzeko, autonomoentzat antolatutako ikastaroak.
- Lanean hasteko eman ohi diren diru-laguntzak.
- Arrazoin berberagatik, bakuek eman ohi dituzten dirumaileguak.

Hauexek dira erakunde bakoitzean egin behar dituzun tramiteak, eta zein ordenatan egin behar dituzun, gure ustez:

## 1.1. UDALETXEAN

- **Irekitzeko baimena.** Lokalen bat irekitzeko eskatu ohi da; baimenak ziurtatu egiten du lokalak badituela behar diren baldintza urbanistikoak eta teknikoak.
- **Obra egiteko baimena.** Eskatu egin behar da, lokalean obra egiteko asmorik bada, jarduerak hala eskatzen duelako.

## 1.2 GIPUZKOAKO FORU OGASUNEAN

- **Alta eman behar duzu Ekonomi Jardueren gaineko Zergan** (840 eta 841 inprimakiak). Zuzeneko zerga enpresa, lanbide nahiz jarduera artistikoari ezarria. Alta eman behar duzu zerga honetan, lanean hasteko eskubiderik izango baduzu. Jarduera bat baino gehiago egiten baduzu, bakoitzako inprimaki bat egin behar duzu.
- **Zentsu aitorpena** (036 inprimakia). Zure jardueran noiz hasiko zaren adierazten duzu inprimaki honen bidez. Une horretatik aurrera, Balio Erantsiaren gaineko Zergan (BEZ) alta emanda zaude, baita Ogasuneko erregistroan ere.

## 1.3 GIZARTE SEGURANTZAREN LAN DELEGARITZAN

- Adierazi **egin behar duzu noiz irekiko duzun lantokia.** Horretarako 30 egun dituzu, lantokia ireki duzun egunetik hasita. Berdin jokatu behar duzu itxita gero berriro ireki nahi baduzu.
- **Bisita-liburua eskuratzea eta zigiluz jota izatea.** Lantoki bakoitzeko bat izan behar duzu nahitaez. Liburu horretan jasotzen dira Lan Ikuskatzaileen bisitak; liburuak zigiluz jota egon behar du lanean hasi eta hurrengo 30 egunetan.

Gainera, zeure buruaz gain, beste langile batzuk kontratatu badituzu, beste eginkizun hau ere baduzu:

- **Matrikula-liburua eskuratzea eta zigiluz jota izatea.** Zure enpresan aritutako eta aritzen diren langile guztien datuak jaso behar dira liburu honetan, baita haien lan-egoera zertan den ere. Bisita-linburuan antzera tramitatzen da.

## 1.4 GIZARTE SEGURANTZAKO GORDAILU OROKORREAN

- **Autonomoen Erregimen Berezian izena ematea.** Nahiz eta jarduera bat baino gehiago izan, behin bakarrik eman behar duzu izena; horretarako 30 egun dituzu (jai-egunak barne) lanean hasten zaren egunetik hasita.
- **Gizarte Segurantzan izena ematea.**

Gainera, zeure buruaz gain, beste langile batzuk kontratatu badituzu:

- **Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean, langileak afiliatu eta alta ematea.** Modu horretara langileak babestuta daude, eta afiliazio zenbaki bana izango dute. Langilea, lehendik, afiliatuta badago, enpresan alta ematea besterik ez da behar.

Tramite hauez gain, beste batzuk ere egin behar dira, zure jarduera zein den kontuan hartuta. Jardueraren arabera, behar bada, beste hauetako tramiteren bat ere egin beharko duzu:

## 1.5 INDUSTRIA ERREGISTROAN

Jardueraren arabera inskribatu beharko da ala ez. Tailer mekanikoak adibidez, Industria Erregistroan inskribatu behar dira.

## 1.6 OSAKIDETZAN

Jardueraren arabera baimena eskatu beharko da ala ez. Tabernek, adibidez, Osakidetzaren baimena behar dute.

## 1.7 TURISMOAN

Jardueraren arabera baimena eskatu beharko da ala ez. Nekazaritza-turismoek, adibidez, dagokien baimena behar dute.

## 1.8 INDUSTRIAN

Jardueraren arabera baimena eskatu beharko da ala ez. Tailer mekanikoek, dibidez, dagokien baimena eskatu behar dute.

## LABURPENA

### Autonomoa izateko tramiteak

| | |
|---|---|
| Udaletxean | ✔ Irekitzeko baimena<br>✔ Obra egiteko baimena |
| Gipuzkoako Foru Ogasunean | ✔ Alta ematea Ekonomi Jardueren gaineko Zergan (840 eta 841 inprimakiak).<br>✔ Zentsu aitorpena (036 inprimakia). |
| Gizarte Segurantzaren Lan Delegaritzan | ✔ Lantokia noiz irekiko duzun adieraztea<br>✔ Bisita-liburua eskuratzea eta zigiluz jota izatea.<br>✔ Matrikula-liburua eskuratzea eta zigiluz jota izatea (zeure buruaz gain, beste langile batzuk kontratatu badituzu) |
| Gizarte Segurantzako Gordailu Orokorrean | ✔ Autonomoen Erregimen Berezian izena ematea.<br>✔ Gizarte Segurantzan izena ematea, Erregimen Orokorrean.<br>✔ Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean, langileak afiliatu eta alta ematea (zeure buruaz gain, beste langile batzuk kontratatu badituzu). |
| (Jardueraren arabera) | ✔ Dagokion tramitea Industria Erregistroan, Osakidetzan, Turismoan nahiz Industrian. |

Gainera, edari alkooldunik egiten baduzu (sagardoa, txakolina...), **zerga berezien** erregistroan eman behar duzu alta, eta CAE txartela eskuratu (jarduera eta establezimenduaren kodea erdaraz). CAE txartelaren zenbakia nahitaezkoa da lanean jarduteko.

Erne: Zure jardueran lanean hasten bazara, tramite guztiak egin gabe (adibidez, Autonomoen Erregimen Berezian izena eman gabe) hainat traba izango dituzu lege aldetik.

**Galdera**

Noiz eman behar da alta Gizarte Segurantzan Autonomoen Erregimenean?

**Erantzuna**

Zentsu Aitorpenean (036 inprimakia) eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergan (840 inprimakia) alta eman eta gero.

**Galdera**

Autonomoa naiz. IFZ (identifikazio fiskaleko zenbakia) behar al dut?

**Erantzuna**

Ez, izan ere, zure kasuan IFZaren zenbakia eta Nortasunaren Agiriaren zenbakia gauza bera direlako.

# 2. Gipuzkoako Foru Ogasunean egin beharreko tramiteak


2.1. Inprimakia: 840 (Ekonomi Jardueren gaineko Zerga)

- 2.1.1. Noiz zaude behartuta 840 inprimakia aurkeztera?
- 2.1.2. Zertarako da inprimakia?
- 2.1.3. Inprimakia betetzeak zer ondorio dakar berekin?
- 2.14. Zertan oinarritzen da zerga?
- 2.1.5. Nork ez du ordaindu behar Ekonomi Jardueren gaineko Zerga?
- 2.1.6. Nola bete 840 inprimakia?
  - 2.1.6.1. Kanpoko azala
  - 2.1.6.2. Orria: 1
  - 2.1.6.3. Orria: 2
- 2.1.7. Zein agiri aurkeztu behar dituzu 840 inprimakiarekin batera?
- 2.1.8. Zein agirirekin etorri behar dute bat 840 inprimakian jarritako datuek?

2.2. Inprimakia: 841 (jarduerarekin zeharka lotutako lokala)

- 2.2.1. Zertarako da 841 inprimakia?
- 2.2.2. Nola bete 841 inprimakia?
- 2.2.3. Zein agiri aurkeztu behar dituzu 841 inprimakiarekin batera?

2.3. Inprimakia: 036 (zentsu-aitorpena)

- 2.3.1. Noiz zaude behartuta 036 inprimakia aurkeztera?
- 2.3.2. Noiz ez zaude behartuta 036 inprimakia aurkeztera?
- 2.3.3. Zertarako da inprimakia?
- 2.3.4. Inprimakia betetzeak zer ondorioa dakar berekin?
- 2.3.5. Nola bete 036 inprimakia?
  - 2.3.5.1. Orria: 1
  - 2.3.5.2. Orria: 2
  - 2.3.5.3. Orria: 3
  - 2.3.5.4. Eranskina: I
  - 2.3.5.5. Eranskina: II

Esan bezala, **Irekitzeko baimena** udaletxean lortu ondoren, hain zuzen ere jarduera egingo duzun herriko udaletxean, **Ekonomi Jardueren gaineko Zergan** eman behar duzu alta baita **Zentsu Aitorpenean** ere**.**

Ekonomi Jardueren gaineko Zergan alta emateko, **840** inprimakia bete behar duzu (eta hala badagokio, baita **841** inprimakia ere). Zentsu Aitorpena egiteko, berriz, **036** inprimakia. Bi agiriak ere Gipuzkoako Foru Ogasunean[3] aurkeztu behar dituzu, eta biak ere funtsezkoak dira: lehenengoa dela medio (840), zure jarduera, alde batetik, zehaztu egiten da, eta, bestetik, dagokion epigrafea ezartzen zaio. Bigarren agirian (036) jarritako datuen arabera, aukera egin dezakezu, bataz, zein modalitatetan egin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena, eta, besteaz, nola likidatu Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).

Agirietan bertan azaldu egiten da nola bete. Baina, ikusirik zere-nolako garrantzia duten agiri horiek, eskuliburu honetan ere zenbait azalpen eskainiko dizkizuko, oker handirik gabe bete ditzazun.

Lehenik, 840 inprimakia (Ekonomi Jardueren gaineko Zerga) landuko dugu**;** ondotik, 841 inprimakia (Jarduerarekin zeharka lotutako lokala), eta, azkenik, 036 inprimakia (Zentsu aitorpena).

## 2.1 INPRIMAKIA: 840

### Ekonomi Jardueren gaineko Zerga
### Jarduera adieraztea

Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztu behar duzu inprimaki hau, 036 inprimakiarekin batera.

Era berean, kasuan kasuko jarduera batzuk alta eman behar dira Industrian (adibidez, altzari-industria, ibilgailuak konpontzeko tailerra, galdara-lantegiak eta tailer mekanikoak); beste batzuek, aldiz, Turismoan (adibidez, jatetxeak eta ostatuak). Kasu guzti horietan, kontuan izan Industrian nahiz Turismoan jarritako datuek bat etorri behar dutela 840 inprimakian jarritakoekin. Nahi izanez gero, lehenik 840 inprimakia aurkeztu dezakezu Foru Ogasunean eta gero Industrian edo Turismoan alta eman, edo alderantziz egin.

[3] Donostian, Errotaburu 2

### 2.1.1 Noiz zaude behartuta 840 inprimakia aurkeztera?

Oro har, ekonomi jarduera jakin bat egin ahal izateko, 840 inprimakia bete behar duzu. Baina, badira salbuespenak, nekazari eta abeltzainekin gertatzen den bezala. Gainerakoan, adibidez tabernaria bazara eta aldi berean agente komertziala, inprimaki bana aurkeztu behar duzu jarduera bakoitzeko. Hori bai, tabernan joko-makina bat bazenu, inprimaki bakarra bazik ez duzu aurkeztu behar. Horregatik diogu gehienetan, eta ez beti, jarduerek inprimaki bana behar izaten dutela.

> Erne: Badira zenbait jarduera oso antzekoak (idazlearena eta itzultzailearena), baina epigrafe (geroago hitz egingo dugu honetaz) ezberdinarekin. Ba, kasu honetan ere inprimaki bana aurkeztu behar duzu, baita bi jarduerak lokal berean egiten badituzu ere.

### 2.1.2 Zertarako da inprimakia?

Batez ere,

- Ekonomi Jardueren gaineko Zergan **alta** emateko.
- Impuesto horretan **baja** emateko.
- Lehengo inprimaki zaharreko datuak berritzeko.

### 2.1.3 Inprimakia betetzeak zer ondorio dakar berekin?

Inprimakia dela medio, alta ematen zaio zure jarduerari: horixe da ondoriorik garrantzitsuena.

Jarri behar dituzun datuen artean bada bat oso erabakigarria: “Egin beharreko edo egindako jarduera” (30 laukia). Izan ere, zuk adierazitako jarduera horren arabera Foru Ogasuneko funtzionarioak hiru hauetako bat ezarriko du: “enpresaria”, “profesionala” edo “artista”. Eta, ondorioz zure jarduerari dagozkion sekzioa (31 laukia) eta epigrafea (32 laukia) zehaztuko dira. Sailkapen honen garrantzia berebizikoa da: badira epigrafeak BEZ zergarik gabekoak; gainera, daukazun epigrafearen arabera, metodo bat a la bestea aukeratu dezakezu (Erregimen Erraztua, Moduluak...) errentaren aitorpena egiteko garaian. Hitz batean esateko, zure jarduera “sailkatu” egingo da **31** y **32 laukiak bidez**, eta **30 laukian** adierazitakoa kontuan harturik.

### 2.1.4 Zertan oinarritzen da zerga?

Urtero zure udalari ordaindu behar diozun zerga, Ekonomi Jarduera dela-eta, gai hauetan oinarritzen da, besteak beste:

- Jardueraren esparrua: herri, probintzia, estadu mailakoa.
- Jardueraren lokala herriko zein gunetan edo zein kaletan dagoen.
- Lokalak dituen metro karratuak.
- Instalazioak duen indarra edo potentzia (baldin eta jarduera Industrian alta emanda baduzu).

  Erne: Potentzia ez da Iberdrolaren kontratuan azaltzen dena, baizik eta erabiltzen dituzun makinek behar dutena.

- Zenbat langile dituzun kontratatuta, enpresaria (hau da zu zeu) barne; baldin eta lan egiten baduzu.
- Ibilgailurik duzun ala ez; zenbat diren, eta eraman dezaketen zama.
- Establezimenduaren kategoria (adibidez, hotelen kasuan, zenbat izarretakoa den).
- Gela-kopurua (baldin eta ostaturik baduzu, adibidez).

### 2.1.5 Nork ez du ordaindu behar Ekonomi Jardueren gaineko Zerga?

Jakina, erakunde publikoek eta denontzakoek (udalak, aldundiak, Gizarte Segurantza, mutualitateak...) ez duten ordaindu behar, ezta beste hauek ere:

- Ikastetxeak, edozein mailatakoak, baldin eta dirua egiteko asmorik ez badute, eta hezkuntza-kontzertuko erreegimena badute.
- Ezinduen (gorputzez, adimenez eta zentzunez) elkarteak eta fundazioak, baldin eta dirua egiteko asmorik ez badute.
- Dirua egiteko asmorik ez duten elkartak, Elkarteen Erregistroan badaude, eta herriarentzat beharrezkotzat deklaratu badira.
- Bi milioi € baino gutxiago fakturatzen duten enpresak.
- Lanean hasten den enpresa, ez du zergarik ordainduko lehenengo bi urtetan.

Erne: Dena dela, aurreko bost kasu horietan ere, 840 inprimakia bete eta aurkeztu egin behar da, baita indazki bat ere, zerga ordaintzetik libratzeko.

### 2.1.6 Nola bete 840 inprimakia?

840 izeneko inprimakia, paper-sorta bat da. Kanpoko azala (zenbatu gabekoa) eta beste bi orri ditu (1 eta 2 zenbakiaz). Goazen banan-banan azaltzera.

#### 2.1.6.1 Kanpoko azala

Bete behar dituzun laukiak goi aldean (goiburuan) daude, baita beheragoko beste bi multzotan ere.

- Goiburuan: jarri X bat dagokion laukian, alta, baja inprimaki zaharra aldatu nahi baduzu.
- Hurrengo multzoan, hain zuzen “Subjektu Pasiboa” izenekoan (laukiek ez dute zenbakirik): zure Nortasun Agiria, izen-deiturak (edo zure enpresaren izena), eta anagrama (baldin baduzu).
- Gipuzkoako armarriaren azpian dagoen multzoan, hain zuzen “Aurkezlea” izenekoan (10-15 laukiak): nork aurkezten duen inprimakia (adibidez, gestoria bidez aurkezten baduzu). Aldiz, zuk zeuk aurkezten baduzu, zeure datuak. Ez egin kasurik “Gakoa” izeneko bi laukiei, izan ere funtzionarioak berak bete behar baititu, nahiz eta belztuta ez egon.

**840 INPRIMAKIA**

Kanpoko azala

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas
www.gipuzkoa.net/ogasuna

*8400081312000*

*Ekonomi Jardueren gaineko Zerga*
Impuesto sobre Actividades Económicas
*Jardueren aitorpena*
Declaración de Actividades

**840**

*Jardueraren zenbakia*
Nro. Actividad

*ALTA* ALTA: X — *BAJA* BAJA: ☐ — *ALDAKETA* MODIFICACION: ☐

| *Subjektu Pasiboa* Sujeto Pasivo | *N.A./I.F.Z.* D.N.I./N.I.F. | *Izen-deiturak edo Enpresaren izena* Apellidos y Nombre o Razón Social | *Anagrama* Anagrama |
|---|---|---|---|
| | 72.416.447 | ITZIAR EIZAGIRRE EIZAGIRRE | |

***Aurkezlea* / Presentador**

| *N.A./I.F.Z.* D.N.I./N.I.F. | *Izen-deiturak edo Enpresaren izena* Apellidos y Nombre o Razón Social | *Telefonoa* Teléfono |
|---|---|---|
| 10 B20213244 | 11 IHINTZA, S.L. | 12 943 331428 |

| *Helbidea: Kale edo Plaza* Dirección: Calle o Plaza | *Zenbakia* Número | *Letra* Letra | *Eskailera* Escalera | *Solairua* Piso | *Aldea* Mano |
|---|---|---|---|---|---|
| 13 URBIETA | 6 | H | | 3 | |

| *Udalerria* Municipio | *Posta kodea* Cod. Postal | *Gakoa* Clave | *Herrialdea* Provincia | *Gakoa* Clave |
|---|---|---|---|---|
| 14 HERNANI | 20120 | | 15 GIPUZKOA | |

*Lekua eta Data* Lugar y Fecha: Hernani, 1 de enero de 2003

*Subjektu Pasiboaren eta Ordezkariaren sinadura*
Firma del Sujeto Pasivo y del Presentador

## 2.1.6.2 Orria: 1

Lehen orri honen goiko aldea (goiburua) eta kanpoko azalekoarena berdinak dira. Gainera, azaleko beste zenbait datu errepikatu egiten dira lehen orri honetan ere, izan ere orri bakoitza bere aldetik independientea baita beste orriekiko.

- Goiburua: jarri berriro X bat, alta, baja edo aldaketaren bat egiteko.
- Lehen multzoa (1-11 laukiak): beste bi azpimultzotan banaturik dago. Lehen azpimultzoak “Subjektu Pasiboa” izena du (1-9 laukiak)
  - 1-2 laukiak: jarri berriro zure datuak.
  - 3-9 laukiak (“Helbide Fiskala”): etxebizitzaren helbide bera da, pertsona fisikoen kasuan. Ez egin kasurik “Gakoa” izeneko bi laukiei, izan ere funtzionarioak berak bete behar baititu, nahiz eta belztuta ez egon.

  Bigarren azpimultzoak “Ordezkaria” du izena. Pertsonaren batek zure ordez aurkezten badu inprimakia, 10 eta 11 laukiak bete behar ditu, baldin eta agiri bidez frogatzen badu zure ordezkaria dela.

**840 INPRIMAKIA**

1. orria / 1-11 laukiak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

*Ekonomi Jardueren gaineko Zerga*
Impuesto sobre Actividades Económicas
*Jardueren aitorpena*
Declaración de Actividades
*ALTA* ALTA [X] *BAJA* BAJA [ ] *ALDAKETA* MODIFICACION [ ]

**840** 1
*Jardueraren zenbakia* Nro. Actividad

*Subjektu Pasiboa* / Sujeto Pasivo
*N.A./I.F.Z.* D.N.I./N.I.F. 1: 72.416.447
*Izen-deiturak edo Enpresaren izena* Apellidos y Nombre o Razón Social 2: ITZIAR EIZAGIRRE EIZAGIRRE
*Anagrama* Anagrama
*Helbide Fiskala / Kale edo Plaza* Domicilio Fiscal / Calle o Plaza 3: URBIETA
*Zenbakia* Número 4: 6
*Letra* Letra: H
*Eskailera* Escalera 5
*Solairua* Piso 6: 3
*Aldea* Mano 7
*Udalerria* Municipio 8: HERNANI
*Gakoa* Clave
*Posta Kodea* Cod. Postal
*Herrialdea* Provincia 9
*Gakoa* Clave

*Ordezkaria* / Representante
*Ordezkariaren N.A.* D.N.I. Representante 10: B20213244
*Ordezkariaren izen-deiturak* Apellidos y Nombre del Representante 11: IHINTZA, S.L.

*Jardueraren Udalerria* Municipio de la Actividad 20: ZUMAIA
*Gakoa* Clave 21
*Posta Kodea* Cod. Postal: 20750
*Herrialde* Provincia 22: GIPUZKOA
*Gakoa* Clave

- Bigarren multzoak (20-34 laukiak) “Jardueraren datuak” izena du.
  - 20-29 laukiak: jarri lokalaren datuak. Lokalik ez baduzu, zure etxebizitzarenak.
  - 30 laukia: kontuan izan, zuk adierazten duzun jardueraren arabera, funtzionarioak 31 eta 32 laukiak beteko dituela. Funtzionarioak 31 laukian 1 zenbakia jartzen badu, horrek esan nahi du zu “enpresaria” zarela. Era berean, 2 zenbakiak “profesionala” esan nahi du, eta 3 zenbakiak “artista”. Lehen esan bezala, epígrafe zenbakiak (31 eta 32 laukiak) adierazten du zure jarduerak Balio Erantsiaren Zerga (BEZ) duen ala ez, baita zein modalitate aukera dezakezun ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena egiteko garaian, eta abar.
  - 33 laukia: jarri jarduerari noiz emango diozun hasiera. Gogoan izan, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga, lehenengo urtean, hilabeteka kobratuko zaizula.
  - 34 laukia: bete, baldin eta baja eman behar baduzu, edo aldaketaren bat egin. Bajaren kasuan hiru hilabeteka kobratuko zaizu.

**840 INPRIMAKIA**

1. orria / 20-34 laukiak




- Hirugarren multzoak ere (40-59 laukiak) beste bi azpimultzo ditu. Lehenengo azpimultzoak agindu hau du: "Bete ezazu, soil soilik, alta eman behar baduzu, edo daturen bat aldatu" (40-42 laukiak).
  - 40 laukia: esparrua izan daiteke: udalekoa, probintziakoa edo estatukoa. Jarduera batzuk estatu osoan aritzen dira: ondasun higiezinak alokatzea, taxistak: Beste batzuk, berriz, herri-mailan, adibidez, denda txikiak. Estatu osoan aritu edo herri mailan, aldea handia da. Beraz, begiratu ezazu jardueren zerrenda (1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak dakar zerrenda).
  - 42 laukia: ez bete, alta eman baduzu inprimaki honen bidez.

**840 INPRIMAKIA**

1. orria ( 40-59 laukiak)



### 2.1.6.3 Orria: 2

Orri honek hiru multzo ditu.

- Lehen multzoa (1 eta 2 laukiak): jarri berriro zure datuak.
- Bigarren multzoa (60-87 laukiak): bost azpimultzo ditu, bostek jarduera-mota bana adierazten dute.
    - Lehen azpimultzoak agindu hau du: “Industria, lantegi eta konponketa jardueradunek betetzekoa” (60-63 laukiak).
        - 60-62 laukiak: potentziari dagokionez, Industrian alta emateko inprimakian jarritako datuak jarri behar dira (Kw-tan).
        - 63 laukia “aldiberekotasun erregalatik murrizketa”: funtzionarioak beteko du.
    - Bigarren azpimultzoak agindu hau du: “Salgai edo bidaiarien garraiorako jardueradunek betetzekoa” (65-68 laukiak). Hemen jarriko dituzun datuek bat etorri behar dute zure ibilgailuaren fitxa teknikoan azaltzen direnekin.
        - 66 laukia: jarri zure ibilgailuak eraman dezakeen zama, tonatan. Horretarako fitxa teknikoko datuak hartu eta kenketa bat egin behar duzu (kontuan izan fitxa teknikoko datuak kilotan datozela). Kenketa hauxe da:

**BAIMENDUTAKO PISUA, GEHIENEZ – TARA = 66 LAUKIA**

Jo dezagun zure fitxa teknikoak datu hauek dituela:
Tara: 1280
MTMA/MMA: 1905

Kenketa hauxe izango litzateke:

1905-1280 = 625 (kilo) = 0,625 (tona) = 66 LAUKIA

Erne: Kamioia traktorea eta atoia (erremolkea) duen horietakoa bada, bi aldiz egin beharko da kenketa:

**ATOIAN ERAMAN DEZAKEEN PISUA – TRAKTOREAREN TARA – ATOAIAREN TARA = 66 LAUKIA.**

Alde guztietara ere, gehienera jota, 25 tona jarri behar da.

**IBILGAILUAREN FITXA TEKNIKOA**



**840 INPRIMAKIA**

2. orria / 65-68 laukiak



| | | |
|---|---|---|
| Reducción por regla de simultaneidad | 63 | |
| *SALGAI EDO BIDAIARIEN GARRAIORAKO JARDUERADUNEK BETETZEKOA*<br>A RELLENAR PARA ACTIVIDADES DE TRANSPORTE DE MERCANCIAS Y VIAJEROS | | |
| *Ibilgailuaren matrikula*<br>Matrícula del vehículo | *Matrikula*<br>Matrícula<br>65 8246 BTX | |
| *Ibilgailuaren edukiera. Tona edo bidaiari kopurua*<br>Capacidad del vehículo. Tonelaje o N.° viajeros | *Tona-kopurua*<br>Tonelaje<br>66 0,625 | *Bidaiari kop.*<br>N.° de viajeros<br>67 |
| *Enpresaren zerbitzuan den ibilgailu kopurua*<br>N.° de vehículos en servicio de la empresa | *Zenbakia*<br>Número<br>68 1 | |
| *OSTALARITZA ETA OSTATU JARDUERADUNEK BETETZEKOA*<br>A RELLENAR PARA ACTIVIDADES DE HOSTELERIA Y DE HOSPEDAJE | | |
| *Eztablezimenduko joku-makina kopurua*<br>N.° de máquinas recreativas en el establecimiento | *"A" makina kopurua*<br>N.° de máquinas "A" | *"B" makina kopurua*<br>N.° de máquinas "B" |

Administración

– 67 laukia: zure lana bidaiariak eramatea bada, jarri fitxa teknikoan agertzen den bidaiari kopurua (behar bada, erdaraz agertuko da: "Número de viajeros").

Jarri 68 laukian zenbat ibilgailu dituzun. Ibilgailu bat baino gehiago baduzu, 840 inprimaki bana beharko dute.

- Hirugarren azpimultzoak agindu hau du: "Ostalaritza eta ostatu jardueradunek betetzekoa" (70-73 laukiak). Turismoan alta emateko inprimakian jarritako datuak jarri behar dira.

"A" makina da dirurik jokatzeko ez den makina (70 laukia), eta "B" makina, berriz, dirua jokatzekoa (71 laukia).

- Laugarren azpimultzoak agindu hau du: "Ondasun higiezinen alokairu jardueradunek betetzekoa". Higiezinak dira, adibidez, lokalak eta garajeak; baita etxebizitzak ere. Lauki bakarra dago multzo honetan (75): katastru-balioa jarri behar duzu (kontribuzio-agiriak dakarrena).

Lokal bat baino gehiago baduzu, denen katastru-balioa batu eta 75 laukian jarri behar duzu. Eman dezagun, 840 inprimakia Ogasunean aurkeztu eta gero, lokal edo garajeren bat jartzen duzula alokairuan (errentan ematen duzula, alegia); ba, 840 inprimakia aurkeztu beharko zenuke berriro, baina X zeinua "Aldaketa" laukian jarrita, bai azaleko orrian, eta bai lehen orrian.

**KONTRIBUZIOAREN ORDAIN-AGIRIA**



UDALA / AYUNTAMIENTO
HERNANI
0430067
2.002 01
P2004300F
ZERGA/CONCEPTO: URBANA-
EPEA/PERIODO: ANUAL
OC: 2.121
HIRI ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA / IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES-URBANA
IFZ-NIF :
E.KATAS./R.CATAS.:
ZK.FINKOA / N.FIJO:
HELB./DOMIC.: ETXEBERRI AUZOA
LUR BALIOA/VALOR SUELO:
HOBARIA/BONIFICACION:
HERNANIKO UDALA
K.BALIOA/VALOR CATASTRAL: 24.605,46
TASA-TIPO:
DUPLICADO DE RECIBO
BIKOIZTUA
ABONADO
35,68
KUTXA-BANKOA / CAJA-BANCO
SUKURTSALA / SUCURSAL
K.KTE.ZKA. / NUM. CTA.CTE.
K U T X A
20120 - HERNANI
PLAZO DE VOLUNTARIA (SIN RECARGO)
RECARGO DE APREMIO
INTERESAK / INTERESES
KOSTAK / COSTAS
ORDAINTZEKO / TOTAL A INGRESAR
DESDE 15-05-2.002

75 LAUKIA

- Bosgarren azpimultzoak agindu hau du: “Beste ataletan jaso ez diren gainerako jarduerak” (81-87 laukiak). Multzo honetan sartzen dira, besteak beste, jolas eta joko-makinen enpresak edo jabeak, eta etxebizitzen publizitatea nahiz salmenta egiten dutenak. Kasuan kasuko datuak jarri behar dira, zergaren kuota atera ahal izateko. Adibidez:
  - Jolas eta joko-makinen kasuan: ustiaketa-baimenaren zenbakia, modeloa eta seriea.
  - Publizitate-enpresen kasuan: langile-kopurua.
  - Ibilgailuak, neurtzeko tresnak eta abar alokatzen dituzten enpresen kasuan: alokatutatako ibilgailu, tresna eta abarren zenbakia.
  - Etxebizitzen salmentan dabiltzen enpresen kasuan: lokalaren metro karratuak.

- Hirugarren multzoak (90-99) kasu hauek jasotzen ditu:
  - Zure jardueraren ezaugarriengatik, epigrafiaren arabera (90 eta 91 laukiak), Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagokionez, kuota gehiago edo gutxiago ordaindu behar duzunean.
  - Arrazoin berberengatik, lehen urtetan kuota gutxiago ordaindu behar duzunean (93 eta 94 laukiak).
  - Arrazoin berberengatik, kuotarik ordaindu behar ez duzunean (99 laukia). Kasu honetan idazki bat egin behar duzu kuota ordaintzetik kentzeko eskatuz.

  Dena den, gure aholkua da ez ezazula lauki hauetako bat ere bete Ogasuneko funtzionarioarekin hitz egin gabe.

### 2.1.7. Zein agiri aurkeztu behar dituzu 840 inprimakiarekin batera?

- Nortasun Agiria (partikularra bazara).
- Identifikazio Fiskalerako Zenbakiaren Txartela (Sozietateen eta jabegokideen kasuan).
- Errepide bidezko garraio jardueren kasuan: ibilgailuaren fitxa teknikoaren fotokopia.
- 840 inprimaki zaharra aldatu nahi baduzu, pertsona juridikoen era aldatu delako: Identifikazio Fiskalerako Zenbakiaren Txartel berriaren fotokopia.

### 2.1.8. Zein agirirekin etorri behar dute bat 840 inprimakian jarritako datuek?

- Industrian alta emateko agiriarekin (60-62 laukiak).
- Zure ibilgailuaren fitxa teknikoarekin (66-67 lukiak).
- Turismoan alta emateko agiriarekin (70-72 laukiak).
- Kontribuzioaren ordain-agiriarekin (75 laukia).

Erne: Jarraitu liburuxka hau irakurtzen, eta ez zaitezela betetzen hasi, eta ez ezazula tramite bakar bat ere egin, harik eta goitik behera irakurri arte. Izan ere, inprimaki eta tramite kontuetan, emango duzun pauso bakoitzak zergekin zerikusirik duen prozesu osoari eragiten baitio, hain zuen ere bai Ekonomi Jardueren gaineko Zergarekin, bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin, eta bai, azkenik, Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin zerikusirik duen prozesua.

## 2.2 INPRIMAKIA: 841

### Jarduerarekin zeharka lotutako lokala

Herri mailan aritzen diren jarduerentzat da.

Noiz aurkeztu behar duzu 841 inprimakia? Eman dezagun, taberna izanda, beste lokal bat duzula tabernako edariak gordetzeko, baina ez tabernako lokalaren barruan ezta erantsia ere, baizik eta aparte (beste kale batean-edo). Ba, horixe da Jarduerarekin zeharka lotutako lokala, eta, kasu horretan behintzat bai, 841 inprimakia bete beharko zenuke.

### 2.2.1 Zertarako da 841 inprimakia?

Batez ere:

- Jarduerarekin zeharka lotutako lokalari **alta** emateko.
- Era horretako lokalari **baja** emateko.
- Era horretako lokalen datuak berritzeko edo aldatzeko.

### 2.2.2 Nola bete 841 inprimakia?

841 inprimakia 840 inprimakiaren oso antzekoa da. Biek ere lauki berberak dituzten, denak ez badira ere, gehientsuenak bai. Jarri beharreko datu berriak barruko orrian datozenak dira, hain zuzen ere bada lauki-multzo bat izenburu hau duena: “Jarduerarekin zeharka lotutako lokalaren azalera” (40-54 laukiak). Ba, horiexek dira inprimaki honek adierazten dituen datu berriak, eta esanguratsuenak, zergaren kuota ateratzeko garaian.

Erne: jardueraren helbideari buruzko datuek bat etorri behar dute lokalaren helbideari buruzko datuekin.

### 2.2.3 Zein agiri aurkeztu behar dituzu 841 inprimakiarekin batera?

- Nortasun Agiria (partikularra bazara).
- Identifikazio Fiskalerako Zenbakiaren Txartela (Sozietateen eta jabegokideen kasuan).
- 841 inprimaki zaharra aldatu nahi bada, pertsona juridikoen era aldatu delako: Identifikazio Fiskalerako Zenbakiaren Txartel berriaren fotokopia.

**841 INPRIMAKIA**

40-54 laukiak

*IHARDUERAREKIN ZEHARKA LOTUTAKO LOKALAREN AZALERA*
SUPERFICIE DEL LOCAL AFECTO INDIRECTAMENTE A LA ACTIVIDAD

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Lokala murrizketarik gabe* Local sin reducción | *Azalera m²tan* M.² superficie 40 | *Kirol instalakuntza estaliak* Instalaciones deportivas cubiertas | *Azalera m²tan* M.² superficie 44 |
| *Biltegi estaliak* Almacenes cubiertos | *Azalera m²tan* M.² superficie 41 | *Irakaskuntzarako lokala* Local para enseñanza | *Azalera m²tan* M.² superficie 45 |
| *Depositu irekiak* Depositos al aire libre | *Azalera m²tan* M.² superficie 42 | *Denboraldiko ihardueretarako lokalak* Locales de actividades de temporada | *Azalera m²tan* M.² superficie 46 |
| *Aparkaleku estaliak* Aparcamientos cubiertos | *Azalera m²tan* M.² superficie 43 | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| *Lokalaren erabilera edo xedea (Biltegia, depositoa, zuzendaritza gunea, etab.)* Uso o destino del local (almacén, departamento, centro dirección, etc.) | *Gakoa* / Clave 50 | | |
| *Hobariak* Bonificaciones | % / % 51 | % / % 52 | *Hobariaren amaiera eguna* / Fecha fin bonificación 53 |
| *Salbuespen eskabidea* Solicitud de exención | | | *Gakoa* / Clave 54 |

*Lekua eta data* Lugar y fecha ..........

*Subjetu pasiboaren edo Ordezkariaren sinadura* / Firma del Sujeto pasivo o Representante

## 2.3 INPRIMAKIA: 036

### Zentsu Aitorpena

036 inprimakia 840 inprimakiarekin batera aurkeztu behar da (eta 841 inprimakiarekin batera ere bai, hala egokituz gero).

### 2.3.1 Noiz zaude behartuta 036 inprimakia aurkeztera?

- Jarduera enpresarial edo profesionalen bat asteko garaian.

Erne: Jabegokidea bazara, ez ahaztu I Eranskina betetzea.

### 2.3.2 Noiz ez zaude behartuta 036 inprimakia aurkeztera?

Zure jarduera bada Balio Erantsiaren Zerga ordaintzen ez duten etxebizitzak alokatzea.

### 2.3.3 Zertarako da inprimakia?

Batez ere:

- Zure jarduerari **hasiera** emateko.
- Zure jarduerari **amaiera** emateko.
- 036 inprimaki zaharreko datuak **berritzeko edo aldatzeko**.

### 2.3.4 Inprimakia betetzeak zer ondorio dakar berekin?

Ondoriorik garrantzitsuena hauxe da: inprimaki honetan ezarritako datuen arabera, era batean edo bestean egin ditzakezula bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena, eta Balio Erantsiaren Zergaren (BEZ) likidazioa. Adibidez, errentari dagokionez, "Zuzeneko zenbatespen erraztua"[4] aukeratu dezakezu (horretarako eskubiderik baduzu), edo BEZari dagokionez "Erregimen berezi erraztua".

[4] Erdaraz "Estimación directa simplificada"

### 2.3.5 Nola bete 036 inprimakia?

036 inprimakiak bost orri ditu. Sorta hori"Inprimakiak betetzeko jarraibideak" izeneko orri bikoitzaren barruan datoz.

Orri bakoitzaren goiburuan jarri behar dituzu zure Nortasun Agiriaren Zenbakia (edo Identifikazio Fiskalerako Zenbakia), eta izen-deiturak (edo enpresaren izena).

Lehen hiru orriek, guztira, zapi atal dituzte, eta dira:

| | |
|---|---|
| Lehen orria. | 1. atala: *Aurkezpenaren arrazoia.* |
| | 2. atala: *Kokalekua.* |
| | 3. atala: *Zentsuko bestelako datuak.* |
| Bigarren orria: | 4. atala: *Eskaera bereziak.* |
| | 5. atala: *Zerga egoera eta aitorpen-likidazioak* |
| | 6. atala: *Amaiera.* |
| Hirugarren orria: | 7. atala: *Batasunaren barruko eragiketak.* |

Laugarren eta bosgarren orriak eranskinak dira. Hona eranskinen gaiak:

| | |
|---|---|
| I eranskina: | Sozietateen gaineko zergari lotu gabeko entitateetako kide edo partaideen zerrenda. |
| II eranskina: | Lurralde espainiarrean egoiliarrak ez direnen atzerriko helbidea.<br>Ordezkaria<br>Balio erantsiaren gaineko zergan dauden beste hainbat egoera eta aukera |

Goazen banan banan ikustera:

#### 2.3.5.1 Orria: 1

- **1. atala: Aurkezpenaren arrazoia.**
  - Hasiera
    - 3 laukia: jarri X zeinua, jarduera hasi baino lehen, gasturen bat egin baduzu, jarduera martxan jartzeko.
    - 4 laukia: jarri X zeinua, jarduerari hasiera emateko, inprimakia betetzen baduzu.
  - Amaiera
    - 5 laukia: jarri X zeinua, jarduerari baja emateko, inprimakia betetzen baduzu.

- Aldaketa
  - 6-12 laukiak: inprimaki hau lehen aldiz betetzen baduzu, ez bete lauki hauetako bat bera ere. Hurrengo batean, hemengo honetan jarritako daturen bat aldatu nahi baduzu, 036 inprimaki berri bat bete beharko duzu, datu berriekin eta aldaketa egindako eguna jarririk (12 laukia).
- **Identifikazio fiskalerako zenbakiaren eskaera**
  - 13 laukia: jarri X zeinua, jabegokidea bazara, edo bestelako ente juridikoaren kasuan (sozietate zibilak); ez ezazu ezer jarri autonomoa bazara.
  - 200-205 laukiak: 13 laukia bete baduzu, beste horiek ere bete behar dituzu; bestela, ez.
- **Izena, enpresaren helbidea edo IFZ aldatzea**
  - 210-212 laukiak: ondasun-jabegokidekoentzat eta sozietateentzat soilik; pertsona fisikoa bazara, hutsik utzi.

- **2. atala: Kokalekua**
  - Zerga helbidea
    - 14-23: jarri 840 inprimakiko (3-7 laukiak) berberak.

Erne: Zerga helbidea zure ohiko etxebizitza da.

- **3. Atala: Zentsuko bestelako datuak**
  - 25 laukia: ez da bete ohi.
  - 26-28 laukiak: jarri 840 inprimakiko berberak.
  - Jardueraren helbidea
    - 29-38 laukiak: jarri 840 inprimakiko berberak.
  - Helbide soziala
    - 39-50 laukiak: pertsona juridikoen kasuan bete behar da (kooperatiba, ondasun-jabegoak eta sozietateak).
  - Zergapekoa edo ordezkaria
    - 51-55 laukiak: ondasun-jabegoen kasuan, jabegokide bakar baten datuak jarri; autonomoa bazara, zeure datuak.

### 2.3.5.2 Orria: 2

- **4. atala: Eskaera bereziak**

**OSO GARRANTZITSUA**

Atal hau betetzen ez baduzu, zure jarduerak, errentaren aitorpenari dagokionez, besterik gabe izango du Zuzeneko Zenbatespen Arrunta (erdaraz *Estimación Directa Normal*). Balio Erantsiaren Zergari dagokionez, berriz, Erregimen Erraztua.

**PFEZ** (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga)

- 57-59 laukiak.

  Lehenik eta behin begiratu behar duzu zuk 27 laukian jarritako epigrafea (840 inprimakian 32 laukian funtzionarioak jarritakoarekin bat etorri behar duena) ea badatorren Zenbatespen Objektiboa hau da Modulu Sistema egin dezaketen jardueren zerrendan[5]. Hori ikusita:
  - 57 laukia: jarri X zeinua, Moduluetan egin nahi baduzu.
  - 58 laukia: ez bete, jarduerari hasiera emateko, inprimaki hau egin baduzu.
  - 59 laukia: jarri X zeinua, nahiz eta Modulu Sistematik kanpo gelditu zaren, mugak gainditu dituzulako (eman dezagun sistemak gehienez 9 langile onartzen dituela, eta zuk 12 dituzula).
- 60-62 laukiak
  - 60 laukia: jarri X zeinua, Zuzeneko Zenbatespen Erraztua aukeratzeko.
  - 61 laukia: ez bete, jarduerari hasiera emateko, inprimaki hau egin baduzu.
  - 62 laukia: jarri X zeinua, zure jardueraren diru-sarrerak 300.506,05 € (50 milioi) baino gehiago direlako, Zuzeneko Zenbatespen Arrunta nahitaez egin behar baduzu. Gogoan izan, gero 98 laukia bete behar duzunean, “bai” markatu behar duzula.

[5] Liburuaren hurrengo atalean aurkituko duzu errenta egiteko hiru modurik garrantzitsuenak: Zuzeneko Zenbatespen Arrunta (erdaraz *Normal*), Zuzeneko Zenbatespen Erraztua (erdaraz *Simplificada*) eta Zenbatespen Objektiboa (Moduluak).

**BEZ** (Balio Erantsiaren gaineko Zerga)

Nekazaria, abeltzaina edo arrantzalea bazara, horregatik beragatik, besterik gabe, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren Erregimen Berezian zaude. Hortaz, 66, 67 eta 68 laukietako bat bera ere markatzen **ez baduzu**, erregimen horretan jarraituko duzu, eta, behar bada, horixe da komeni zaizuna.

Gainera, bada zerrenda bat, Erregimen Berezi Erraztuan sartuta dauden bestelako jarduerekin egina. Zure jarduera zerrenda horretan bada, behar bada **ez zaizu komeni** 69, 70 eta 71 laukietako bat bera ere markatzea. Izan ere, horietako bat markatuz gero, erregimen horretatik kanpo gelditzen baitzara.

- **5. atala: Zerga egoera eta aitorpen-likidazioak**
  - 89-90: markatu **ez** hiru laukiotan.
  - 93 laukia: langilerik baduzu, markatu **bai**. Profesionalekin lan egitera bazoaz, eta atxikipenak egingo badizkizue, markatu **bai**. Gainerako kasuetan, markatu **ez**.
  - 94 laukia: maizterra bazara eta jabeari, fakturan, atxikipena egingo badiozu, markatu **ez**.
  - 98 laukia: 57tik 62rainoko lauki bat bera ere markatu ez baduzu, markatu **bai**.
  - 99 laukia: 57 laukia markatu baduzu, markatu **bai**.
  - 100 laukia: 60 laukia markatu baduzu, markatu **bai.**
  - 102 laukia: bada zerrenda bat BEZ zergan sartzen ez diren jarduerekin egina, begiratu ea zurea zerrendan sartuta dagoen (ikusi I eranskina, 105 orria). Sartuta ez badago, jarraitu laukiak, markatzen.
  - 110 laukia: Erregimen Erraztuan bazaude, eta ez badiozu uko egin, markatu **bai**.

Erne: 98-100 laukiak funtsezkoak dira, eta denak bata besteekin lotuta daude. Zuk **98 laukian bai** markatzen baduzu, horrek esan nahi du Zuzeneko Zenbatespen Arrunta aukeratu duzula, eta, beraz, ezin duzula Erraztua aukeratu (100 laukia). Gure aholkua da ez ezazula 98 laukian **bai** markatu liburu osoa irakurri gabe, eta bereziki “Jarduera ekonomikoen etekinak kalkulatzeko moduak” izeneko atala (41. orria) irakurri gabe.

**Galdera**

Nire jarduerak 1.sekzioko 673.2 epigrafea du. Hortaz, badut Moduluak aukeratzerik, errentari dagokionez, eta Erregimen Erraztua BEZ zergari dagokionez. Nola bete behar ditut 4 eta 5 bi horiek aukeratu nahi ditudala adierazteko.

**Erantzuna**

Markatu **bai** 99 eta 110 laukietan, baita 57 laukia ere (4. atala).

**Galdera**

Nire jarduerak 1. sekzioko 673.2 epigrafea du, baina ez dut Modulu Sistema aukeratu nahi, baizik eta Zuzeneko Zenbatespen Erraztua. Nola jokatu behar dut?

**Erantzuna**

60 laukia markatu behar duzu, eta 100 eta 110 laukietan **bai**.

**Galdera**

Errentari dagokionez, Zuzeneko Zenbatespen Erraztua aukeratu nahi dut, eta Erregimen Orokorra, BEZ zergari dagokionez (nire jarduerak hala dezakeelako). Nola bete behar ditut 4 eta 5. atalak.

**Erantzuna**

Markatu **bai** 60, 69, 100 eta 103 laukietan.

**Galdera**

Errentari dagokionez, Zuzeneko Zenbatespen Erraztua aukeratzen badut, zenbat urte egon behar dut, gutxienez.

**Erantzuna**

Urtebete.

**Galdera**

BEZ zergari dagokionez, Erregimen Erraztuari uko egiten badiot, zenbat urte egon behar dut, gutxienez. Erregimen Orokorrean?

**Erantzuna**

Hiru urte, gutxienez.

**Galdera**

Errentari dagokionez, urtebetea egin dut Zuzeneko Zenbatespen Erraztuan. Zer egin behar dut Moduluetako Erregimenera itzultzeko.

**Erantzuna**

036 inprimaki berri bat egin behar duzu. Inprimaki berrian, markatu 57 eta 61 laukiak, eta markatu **bai** 99 eta 110 laukietan.

Erne: Ezin izango duzu halakorik egin, aurreko bi urtetan uko egin badiozu BEZ zergaren Erregimen Erraztuari.

**Galdera**

Denda txiki bat daukat 1. sekzioko 651.2 epigrafekoa, eta, beraz, ez dut BEZ zergaren likidaziorik egiten, izan ere, Baliokidetasun Errekargua[6] erabiltzen baitu. Nola bete behar ditut 4 eta 5. atalak.

**Erantzuna**

Zuzeneko Zenbatespen Erraztua aukeratu nahi baduzu, markatu 60 laukia (4. atala). Dena den, 4. atalari dagokionez, **ez duzu** markatu behar 103tik 110eraino dauden laukiak, ez duzulako aitorpena zertan eginik. Aldiz, markatu egin behar dituzu 112tik 115eraino daudenak. Gainerakoan, errentari dagokionez, Zuzeneko Zenbatespeneko bi metodoetako bat aukera dezakezu: Arrunta nahiz Erraztua; ez, ordea, Moduluak (Zenbatespen Objektiboa). Jakina, 93 eta 94 laukiak **bai** edo **ez** izan daitezke, daukazun jardueraren arabera. Ikusi bestela orria:

**1. sekzioko 651.2 EPIGRAFEA**

*Erropa denda, txikikazkoa ("al por menor")*



**5. ATALA: ZERGA EGOERA ETA AITORPEN-LIKIDAZIOAK**

JAR EZAZU "X" BAT BEHAR DIREN LAUKITXOETAN

| | | BAI | EZ |
|---|---|---|---|
| Enpresa handiaren izaera al duzu? | 89 | | X |
| Behartuta al zaude Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera? | 90 | | X |
| Entitatea erabat edo partzialki salbuetsita al dago Sozietateen gaineko Zergaren 7/1996 Foru Arauak 9. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera? | 91 | | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako lan etekinik? | 93 | X | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako hiri ondasun higiezinen errentamendutik datorren etekinik? | 94 | X | X |
| PFEZn erabiltzen den zenbatespen metodoa: | | | |
| - Zuzeneko zenbatespen arrunta | 98 | X | |
| - Modulu bidezko zenbatespen objektiboa | 99 | | X |
| - Zuzeneko zenbatespen erraztua | 100 | X | |
| **Behartuta al zaude BEZaren aldizkako aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera?** | 102 | | X |
| - Baiezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Erregimen Orokor edo Arruntean al zaude? | 103 | | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 104 | | |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria banaka zehaztuz? | 105 | | |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria batera zehaztuz? | 106 | | |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, zaharkinen eta bilduma-gaien erregimen berezian? | 107 | | |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, eta abarren erregimen berezian, mozkin marjina batera zehaztuz? | 108 | | |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 109 | | |
| - Sartuta al zaude BEZren erregimen berezi erraztuan? | 110 | | |
| - Ezezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 112 | X | |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 113 | | X |
| - BEZri buruzko 102/92 FDko 20. artikuluaren arabera salbuetsitako eragiketak egiten al dituzu soilik? | 114 | | X |
| - Kontzertu Ekonomikoaren Legea aplikagarri al zaizu? | 115 | | X |

Administrazioarentzako Alea

**6. ATALA: AMAIERA**

[6] Ikus "Baliokidetasun Errekargua" (88 orria).

**Galdera**

Taberna bat dut 1.sekzioko 673.2 epigrafea duena. Errentari dagokionez, Moduluetan dago, eta, BEZ zergari dagokionez, berriz, Erregimen Berezi Erraztuan. Nola bete behar ditut 4 eta 5. atalak?

**Erantzuna**

Moduluak aukeratuz gero, 57 laukia markatu behar duzu (4. atala), eta ez duzu bat bera ere markatu behar, 112tik 115eraino; izan ere, BEZ likidazioa egiterik ez dutenentzat baitira lauki horiek. Ikusi bestela orria:

**1. sekzioko 673.2 EPIGRAFEA**

Taberna/Moduluak/BEZaren Erregimen Berezi Erraztua



5. ATALA: ZERGA EGOERA ETA AITORPEN-LIKIDAZIOAK

JAR EZAZU "X" BAT BEHAR DIREN LAUKITXOETAN

| | | BAI | EZ |
|---|---|---|---|
| Enpresa handiaren izaera al duzu? | 89 | | X |
| Behartuta al zaude Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera? | 90 | | X |
| Entitatea erabat edo partzialki salbuetsita al dago Sozietateen gaineko Zergaren 7/1996 Foru Arauak 9. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera? | 91 | | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako lan etekinik? | 93 | X | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako hiri ondasun higiezinen errentamendutik datorren etekinik? | 94 | X | X |
| PFEZn erabiltzen den zenbatespen metodoa: | | | |
| - Zuzeneko zenbatespen arrunta | 98 | | X |
| - Modulu bidezko zenbatespen objektiboa | 99 | X | |
| - Zuzeneko zenbatespen erraztua | 100 | | X |
| **Behartuta al zaude BEZaren aldizkako aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera?** | 102 | X | |
| - Baiezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Erregimen Orokor edo Arruntean al zaude? | 103 | | X |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 104 | | X |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria banaka zehaztuz? | 105 | | X |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria batera zehaztuz? | 106 | | X |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, zaharkinen eta bilduma-gaien erregimen berezian? | 107 | | X |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, eta abarren erregimen berezian, mozkin marjina batera zehaztuz? | 108 | | X |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 109 | | X |
| - Sartuta al zaude BEZren erregimen berezi erraztuan? | 110 | X | |
| - Ezezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 112 | | |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 113 | | |
| - BEZri buruzko 102/92 FDko 20. artikuluaren arabera salbuetsitako eragiketak egiten al dituzu soilik? | 114 | | |
| - Kontzertu Ekonomikoaren Legea aplikagarri al zaizu? | 115 | | |

Administraziorentzako Alea

6. ATALA: AMAIERA

**Galdera**

Taberna bat dut 1. sekzioko 673.2 epigrafea duena. Errentari dagokionez, Zuzeneko Zenbatespen Erraztuan dago, eta, BEZ zergari dagokionez, berriz, Erregimen orokorrean. Nola bete behar ditut 4 eta 5. atalak?

**Erantzuna**

60 laukia markatu behar duzu (4. atala), eta 100, 102 eta 103 laukiak (5. atala). Ikusi bestela orria:

### 1. sekzioko 673.2 EPIGRAFEA

Taberna/Zuzeneko Zenbatespen Erraztua/BEZaren Erregimen Orokorra

**5. ATALA: ZERGA EGOERA ETA AITORPEN-LIKIDAZIOAK**

JAR EZAZU "X" BAT BEHAR DIREN LAUKITXOETAN

| | | BAI | EZ |
|---|---|---|---|
| Enpresa handiaren izaera al duzu? | 89 | | X |
| Behartuta al zaude Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera? | 90 | | X |
| Entitatea erabat edo partzialki salbuetsita al dago Sozietateen gaineko Zergaren 7/1996 Foru Arauak 9. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera? | 91 | | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako lan etekinik? | 93 | X | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako hiri ondasun higiezinen errentamendutik datorren etekinik? | 94 | X | X |
| PFEZn erabiltzen den zenbatespen metodoa: | | | |
| - Zuzeneko zenbatespen arrunta | 98 | | X |
| - Modulu bidezko zenbatespen objektiboa | 99 | | X |
| - Zuzeneko zenbatespen erraztua | 100 | X | |
| **Behartuta al zaude BEZaren aldizkako aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera?** | 102 | X | |
| - Baiezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Erregimen Orokor edo Arruntean al zaude? | 103 | X | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 104 | | X |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria banaka zehaztuz? | 105 | | X |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria batera zehaztuz? | 106 | | X |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, zaharkinen eta bilduma-gaien erregimen berezian? | 107 | | X |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, eta abarren erregimen berezian, mozkin marjina batera zehaztuz? | 108 | | X |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 109 | | X |
| - Sartuta al zaude BEZren erregimen berezi erraztuan? | 110 | | X |
| - Ezezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 112 | | |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 113 | | |
| - BEZri buruzko 102/92 FDko 20. artikuluaren arabera salbuetsitako eragiketak egiten al dituzu soilik? | 114 | | |
| - Kontzertu Ekonomikoaren Legea aplikagarri al zaizu? | 115 | | |

Administrazioarentzako Alea

**6. ATALA: AMAIERA**

**Galdera**

BEZ zergari dagokionez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren Erregimen Berezian nago. Nola bete behar ditut 4 eta 5. atalak?

**Erantzuna**

Markatu 57 laukia (4. atala). Bestalde, 5. atalari dagokionez, ikusi nola beteko litzatekeen orria:

**BEZ**

**Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren Erregimen Berezia**

**5. ATALA: ZERGA EGOERA ETA AITORPEN-LIKIDAZIOAK**

JAR EZAZU "X" BAT BEHAR DIREN LAUKITXOETAN

| | | BAI | EZ |
|---|---|---|---|
| Enpresa handiaren izaera al duzu? | 89 | | X |
| Behartuta al zaude Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera? | 90 | | X |
| Entitatea erabat edo partzialki salbuetsita al dago Sozietateen gaineko Zergaren 7/1996 Foru Arauak 9. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera? | 91 | | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako lan etekinik? | 93 | X ↔ | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako hiri ondasun higiezinen errentamendutik datorren etekinik? | 94 | X ↔ | X |
| PFEZn erabiltzen den zenbatespen metodoa: | | | |
| - Zuzeneko zenbatespen arrunta | 98 | | X |
| - Modulu bidezko zenbatespen objektiboa | 99 | X | |
| - Zuzeneko zenbatespen erraztua | 100 | | X |
| **Behartuta al zaude BEZaren aldizkako aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera?** | 102 | | X |
| - Baiezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Erregimen Orokor edo Arruntean al zaude? | 103 | | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 104 | | |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria banaka zehaztuz? | 105 | | |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria batera zehaztuz? | 106 | | |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, zaharkinen eta bilduma-gaien erregimen berezian? | 107 | | |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, eta abarren erregimen berezian, mozkin marjina batera zehaztuz? | 108 | | |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 109 | | |
| - Sartuta al zaude BEZren erregimen berezi erraztuan? | 110 | | |
| - Ezezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 112 | | X |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 113 | X | |
| - BEZri buruzko 102/92 FDko 20. artikuluaren arabera salbuetsitako eragiketak egiten al dituzu soilik? | 114 | | X |
| - Kontzertu Ekonomikoaren Legea aplikagarri al zaizu? | 115 | | X |

Administrazioarentzako Alea

**6. ATALA: AMAIERA**

**Galdera**

Jateko produktuak egiten ditut, 1. sekzioko 423 taldearekin, hain zuzen. Nahitaez egon behar al dut Zuzeneko Zenbatespen sisteman (errentari dagokionez) eta Erregimen Orokorrean (BEZari dagokionez), edo badut bestelako aukerarik?

**Erantzuna**

Ez duzu bestelako aukerarik: nahitaez Zuzeneko Zenbatespen erregimenean egon behar duzu (errentari dagokionez), eta nahitaez, baita ere, Erregimen Orokorrean (BEZari dagokionez). Hori bai, Zuzeneko Zenbatespen Erregimenaren barruan, Erregimen Arrunta ala Erraztua aukera dezakezu. Hortaz, Zuzeneko Zenbatespen Arruntean, 4. Atala bete gabe utzi behar duzu, eta, 5. atalari dagokionez, berriz, ikusi nola beteko litzatekeen orria:

**1. sekzioko 423 TALDEA**

Jateko produktuak egitea

**5. ATALA: ZERGA EGOERA ETA AITORPEN-LIKIDAZIOAK**

JAR EZAZU "X" BAT BEHAR DIREN LAUKITXOETAN

| | | BAI | EZ |
|---|---|---|---|
| Enpresa handiaren izaera al duzu? | 89 | | X |
| Behartuta al zaude Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera? | 90 | | X |
| Entitatea erabat edo partzialki salbuetsita al dago Sozietateen gaineko Zergaren 7/1996 Foru Arauak 9. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera? | 91 | | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako lan etekinik? | 93 | X | X |
| Ordaintzen al duzu atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako hiri ondasun higiezinen errentamendutik datorren etekinik? | 94 | X | X |
| PFEZn erabiltzen den zenbatespen metodoa: | | | |
| - Zuzeneko zenbatespen arrunta | 98 | X | |
| - Modulu bidezko zenbatespen objektiboa | 99 | | X |
| - Zuzeneko zenbatespen erraztua | 100 | X | |
| **Behartuta al zaude BEZaren aldizkako aitorpena Gipuzkoako Foru Ogasunean aurkeztera?** | 102 | X | |
| - Baiezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Erregimen Orokor edo Arruntean al zaude? | 103 | X | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 104 | | X |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria banaka zehaztuz? | 105 | | X |
| - Sartuta al zaude bidai agentzien erregimenean, oinarri ezargarria batera zehaztuz? | 106 | | X |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, zaharkinen eta bilduma-gaien erregimen berezian? | 107 | | X |
| - Sartuta al zaude ondasun erabilien, arte-lanen, eta abarren erregimen berezian, mozkin marjina batera zehaztuz? | 108 | | X |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 109 | | X |
| - Sartuta al zaude BEZren erregimen berezi erraztuan? | 110 | | X |
| - Ezezkoan, bete itzazu BEZri buruzko ondoko laukitxoak: | | | |
| - Sartuta al zaude Baliokidetasun Errekarguaren Txikizkako Merkataritzaren erregimen berezian? | 112 | | |
| - Sartuta al zaude Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren erregimen berezian? | 113 | | |
| - BEZri buruzko 102/92 FDko 20. artikuluaren arabera salbuetsitako eragiketak egiten al dituzu soilik? | 114 | | |
| - Kontzertu Ekonomikoaren Legea aplikagarri al zaizu? | 115 | | |

Administrazioarentzako Alea

**6. ATALA: AMAIERA**

- **6. atala: Amaiera**
  - 116 laukia: jarduera amaitu den eguna.
  - 117 laukia: amaitu dela arrazoitzeko, hiru hauetako bat jarri:
    - Jarduera bertan behera gelditzea
    - Zahardadea
    - Elbarritasuna edo herioa

Erne: Jarduera amaitu bada, 4 eta 5. atalak bete gabe utzi behar dituzu.

### 2.3.5.3 Orria: 3

- **7. atala: Batasunaren barruko eragiketak**

Atal hau bete behar du Europako Batasuneko herri batekin salerosketan aritzen den edonork. Herri hjoriek dira: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Filandia, Grezia, Irlanda, Italia, Luxenburgo, Herbehereak, Portugal, Erresuma Batua eta Suedia.

Zazpigarren atal honek beste bi azpiatal ditu: bata, herri horietara saltzen duenak bete behar du; bestea, herri horietatik erosten duenak.

#### Urrutiko salmentak (118-121 laukiak)

Urrutirako moduez saltzen dutenek bete behar dute (adibidez, kartalogo bidez saltzen dutenek), baldin eta erosleek (Europako Batasunekoek, jakina) BEZ zergapean **ez** badaude. Bi kasuok bereizi behar dira:

- Herri bakoitzean egindako salmentak ez daitezela izan 27.346,05 € baino gehiago.
- Hortik goragoko salmentak, herri bakoitzean eginak, jakina. Bigarren kasu honetan, fakturan eroslearen herriko BEZ zerga jarriko da; eta, gainera, BEZ zergaren likidazioa eroslearen herrian egin beharko da.

Zentsu Aitorpena lehen aldiz egiten denean, herri bakoitzeko 119 laukian, **ez** markatu ohi da. Lehen esandako Diru-kopura gainditzen den unean, berriro egin ohi da Zentsu Aitorpena (036 inprimakia) aldaketa honekin: **bai** markatu behar da 199 laukian, baita 120 laukia ere.

#### Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren Erregimen Berezian dauden subjektu pasiboak, salbuetsitako subjektu pasiboak, eta enpresari edo profesional moduan jarduten ez diren pertsona juridikoak (122-128)

Zu horietako pertsonaren bat bazara, eta lehen esandako herri horietako batean erosi baduzu, kontsumitzaile gisa erosi dezakezu, edo enpresari gisa. Enpresari gisa egiten baduzu, batasunaren barruko faktura egingo dizute, BEZ zergarik gabe.

Orain bai, urtean erositako diru-kopurua 10.000 € baino gehiago bada, enpresari gisa aitortu beharko duzu. Horrek esan nahi du BEZ zerga Gipuzkoako foru ogasunari ordaindu behar diozula, autofaktura bidez; eta, gainera, erosketa hiru hilabetero aitortu behar duzula, 349 inprimakia dela medio.

### 2.3.5.4 Eranskina: I

- Sozietateen gaineko zergari lotu gabeko entitateetako kide edo partaideen zerrenda.

  Ondasun jabegokideek soilik bete behar dute. Elkartearen izena jari behar duzu (CB erantsita) eta jabegokide bakoitzaren datuak.

### 2.3.5.5 Eranskina: II

- Lurralde espainiarrean egoiliarrak ez diren subjektu pasiboak eta BEZaren beste hainbat egoera eta aukera.

# 3. Jarduera ekonomikoen etekinak kalkulatzeko moduak


3. Jarduera ekonomikoen etekinak kalkulatzeko moduak

3.1. Zuzeneko zenbatespen arrunta

3.1.1. Modalitate hau aukeratzeko baldintzak

3.1.2. Zein sistemarekin da bateraezina?

3.1.3. Nola kalkulatzen dira etekinak?

3.1.4. Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu?

3.2. Zuzeneko zenbatespen erraztua

3.2.1. Modalitate hau aukeratzeko baldintzak

3.2.2. Zein sistemarekin da bateraezina?

3.2.3. Uko egiteko modua

3.2.4. Nola kalkulatzen dira etekinak?

3.2.4.1. Prozedura arrunta

3.2.4.2. Prozedura berezia

3.2.4.3. Prozedura sektoriala

3.2.4.3.1. Merkantzien garraioa errepidez

3.2.4.3.2. Basogintza

3.2.5. Nola kalkulatzen dira etekin irregularrak?

3.2.5.1. Bi urtetik gorako epean sortutako etekinak

3.2.5.2. Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak

3.2.6. Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu?

3.3. Zenbatespen objektiboa (moduluak)

3.3.1. Modalitate hau aukeratzeko baldintzak

3.3.2. Zein sistemarekin da bateraezina?

3.3.3. Uko egiteko modua

3.3.4. Nola kalkulatzen dira etekinak?

3.3.4.1. Langileak

3.3.4.2. Soldatapekoak ez diren langileak

3.3.4.3. Soldatapeko langileak

3.3.4.4. Potentzia elektrikoa

3.3.4.5. Mahaia

3.3.4.6. Ibilgailua

3.3.4.7. Indize zuzentzaileak

3.3.5. Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu?

Langile autonomoa zaren aldetik (profesionala, enpresaria, ondasun-sozietate edo sozietate zibil bateko kidea), zeuk ere egin behar duzu urtero Errentaren Aitorpena. Horri buruzko argibide guztiak hurrengo kapituluan izango dituzu ikusgai. Bitartean, zure laneko irabaziak kalkulatzeko moduak jakinaraziko dizkizugu. Hona hemen aukeran dituzun hiru sistema edo modalitateak:

a) Zuzeneko Zenbatespen Arrunta.
b) Zuzeneko Zenbatespen Erraztua.
c) Zenbatespen Objektiboa (Moduluak).

Oro har, jarduera abian jartzen den lehen urtean (alegia, 036 inprimakia betetzen duzunean), nahi duzun sistema aukera dezakezu Errentaren Aitorpena egiteko; esate baterako, Zuzeneko Zenbatespen Erraztua hautatu ahal duzu nahiz eta sumatu legez ezarritako diru-mugak gaindituko dituzula (kasu honetan, 300.506,05 €). Era berean, Moduluak ere aukera ditzakezu baldin eta zure jarduera sistema hori erabil dezaketen jardueren artean badago. Nolanahi ere, jakin ezazu bigarren urtetik aurrera bestelako kontuak hartu behar dituzula aintzat. Hartara, ondorengo azalpen hauek.

## 3.1. ZUZENEKO ZENBATESPEN ARRUNTA

Seguru asko hauxe da zure negozioaren benetako egoerari hoberen egokitzen den modalitatea; izan ere, benetan irabazitako diruen arabera ordainduko duzu Aitorpenean. Dena dela, arazo txiki bat dago: modu hau aukeratzen baduzu, Merkataritzako Kodeari jarraituz eraman behar duzu kontabilitatea; beraz, bietako bat: edo prestatuta zaude horretarako, edo profesionalen laguntza eskatzen duzu zure kontuen ardura har dezaten.

### 3.1.1 Modalitate hau aukeratzeko baldintzak

- Aurreko urteko salmenta-kopuruak **300.506,05 euro** (50 milioi pezeta) **baino handiagoa** izan behar du. Kopuru horretan ez dira sartzen Moduluen bidez kalkulatzen dituzun jarduerak.

Erne: Demagun zure jarduera uztailean hasi dela eta abendura arte 60.101,21 euroko salmentak egin dituzula. Kasu horretan kopuru osoa 120.202,42 eurokoa litzateke.

- Sistema hau ezartzeko behar-beharrezkoa da aldez aurretik beste bi modalitateei uko egin izana (aplikatzeko modukoak izatekotan, jakina). Ukapen hori Zentsu Aitorpenean adierazi behar duzu (036 inprimakia) abenduaren 31 baino lehen.

## LABURPENA

Jardueraren bigarren urtetik aurrera, kalkuluak egiteko aurreko urtea hartzen da beti kontuan. Zenbatespen Arrunta nahi duzun momentuan hautatu dezakezu; Erraztua, ordea, lehen urtean bakarrik, edo hurrengoetan, beti ere aurrekoaren salmentak 50 milioi pezetakoak baino txikiagoak badira. Jarduera ekonomikoak lehen urte osoa hartzen ez badu, dagokion portzentajea ezarriko da.

**Adibidea:**
demagun uztailean jarri zenuela martxan negozioa.

| Urtea | Salmentak | Modalitatea | Ezaugarriak |
|---|---|---|---|
| 2002 (uztaila) | 180.303,63 euro | Erraztua | Jardueraren lehen urtea |
| 2003 | 228.384,60 euro | Arrunta | Aurreko urtean, 180.303,63 x 2 = 360.607,26 euro |

**Adibidea:**
Eman dezagun salmentak, urte batzuetan, 300.506,05 eurokoak (50 milioi pezeta) baino handiagoak direla, eta, beste batzuetan, txikiagoak.

| Urtea | Salmentak | Modalitatea | Ezaugarriak |
|---|---|---|---|
| 2002 | 432.728,72 euro | Erraztua | Jardueraren lehen urtea |
| 2003 | 228.384,60 euro | Arrunta | Aurreko urtean, 300.506,05 euro baino gehiago |
| 2004 | 312.526,29 euro | Erraztua | Aurreko urtean, 300.506,05 euro baino gutxiago |

### 3.1.2 Zein sistemarekin da bateraezina?

Zure jardueraren etekin garbia kalkulatzeko Zuzeneko Zenbatespen Arrunta aukeratu baduzu, modalitate bera erabiliz kalkulatu behar dituzu zure jarduera **guztiak**; hala ere, urtean barrena jarduera ekonomiko berriren bat martxan jartzen baduzu, beste modalitate bat hautatu ahal duzu jarduera berri horretarako, beti ere lehen urte horretan. Hurrengoan, sistema bera erabili beharko duzu jarduera guztietarako.

Aurreko paragrafoan esandakoak ez du balio, zure jarduera batzuei Moduluen sistema aplikagarri bazaie. Dena dela, garbi gera dadila hau: nahikoa da Moduluetan dagoen jarduera bat Arruntera pasatzea, Moduluetan geratzen diren besteak ere pasatu behar izateko.

### 3.1.3 Nola kalkulatzen dira etekinak?

Gainetik azalduta, honela: diru-sarrera guztiei gastuak kenduta (hauek dira gastu horietako batzuk: langileen soldatak, materialen erosketak, amortizazioak, alokairuak, maileguen interesak, beste pertsona batzuei agindutako lanak, aseguru-sariak...).

**DIRU-SARRERAK – GASTUAK = ETEKIN GARBIA**

Honaino helduta, hiru gauza hartu behar dira kontuan:

1. Ez dira gastu kengarriak izango (hortaz, ezingo dira deduzitu) gizarte-aurreikuspeneko mutualitateei egindako ekarpenak (bai, ordea, oinarri ezargarri orokorrean). Dena dela, Gizarte Segurantzan sartuta **ez** bazaude, gastu kengarriak izango dira gizarte-aurreikuspeneko mutualitateekin sinatutako aseguru-kontratuengatik ordaindu dituzun diruak (**urteko muga: 3.005,06 €**).
2. Zure ezkontideak edo zurekin bizi diren adingabeko seme-alabek zure negozioan modu jarraituan lan egiten badute, beren soldatak gastu kengarriak izango dira, beti ere ondorengo baldintzak betetzen badira:
    - Horiek guztiek bidezko lan-kontratua izatea.
    - Gizarte Segurantzan sartuta egotea.
    - Beren soldatak lan-merkatuan legozkiekeenak baino handiagoak ez izatea.
3. Zure ezkontideak edo zurekin bizi diren adingabeko seme-alabek ondasun edo eskubideak lagatzen badituzte jarduera ekonomikoaren zerbitzura jartzeko, orduan deduzitu ahalko duzu haiekin hitzartutako kontraprestazioa, hori bai, ordaindutakoak merkatuko balioa gainditzen ez badu.

### 3.1.4 Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu?

Zuzeneko Zenbatespenaz ari garelarik (Arrunta zein Erraztua izan), bi talde hauen artean bereiztu beharra dago:

a) Enpresariak.

b) Profesionalak (hauek ez dute ez fabrikatzen ez merkataritzan jarduten: abokatuak, arkitektoak, artistak...).

### a) Enpresariak

Aurrerago esan dugunez, Modalitate Arruntaren ezaugarri nagusia hau da: ez dela nahikoa salmenta eta erosketa liburuak izatea edo fakturak gordetzea; aitzitik, sistema honetan kontabilitatea eraman behar da, eta, gainera, Merkataritza Kodearen arabera. Hori kontuan izanik, hauek dira Merkataritza Kodeak eskatzen dituen liburuak:

- Egunkari Liburua. Bertan kontusail biko kontabilitatea jasotzen da, idazpenaka.
- Liburu Nagusia. Kontabilitatearen nondik-norakoak idazten dira hor (balantzeak).
- Inbentarioen eta Urteko Kontuen Liburua. Eragiketa hauek egiten dira:
    - Ekitaldiaren hasieran: hasierako balantzea.
    - Hiru hilero: baturak eta saldoak egiaztatzeko balantzea.
    - Urtean behin:
        a) Inbentarioa.
        b) Ekitaldiaren balantzea.
        c) Galera-irabazien kontua.
        d) Memoria.

Erne: Gogoan izan urtero joan behar duzula Merkataritza Erregistrora, kontabilitate liburuak zigiluz jotzeko; urtarrilaren batetik apirilaren 30a bitarte.

### b) Profesionalak

Profesionalek **ez dute** zertan eraman kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera; bai, ordea, liburu hauek:

- Diru-sarreren Liburua.
- Gastuen Liburua (ez, ordea, erosketena).

- Inbertsio Ondasunen Liburua.
- Kutxako Liburua (edo banku eta aurrezki-kutxen kontu-laburpenak).
- Fondo eta Osakinen Liburua.

---

**Galdera:**

Zurgina naiz eta Zuzeneko Zenbatespen Arruntaren bidez egiten dut Aitorpena. Inoiz bazkideren batekin elkartu eta sozietate bat sortuko bagenu (mugatua edo anonimoa), asko aldatuko lirateke eraman beharreko liburuak eta erregistroak?

**Erantzuna:**

Ez. Egia esateko, liburu eta erregistroak berdinak dira kasu batean zein bestean.

---

**Galdera:**

Profesional bat naiz. Merkataritza Kodearen arabera eraman behar al ditut nire liburuak?

**Erantzuna:**

Ez, eta ez duzu zertan libururik erregistratu. Merkataritza Kodea enpresariei dagokie, ez zuri.

---

## 3.1 ZUZENEKO ZENBATESPEN ERRAZTUA

Sistema honetan Modalitate Arruntarekin egiten zenuen modu berean kalkulatzen dituzu etekinak: diru-sarrerei gastuak kenduta, alegia. Zein da bi moduen arteko aldea? Bada, Sistema Erraztuan deduzitu ezin daitezkeen gastu batzuk badirela: hornidurak, amortizazioak, etab. Hori desabantaila izan ez dadin, murrizpen batzuk egiteko aukera dago (geroxeago ikusiko dugu kontu hau).

### 3.2.1 Modalitate hau aukeratzeko baldintzak

- Aurreko urteko salmenta-kopurua **ezin izan daiteke 300.506,05 eurokoa** (50 milioi pezeta) **baino handiagoa**. Kopuru horretan ez dira sartzen Moduluen bidez kalkulatzen dituzun jarduerak.

Erne: Demagun zure jarduera uztailean hasi dela eta abendura arte 60.101,21 euroko salmentak egin dituzula. Kasu horretan kopuru osoa 120.202,42 eurokoa litzateke.

- Sistema hau ezartzeko behar-beharrezkoa da aldez aurretik beste bi modalitateei uko egin izana (aplikatzeko modukoak izatekotan, jakina). Ukapen hori Zentsu Aitorpenean adierazi behar duzu (**036 inprimakia**) abenduaren 31 baino lehen.

### 3.2.2 Zein sistemarekin da bateraezina?

Zure jardueraren etekin garbia kalkulatzeko Zuzeneko Zenbatespen Erraztua aukeratu baduzu, modalitate bera erabiliz kalkulatu behar dituzu zure jarduera **guztiak**; hala ere, urtean barrena jarduera ekonomiko berriren bat martxan jartzen baduzu, beste modalitate bat hautatu ahal duzu jarduera berri horretarako, beti ere lehen urte horretan. Hurrengoan, sistema bera erabili beharko duzu jarduera guztietarako.

Aurreko paragrafoan esandakoak ez du balio, zure jarduera batzuei Moduluen sistema aplikagarri bazaie. Dena dela, garbi gera dadila hau: nahikoa da Moduluetan dagoen jarduera bat Erraztura pasatzea, Moduluetan geratzen diren besteak ere pasatu behar izateko.

### 3.2.3 Uko egiteko modua

Sistema hau aukeratzekotan indarrean jarraituko du harik eta Zertsu Aitorpenean (036 inprimakia; aldaketa) uko egiten diozula adierazi arte.

### 3.2.4 Nola kalkulatzen dira etekinak?

Dagoeneko esan dugu sistema honetan ezin deduzitu daitezkeela zenbait gastu, eta horren ordainez, murrizketa bat egiten dela. Bada, murrizketa hori etekinak kalkulatzeko aukeratzen duzun prozeduraren araberakoa izaten da. Prozedura horiek hiru dira: Arrunta, Berezia eta Sektoriala. Garraiolaria bazara edo baso-ustiapenean jarduten baduzu, hiru prozeduretako edozein hautatu ahal duzu; hori horrela ez bada, lehena edo bigarrena besterik ez duzu aukeratu.

#### *3.2.4.1 Prozedura Arrunta*

- Lehenengo eta behin, diru-sarrerei gastuak kentzen zaizkie, gastu hauek kanpo utzita: **hornidurak** eta jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako **irabaziak eta galerak**.
- Ateratzen den kopuruari **%5** kentzen zaio.

- Azkenik, jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako irabaziak eta galerak kasuan kasu gehitu edo kentzen zaizkio emaitzari.

### 3.2.4.2 Prozedura Berezia

- Lehenengo eta behin, diru-sarrerei gastuak kentzen zaizkie, gastu hauek kanpo utzita: **hornidurak, amortizazioak,** eta jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako **irabaziak eta galerak**.
- Ateratzen den kopuruari **%10** kentzen zaio.
- Azkenik, jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako irabaziak eta galerak kasuan kasu gehitu edo kentzen zaizkio emaitzari.

**Adibidea**

Eman dezagun zure enpresak honako datuok dituela:

| | |
|---|---|
| Salmentak | 35.000 € |
| Erosketak | 12.000 € |
| Amortizazioak | 2.200 € |
| Jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako irabazia | 1.100 € |

Kasu honetan, **Prozedura Arrunta** erabiliko bagenu, hauxe izango litzateke zure jardueraren etekin garbia:

| | |
|---|---|
| Diru-sarrerak (salmentak) | 35.000 € |
| Gastuak (erosketak + amortizazioak) | 14.200 € |
| Aldea (diru-sarrerak – gastuak) | 20.800 € |
| 20.800en %5 | 1.044 € |
| Jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako irabazia | 1.100 € |
| Etekin garbia (20.800 – 1.044 + 1.100) | **20.856 €** |

Prozedura Berezia erabiliz gero, ordea, aldatu egiten da emaitza:

| | |
|---|---|
| Diru-sarrerak (salmentak) | 35.000 euro |
| Gastuak (erosketak) | 12.000 euro |
| Aldea (diru-sarrerak – gastuak) | 23.000 euro |
| 23.000en %10 | 2.300 euro |
| Jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako irabazia | 1.100 euro |
| Etekin garbia (23.000 – 2.300 + 1.100) | **22.800 euro** |

### 3.2.4.3 Prozedura Sektoriala (merkantzien errepidezko garraioari eta basogintzari aplikatzen zaie bakar-bakarrik)

#### 3.2.4.3.1 Merkantzien garraioa errepidez

- Lehenengo eta behin, diru-sarrerei gastuak kentzen zaizkie, gastu hauek kanpo utzita: **hornidurak,** jardueraren barruan izandako **mantenu-gastuak,** eta jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako **irabaziak eta galerak**.
- Ateratzen den kopuruari mantenu-gastuak kentzen zaizkio: 46,59 euro eguneko, gastua atzerrian egiten bada; eta 22,07, Espainiako Estatuan. Edozein modutara ere, mantenu-gastuek ezin dute gainditu diru-sarreren eta gastuen arteko diferentziaren %28a (hasierako zenbatekoa).
- Emaitzari **%5** kentzen zaio**.**
- Azkenik, jarduerari atxikitako ondare-elementuetatik etorritako irabaziak eta galerak kasuan kasu gehitu edo kentzen zaizkio emaitzari.

#### 3.2.4.3.2 Basogintza

- Diru-sarreren %58,5 hartzen dira **gastu kengarritzat** (deduzitu daitezke, beraz).

**Adibidea**

Alderatu egingo ditugu, jarraian, merkantzien errepidezko garraioan etekinak kalkulatzeko dauden bost prozedura (Zenbatespen Arrunta, Moduluak, Prozedura Arrunta, Berezia eta Sektoriala). Jo dezagun garraiolari bat zarela eta zure negozioak honako datuak dituela:

| | |
|---|---|
| – Urteko fakturazioa | 212.000 € |
| – Erosketarik ez | |
| – Langile-gastuak | |
| – Soldatak | 52.500 € |
| – Gizarte Segurantza | 23.000 € |
| – Garajea: zurea | |
| – Konponketak | 20.000 € |
| – Profesionalen zerbitzuak (aholkularitza, abokatuak...) | 1.000 € |
| – Bestelako zerbitzuak (gasolioa, aseguruak, telefonoa, ura, argia) | 61.000 € |
| – Zerga kengarriak (JEZ) | 1.600 € |
| – Finantza-gastuak (maileguen interesak, letra eta zor-agirien negoziaketa-gastuak) | 6.000 € |
| – Amortizazio kengarriak[7] | 11.000 € |
| – Mantenu-gastuak (bazkari-gastuak zurea ez den herrietan)[8] | 7.000 € |
| – Beste gastu kengarri batzuk (publizitatea, bulegoko materiala...) | 10.000 € |

**Hona hemen emaitzak:**

[7] Taulak, kamioi eta garajeagatik (7/1996 Foru Arauaren 11. artikulua: Ikus I. eranskina, 104. orria).

[8] Ezin dute gainditu diru-sarreren eta gastuen arteko diferentziaren %28.

## MERKANTZIEN GARRAIOA ERREPIDEZ

Zuzeneko Zenbatespena

(4 modalitateak alderatzeko koadroa)

IFZ | **6. eranskina 109 PFEZ** | **Zuzeneko zenbatespenean dauden jarduera ekonomikoen etekinak** | *8400101122002* | **10**

0000902

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Modalitatea** | | Arrunta | Erraztua | Erraztua | Erraztua |
| **Prozedura** | | - | Arrunta | Berezia | Sektoriala |
| Jasotzailearen gakoa | Jarduera | D Garraioa | D Garraioa | D Garraioa | D Garraioa |
| JEZren sekzioa | JEZren epigrafea | 1 722 | 1 722 | 1 722 | Basogintza |
| Jardueraren helbidea | | Zikuñaga, 12 | Zikuñaga, 12 | Zikuñaga, 12 | Zikuñaga, 12 |
| Jardueraren udalerria | | HERNANI | HERNANI | HERNANI | HERNANI |
| Errentatzailea: IFZ | | | | | |
| Errentatzailea: izen-abizenak | | | | | |
| Errentatzailea: sozietate izena | | | | | |

**Etekin garbia**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Sarrera arruntak | 212.000 | 212.000 | 212.000 | 212.000 |
| 2 | Dirulaguntzak eta bestelako sarrerak | | | | |
| 3 | Izakinen aldaketa positiboa | | | | |
| **4** | **SARRERAK** ([1])+([2])+([3]) | 212.000 | 212.000 | 212.000 | 212.000 |
| 5 | Erosketak | | | | |
| 6 | Izakinen aldaketa negatiboa | | | | |
| 7 | Soldatak eta lansariak | 52.500 | 52.500 | 52.500 | 52.500 |
| 8 | Gizarte Segurantza enpresaren kontura | 23.000 | 23.000 | 23.000 | 23.000 |
| 9 | Langileen beste gastu batzuk | | | | |
| 10 | Errentamendu eta kanonak | | | | |
| 11 | Artapenak eta konponketa | 20.000 | 20.000 | 20.000 | 20.000 |
| 12 | Profesional independienteen zerbitzuak | 1.000 | 1.000 | 1.000 | 1.000 |
| 13 | Kanpoko beste zerbitzu batzuk | 61.000 | 61.000 | 61.000 | 61.000 |
| 14 | Fiskalki kengarriak diren zergak | 1.600 | 1.600 | 1.600 | 1.600 |
| 15 | Gastu finantzarioak | 6.000 | 6.000 | 6.000 | 6.000 |
| 16 | Fiskalki kengarria den amortizazioa | 11.000 | 11.000 | | 11.000 |
| 17 | Fiskalki kengarriak diren hornidurak | | | | |
| 18 | Mantenua | | | | 7.000 |
| 19 | Fisk.ki kengarriak diren beste gastu batzuk | 10.000 | 10.000 | 10.000 | 10.000 |
| **20** | **GASTUAK** ([5])etik ([19])ra arteko batura | 186.000 | 186.000 | 175.100 | 193.100 |
| **21** | **DIFERENTZIA** ([4]) – ([20]) | 18.900 | 18.900 | 29.900 | 11.900 |
| 22 | ([21]) g/ %5 | | 945 | | 595 |
| 23 | ([21]) g/ %10 | | | 2.990 | |
| **24** | **AURRETIKO ETEK. GARBIA** ([21])-([22])-([23]) | 18.900 | 17.955 | 26.910 | 11.305 |
| 25 | Atxikitako ondare elementuen irabaziak | | | | |
| 26 | Salbuespena berrinbertitzeagatik | | | | |
| 27 | Atxikitako ondare elementuen galerak | | | | |
| **28** | **ETEK. GARBIA** ([24])+([25])-([26])-([27]) | 18.900 | 17.955 | 26.910 | 11.305 |

**Errentak egozten dituzten entitateak (ondasun komunitateak, sozietate zibilak, etab.)**

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 29 | Entitatearen IFZ | | | | |

## MERKANTZIEN GARRAIOA ERREPIDEZ

Zenbatespen Objektiboa

(Moduluen Sistema)

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IFZ | 5. eranskina 109 PFEZ | **Zenbatespen objektiboan dauden jarduera ekonomikoen etekinak** | *8400101022002* | 9 |

0000802

| ENPRESA JARDUERAK, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA IZAN EZIK | | | NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA JARDUERAK | |
|---|---|---|---|---|
| Jasotzailearen gakoa | Jarduera | D Garraioa | Jasotzailearen gakoa | Jarduera |
| JEZren sekzioa | JEZren epigrafea | 1 722 | JEZren sekzioa | JEZren epigrafea |
| Jardueraren helbidea | | Zikuñaga, 12 | Jardueraren helbidea | |
| Jardueraren udalerria | | HERNANI | Jardueraren udalerria | |
| Errentatzailea: IFZ | | | Errentatzailea: IFZ | |
| Errentatzailea: izen-abizenak | | | Errentatzailea: izen-abizenak | |
| Errentatzailea: sozietate izena | | | Errentatzailea: sozietate izena | |

**ENPRESA JARDUERAK, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA IZAN EZIK**

| | | Unitate kopurua | | Urteko etekin garbia unitateko | | Urteko etekin garbia moduluko |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 01 | 2,39 | 02 | 2.728,59 | 03 | 6.251,33 |
| 2 | 04 | 1,- | 05 | 10.090,49 | 06 | 10.090,49 |
| 3 | 07 | 28,70 | 08 | 126,21 | 09 | 3.622,23 |
| 4 | 10 | | 11 | | 12 | |
| 5 | 13 | | 14 | | 15 | |
| 6 | 16 | | 17 | | 18 | |
| 7 | 19 | | 20 | | 21 | |
| **AURRETIKO ETEKIN GARBIA** | | | | | 22 | 19.023,19 |
| Inbertsioari pizgarriak: 722. epigrafea | | | | | 22A | 11.000,- |
| **MURRIZ.KO ETEK. GARBIA** ( 22 – 22A ) | | | | | 23 | 8.023,19 |
| 3.1 b), c), d) indize bereziak eta 722. epigrafea | | | | 24 | | |
| 3.2 indize orokorra | | | | 25 | | |
| 3.3 denboraldiko indizea | | | | 26 | | |
| 23 x 24 x 25 x 26 | | | | | 27 | |
| 3.4 indizea 32.100,06 Soberakineraino | | | | | 28 | |
| Soberakina | 29 | | X 1,30 | | 30 | |
| 27 edo ( 28 + 30 ) | | | | | 31 | |
| Hasierako indizea: 722. epigrafea | | | | | 31A | |
| Prestazioak aldi baterako ezintasunagatik | | | | | 32 | |
| **ZUZEN.KO ETEK. GARBIA** ( 31 + 31A ) + 32 | | | | | 33 | |
| Atxikitako ondare elementuen irabaziak | | | | | 34 | |
| Salbuespena berrinbertitzeagatik | | | | | 35 | |
| Atxikitako ondare elementuen galerak | | | | | 36 | |
| **ETEKIN GARBIA** 33 + 34 – 35 – 36 | | | | | 37 | 8.023,19 |

**NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA JARDUERAK**

Jarri "X" bat dagokion jarduera motan

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazar. | A1 | A2 | A3 | A4 | A5 | | | | | | | | H |
| Abeltzai. | G1 | G2 | G3 | G4 | G5 | G6 | G7 | G8 | G9 | G10 | G11 | G12 | G13 |

| Unitate kopurua | | Urteko etekin garbia unitateko | | Urteko etekin garbia moduluko | |
|---|---|---|---|---|---|
| 01 | | 02 | | 03 | |
| 04 | | 05 | | 06 | |
| **AURRETIKO ETEKIN GARBIA** | | | | 22 | |
| 4. instrukzioaren indizea | | | | 23 | |
| 22 x 23 | | | | 30 | |
| % 25eko murrizpena | | | | 31 | |
| Prestazioak aldi baterako ezintasunagatik | | | | 32 | |
| **ZUZEN.KO ETEK. GARBIA** 30 – 31 + 32 | | | | 33 | |
| Atxikitako ondare elementuen irabaziak | | | | 34 | |
| Salbuespena berrinbertitzeagatik | | | | 35 | |
| Atxikitako ondare elementuen galerak | | | | 36 | |
| **ETEKIN GARBIA** 33 + 34 – 35 – 36 | | | | 37 | |

**Adibidea**

Orain baso-ustiapenari helduko diogu, Prozedura Sektorialak alor honetan nola funtzionatzen duen ikusteko. Demagun 40 urteko pinudi bat saldu duzula 60.000 eurotan. Hona hemen **aurretiko etekin garbia** lau modalitateetako bakoitzean:

**BASOGINTZA**

Zuzeneko Zenbatespena

(4 modalitateak alderatzeko koadroa)

IFZ

**6. eranskina 109 PFEZ**

**Zuzeneko zenbatespenean dauden jarduera ekonomikoen etekinak**

*8400101122002*

10

0000901

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Modalitatea | | Arrunta | Erraztua | Erraztua | Erraztua |
| Prozedura | | – | Arrunta | Berezia | Sektoriala |
| Jasotzailearen gakoa | Jarduera | | | | Garraioa |
| JEZren sekzioa | JEZren epigrafea | | | | Basogintza |
| Jardueraren helbidea | | | | | |
| Jardueraren udalerria | | | | | |
| Errentatzailea: IFZ | | | | | |
| Errentatzailea: izen-abizenak | | | | | |
| Errentatzailea: sozietate izena | | | | | |
| **Etekin garbia** | | | | | |
| 1 | Sarrera arruntak | 60.000 | 60.000 | 60.000 | 60.000 |
| 2 | Dirulaguntzak eta bestelako sarrerak | | | | |
| 3 | Izakinen aldaketa positiboa | | | | |
| **4** | **SARRERAK** ([1])+([2])+([3]) | | | | |
| 5 | Erosketak | | | | |
| 6 | Izakinen aldaketa negatiboa | | | | |
| 7 | Soldatak eta lansariak | | | | |
| 8 | Gizarte Segurantza enpresaren kontura | | | | |
| 9 | Langileen beste gastu batzuk | | | | |
| 10 | Errentamendu eta kanonak | | | | |
| 11 | Artapenak eta konponketa | | | | |
| 12 | Profesional independienteen zerbitzuak | | | | |
| 13 | Kanpoko beste zerbitzu batzuk | | | | |
| 14 | Fiskalki kengarriak diren zergak | | | | |
| 15 | Gastu finantzarioak | | | | |
| 16 | Fiskalki kengarria den amortizazioa | | | | |
| 17 | Fiskalki kengarriak diren hornidurak | | | | |
| 18 | Mantenua | | | | |
| 19 | Fisk.ki kengarriak diren beste gastu batzuk | %58,5 ------ | ------ | ------ | 35.100 |
| **20** | **GASTUAK** ([5])etik ([19])ra arteko batura | ------ | ------ | ------ | 35.100 |
| **21** | **DIFERENTZIA** ([4]) – ([20]) | 60.000 | 60.000 | 60.000 | 24.900 |
| 22 | ([21]) g/ %5 | | 3.000 | | ------ |
| 23 | ([21]) g/ %10 | | | | |
| **24** | **AURRETIKO ETEK. GARBIA** ([21])–([22])–([23]) | 60.000 | 57.000 | 54.000 | 24.900 |
| 25 | Atxikitako ondare elementuen irabaziak | | | | |
| 26 | Salbuespena berrinbertitzeagatik | | | | |
| 27 | Atxikitako ondare elementuen galerak | | | | |
| **28** | **ETEK. GARBIA** ([24])+([25])–([26])–([27]) | 36.000 | 34.200 | 32.400 | 14.940 |
| **Errentak egozten dituzten entitateak (ondasun komunitateak, sozietate zibilak, etab.)** | | | | | |
| 29 | Entitatearen IFZ | | | | |

**24 LAUKIA**

**% 60 = 28**

Erne:

- Errentaren Aitorpena egiterakoan aukeratu behar duzu prozedura bat edo beste bat.
- Prozedura bat aukeratzeak ez du esan nahi hurrengo urteetan ere prozedura bera erabili behar duzunik.
- Urte baterako hautatu duzun prozedura geroago aldatu dezakezu, harik eta Foru Aldundiak edozein jarduketa burutu arte.
- Zenbatespen Erraztuaren prozeduretariko bat aukeratu baduzu (Arrunta, Berezia, Sektoriala), prozedura bera erabiliz kalkulatu behar dituzu sistema horretan egindako jarduera guztien etekin garbiak; salbuespen pare batekin: merkantzien garraioa eta baso-ustiapena, horiei Prozedura Sektoriala aplikatzen baitzaie.
- Aurreko puntuan ezarritakoaren aurka, prozedura bat baino gehiago aukeratzen baduzu modalitate honetan egindako jarduera guztien etekinak kalkulatzeko, edo inolako prozedurarik aukeratzen ez baduzu, Modalitate Erraztuan egindako jarduera guztien etekin garbia Prozedura Arruntari jarraituz kalkulatuko duzu.

**Galdera:**

Baso-ustiapenean aritzen naiz. Zenbatespen Objektiboen moduluak aukeratu ditzaket, garraiolariek egin dezaketen bezalaxe?

**Erantzuna:**

Ez.

## 3.2.5 Nola kalkulatzen dira etekin irregularrak?

Hauen artean, bi mota bereizten dira:

a) Bi urtetik gorako epean sortutako etekinak.

b) Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak.

Azter dezagun kasu bakoitza.

### 3.2.5.1 Bi urtetik gorako epean sortutako etekinak

Atal honetan sailkatuta egoteko ezinbesteko baldintza hau da: etekinak aldian-aldiro lortzen diren horietakoa ez izatea. Adibide bat egurretarako pinudiak dira: moztuak izan arte –landatzen direnetik urte asko igaro arte ez dira mozten– ez dute inolako etekinik sortzen. Horrelako kasuetan ehuneko hauek deklaratu behar dira:

| Zenbat urtetan sortu diren etekinak | Deklaratzen den ehunekoa |
|---|---|
| 2 urte baino gehiago | %70 |
| 5 urte baino gehiago | %60 |

Horrenbestez, aurreko adibidean (*** or.) azaltzen zen 40 urteko pinudiaren etekin gordina aurretiko etekin gordinaren %60koa izan da.

Etekinak zatika jasotzen badira, eragiketa hau egingo dugu: sorreraldiko urteak, datatik datara zenbatuta, zati zergaldien kopurua:

$$x = \frac{\text{Etekinak zenbat urtetan sortu diren}}{\text{Zergaldien kopurua}}$$

- Emaitza **bi urtetik gorakoa** bada, %70ko portzentajea ezarriko da.
- Emaitza **bost urtetik gorakoa** bada, %60ko portzentajea ezarriko da.

**Adibidea**

40 urteko pinudi hori bederatzi urtetan kobratuz gero, hauxe litzateke kalkulua: 40/9 = 4,4 urte; hortaz, %70 deklaratu beharko luke (42.000 €) zazpi zergaldietan, hau da, 4.666,66 € (42.000/9) zergaldi bakoitzean.

### 3.2.5.2 Denboran zehar era irregular nabarmenean lortutako etekinak

Etekin horien %70 deklaratuko da.

Ondorengo lau etekin hauek bakarrik hartzen dira denboran zehar era irregular nabarmenean lortutakotzat (beti ere zergaldi bakar bati egozten bazaizkio):

- Amortizagarriak ez diren ibilgetuaren elementuak erosteko dirulaguntzak.
- Jarduera ekonomikoetan ez jarraitzeagatik jasotako kalteordainak eta laguntzak.
- Zerga honetan salbuetsita ez dauden literatur, arte edo zientzia sariak[9]. Jabetza intelektuala edo industrialaren eskubideak edo horien ordezkoak lagatzeagatik eratorritako kontraprestazio ekonomikoak ez dira saritzat hartuko.
- Iraupen mugagabea duten eskubide ekonomikoen ordez jasotako kalteordainak.

### 3.2.6 Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu?

Zuzeneko Zenbatespenaz ari garelarik (Arrunta zein Erraztua izan), bi talde hauen artean bereiztu beharra dago:

a) Enpresariak.

b) Profesionalak (hauek ez dute ez fabrikatzen ez merkataritzan jarduten: abokatuak, arkitektoak, artistak...).

#### a) Enpresariak

Hauek dira enpresariek derrigorrez eraman behar dituzten liburuak:

- Salmenta eta Sarreren Liburua. Fakturak jasotzen dira: eguna, zenbakia, bezeroaren izena, eta fakturaren zenbatekoa –xehatuta– (oinarri ezargarria, BEZ, guztira).
- Erosketa eta Gastuen Liburua. Aurreko kasuan bezalaxe jasotzen dira fakturak, baina oraingoan hornitzailearen izena jarrita. Erosketak eta gastuak bereizi behar dira elkarrengandik, eta gastuen barruan, gastu-motak: pertsonala, finantzarioa, garraioa, aseguruak, eta abar.
- Inbertsio Ondasunen Liburua. Erositako ondasun bakoitzari dagokion amortizazioa deduzitzeko erabiltzen da. Kontuan hartu ezin dela deduzitu gastu osoa urte bakarrean, zenbait urtetan baizik.
- Kutxako Liburua. Liburu hau ez da beharrezkoa, ordainketak eta diru-sarrerak banketxe eta aurrezkikutxen bidez egiten badira eta kontu-laburpenak gordetzen.

**JASOTAKO FAKTUREN LIBURUA – EROSKETA ETA GASTUEN LIBURUA**

| Data | Fak. zk. | Hornitzailea | Oin.ezarg. | %16 BEZ | Fak. guztira | Soldatak | Gizarte Segurantza | Konponk. | Prof. zerb. | Kanpoko beste zerb. | Zergak | Finantza-gastuak | Amorti. | Bestelako gastuak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2002/01/31 | | Hornitegia | 4.900,00 | 784,00 | 5.684,00 | | | | 4.900,00 | | | | | |
| 2002/01/31 | | Taillerrak | 1.500,00 | 240,00 | 1.740,00 | | 1.500,00 | | | | | | | |
| 2002/01/31 | | Aholkularitza | 64,00 | 10,24 | 74,24 | | | 64,00 | | | | | | |
| 2002/01/31 | | Iberdrola | 35,00 | 5,60 | 40,60 | | | | 35,00 | | | | | |
| 2002/01/31 | | Telefónica | 60,00 | 9,60 | 69,60 | | | | | 60,00 | | | | |
| 2002/01/31 | | Mailegu-interesak | 528,00 | | 528,00 | | | | | | | 528,00 | | |
| 2002/01/31 | | Soldatak | 3.358,00 | | 3.358,00 | 3.358,00 | | | | | | | | |
| 2002/01/31 | | Gizarte Seg. | 1.679,00 | | 1.679,00 | | 1.169,00 | | | | | | | |
| 2002/01/31 | | PFEZ | 392,00 | | 392,00 | 392,00 | | | | | | | | |
| 2002/01/31 | | Autonomoen Giz. Seg. | 205,54 | | 205,54 | | 205,54 | | | | | | | |
| 2002/01/31 | | Hainbat gastu | 680,00 | 108,80 | 788,80 | | | | | | | | | 680,00 |
| | | **Guztira ekitaldian** | **186.100,00** | **13.880,80** | **199.980,80** | **52.500,00** | **23.000,00** | **20.000,00** | **1.000,00** | **61.000,00** | **1.600,00** | **6.000,00** | **11.000,00** | **10.000,00** |

**BI ZUTABE HAUEK EZ DIRA KONTUAN HARTZEN PFEZn**

[9] Ikusi *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Gidaliburua* (1. kapitulua, 1.7. atala).

### b) Profesionalak

- Irabazien Liburua.
- Gastuen Liburua (ez, ordea, erosketena).
- Inbertsio Ondasunen Liburua.
- Kutxako Liburua (edo banku eta aurrezki-kutxen kontu-laburpenak).
- Fondo eta Osakinen Liburua.

Erne: Kutxako Liburua hainbat euskarritan (Internet[10], disketea...) eskaintzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eskuratzeko, eskatu besterik ez duzu.

**Galdera:** Enpresaria naiz. Erregistratu behar al ditut liburuak?

**Erantzuna:** Ez.

**Aholku praktiko bat:**

Kutxako Liburua eraman beharrean banketxeen eta aurrezki-kutxen kontu-laburpenak gordetzea erabakitzen baduzu, zure jarduerarako kontu bat izatea komeni zaizu; hortaz, ez nahastu bertan bestelako gasturik (esaterako, supermerkatu batean egindako erosketa).

**Galdera:**

Profesional bat naiz, eta, beraz, ez dut zertan eraman nire kontabilitatea Merkataritzako Kodeari jarraituz. Dena dela, egin nahi izanez gero, bidezkoa litzateke?

**Erantzuna:**

Bai, jakina. Gainera, zure kasuan ez zaude behartuta liburuak erregistratzera.

**Aholku profesional bat:**

Zure negozioari itxura ona eta arrakasta izateko aukera ikusten badiozu, behar bada komeni zaizu (derrigorrezkoa ez bada ere) kontabilitatea Merkataritzako Kodearen arabera eramatea. Zergatik? Bada, horrela zure jardueraren balantzeak aurkeztu ahal izango dizkiezulako interesatzen zaizkizun erakundeei (banketxeak, aurrezki-kutxak, erakunde publikoak....), hori guzti hori maileguak, diru-laguntzak eta horrelakoak eskuratzeari begira.

## 3.3. ZENBATESPEN OBJEKTIBOA (MODULUAK)

Sistema honekin ez dituzu etekinak ohiko moduan kalkulatuko, hau da, diru-sarrerei gastuak kenduta, baizik eta Foru Aldundiak jarduera jakin batzuei ezarri dizkien modulu edo kopuru batzuen arabera. Jarduera horietako batzuk hauek dira: dendak, tabernak eta kafetegiak, bidaiarien garraioa, konponketak...[11]

**Adibidea**

Esate baterako, ile-apaindegi baldin badaukazu, honelako zerbait aurkituko duzu:

| Epigrafea | Jarduera ekonomikoa | Kopurua |
| --- | --- | --- |
| 972.1 | Emakumezko eta gizonezko ileapainketa zerbitzuak | 9 langile |

Zure negozioa moduluak ezarrita dituzten horietako bat izanez gero, zuretzat sistemarik egokiena zein den kalkulatu behar duzu.

### 3.3.1 Modalitate hau aukeratzeko baldintzak

Gorago esan dizugunez, jarduera jakin batzuek baino ezin dute aukeratu sistema hau, eta, beti ere, modulu bakoitzari jarritako mugak gainditu gabe.

Hori gertatzekotan, hau da, zure negozioak moduluaren mugak gainditzen baditu, hurrengo urtean ezingo duzu modalitate hau aukeratu, eta Zenbatespen Arruntaren edo Erraztuaren bidez kalkulatu beharko dituzu etekinak.

[10] http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/modelos/programase.asp

[11] Ikusi zerrenda osoa I. eranskinean (99 or.).

### 3.3.2 Zein sistemarekin da bateraezina?

Zure jardueraren etekin garbia kalkulatzeko Zenbatespen Objektiboa aukeratu baduzu, modalitate bera erabiliz kalkulatu behar dituzu zure jarduera **guztiak**; hala ere, urtean barrena jarduera ekonomiko berriren bat martxan jartzen baduzu, beste modalitate bat hautatu ahal duzu jarduera berri horretarako.

Bestalde, jarduera ekonomiko bat baino gehiago izanik Moduluen sistema aukeratu baduzu modalitate hau erabil dezaketen jarduera guztietarako, Zenbatespen Zuzena erabiliz kalkulatu ditzakezu gainontzeko jardueren etekinak.

### 3.3.3 Uko egiteko modua

Sistema hau aukeratzekotan indarrean jarraituko du harik eta Zertsu Aitorpenean (036 inprimakia; aldaketa) uko egiten diozula adierazi arte.

### 3.3.4 Nola kalkulatzen dira etekinak?

Lehengoan adierazi digu sistema honekin ez direla kontuan hartzen benetako diru-sarrerak eta gastuak. Kalkulua bestela egiten da: modulu bakoitzak etekin estandar bat aurreikusten du, eta etekin hori aldatu egiten da zenbait eragileren arabera, hala nola: langile-kopurua, kontratatuteriko potentzia elektrikoa, lokalaren luze-zabala, jarritako mahai-kopurua, eta abar.

**Adibidea**

Bi sardexkako jatetxe bat duzu. Bada, taula honekin kalkulatuko dituzu zure etekinak:

**Jarduera: Bi sardexkako jatetxea**
**Epigrafea: 671.4**

| Modulua | Definizioa | Unitatea | Urteko etekin garbia, unitateko € |
|---|---|---|---|
| 1 | Soldatapeko langileak | Pertsona | 3.329,31 |
| 2 | Soldatapekoak ez diren langileak | Pertsona | 14.930,87 |
| 3 | Potentzia elektrikoa | Kontratatutako Kw.ak | 117,35 |
| 4 | Mahaiak | Mahaia | 202,18 |
| 5 | “A” motako jolas-makinak | “A” motako jolas-makina | 1.090,63 |
| 6 | “B” motako jolas-makinak | “B” motako jolas-makinak | 3.858,68 |

Lehenengo eta behin, modulu bakoitzari dagokion kopurua kalkulatu behar duzu; horretarako, biderketa hau egin behar da: unitate bakoitzari eurotan ezarritako kopurua (eskuineko zutabea) bider jardueran erabilitako edo jarritako unitateak.

Adibidez, 20 Kw.ko potentzia kontratatu baduzu, hauxe da eragiketa:

| Modulua | Unitateak | Urteko etekin garbia |
|---|---|---|
| 3 | 20 | 20 x 117,37 = 2.347 euro |

Erraza dirudi, ezta? Ba, kontua apur bat okertu daiteke, ez baditugu kontzeptu batzuk behar bezala ulertzen, besteak beste: “soldatapeko langilea”, “mahaia”... Hori gerta ez dadin, hona hemen definizio horietako zenbait:

#### 3.3.4.1 Langileak:

soldatapekoak zein soldatapekoak ez direnak.

#### 3.3.4.2 Soldatapekoak ez diren langileak:

jardueraren titularra, harekin bizi diren ezkontidea eta adingabeko seme-alabak, jardueran benetan aritzen badira soldatapean egon gabe. Pertsona bat “soldatapekoa ez den langiletzat” hartzeko, aurreko urtean 1.800 orduz aritu behar izan du gutxienez jardueran. Lanean emandako ordu-kopuru hori 1.800tik beherakoa bada, orduan urtean benetan egindako ordu-kopuruaren eta 1.800 orduen arteko proportzioa hartuko da kalkulurako.

Jo dezagun, adibidez, alaba bat daukazula eta negozioan ekainaren 1ean hasi zela lanean. Hona eragiketa:

214 (ekainetik aurrera lanean emandako egunak) / 365 = 0,58

Kasu honetan, 1.800 ordu baino gehiago eman dituenez, ezin hitz egin dezakegu langile “1ez”, baizik eta “0,58”z.

Erne: soldatapekoak ez diren langileak guztira 1 edo gehiago izan behar dira.

#### 3.3.4.3 Soldatapeko langileak:

negozioan lan egiten duten gainontzeko pertsonak dira; baita titularrarekin bizi diren ezkontidea eta adingabeko seme-alabak ere, baldin eta lan-kontratua baldin badute eta Gizarte Segurantzan sartuta badaude. Pertsona bat “solda-

tapeko langiletzat" hartzeko, dagokion hitzarmen kolektiboan langile bakoitzerako finkatuta dagoen ordu-kopurua egin behar du, eta hitzarmenak ez badu ordu-kopururik finkatu, orduan 1.800 ordu egin behar ditu urtean. Langileak ordu gutxiago egin badu, proportzioa kalkulatu behar da, "soldatapekoak ez diren langileen" kasuan egin dugun modu berean.

### 3.3.4.4. Potentzia elektrikoa:

Enpresa hornitzailearekin kontratatutakoa da.

### 3.3.4.5 Mahaia:

lau lagunek betetzeko modukoak jotzen dira "mahaitzat". Handiagoak edo txikiagoak proportzioari begira kalkulatzen dira.

Esate baterako, eman dezagun hamar mahai hauek dituzula jatetxean:

- Bost, launa lagunentzat.
- Hiru, seina lagunentzat.
- Bi, zortzina lagunentzat.

Beraz:

| **Mahai bakoitzeko kapazitatea** | | **Mahai-kopurua** | | |
|---|---|---|---|---|
| 4 | x | 5 | = | 20 |
| 6 | x | 3 | = | 18 |
| 8 | x | 2 | = | 16 |
| | **GUZTIRA** | | **54** | |

**GARRATZITSUA**

soldatapeko langiletzat 0,5 jarri dezakezu, zure ezkontideak edo zure seme-alabaren batek lan egingo balute, baldin eta zenbait baldintza betez gero (ikus I. eranskina 101 orr.).

Mahai guztietan 54 lagun sartzen dira guztira. Kopuru hori zati lau ("mahaia" unitatea), 13, 5 mahai.

### 3.3.4.6 Ibilgailua:

jarduera garatzeko urteko edozein egunetan gehienez erabiltzen diren ibilgailuen kopurua adierazten du horrek.

### 3.3.4.7 Indize zuzentzaileak

Modulu bakoitzari dagokion kopurua kalkulatu dugu dagoeneko; orain horiek guztiak batu besterik ez dugu egin behar, jardueraren etekinak zein diren jakiteko.

Nolanahi ere, jarduera batzuek **indize zuzentzaileak** ezarrita dauzkate. Indize horietako batzuk komunak dira jarduera guztietan (adibidez, etekinek aurreikusitako mugak gainditzen dituztenean ezartzen direnak). Epígrafe bakoitzari **soberakin** jakin bat dagokio, eta **soberakin** horri, 1,30ko indize zuzentzailea.

**Adibidea**

Demagun ostalaritzako enpresari bat zarela (673.2 epigrafea) eta zure negozioak ezaugarri hauek dituela:

- Soldatapeko langileak: 1 (dagokion koefizientea: 0,90).
- Soldatapekoak ez diren langileak: 1 (dagokion koefizientea: 1).
- Potentzia elektrikoa: 11,40 Kw.
- Mahai-kopurua: 9
- Barraren luzera: 7 metro
- A motatako jolas-makinak: 1
- B motatako jolas-makinak: 2

Zure epigrafeko **soberakinen muga** 18.821,44 €koa da (esan nahi baita hortik gorakoa 1,30tik biderkatuko dela). Hori horrela bada, honela bete beharko duzu Aitorpenaren 5. eranskina:

**673.2 EPIGRAFEA**

Ostalaritza

Soberakina

| IFZ | 5. eranskina 109 PFEZ | Zenbatespen objektiboan dauden jarduera ekonomikoen etekinak | *8400101022002* | 9 |
|---|---|---|---|---|

| ENPRESA JARDUERAK, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA IZAN EZIK | | NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA JARDUERAK | |
|---|---|---|---|
| Jasotzailearen gakoa / Jarduera | | Jasotzailearen gakoa / Jarduera | |
| JEZren sekzioa / JEZren epigrafea | | JEZren sekzioa / JEZren epigrafea | |
| Jardueraren helbidea | | Jardueraren helbidea | |
| Jardueraren udalerria | | Jardueraren udalerria | |
| Errentatzailea: IFZ | | Errentatzailea: IFZ | |
| Errentatzailea: izen-abizenak | | Errentatzailea: izen-abizenak | |
| Errentatzailea: sozietate izena | | Errentatzailea: sozietate izena | |

**ENPRESA JARDUERAK, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA IZAN EZIK**

| | Unitate kopurua | | Urteko etekin garbia unitateko | | Urteko etekin garbia moduluko |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 01 0,90 | 02 | 1.517,96 | 03 | 1.366,16 |
| 2 | 04 1,- | 05 | 10.536,43 | 06 | 10.536,43 |
| 3 | 07 11,40 | 08 | 84,82 | 09 | 966,95 |
| 4 | 10 9,- | 11 | 110,97 | 12 | 998,73 |
| 5 | 13 7,- | 14 | 149,87 | 15 | 1.049,09 |
| 6 | 16 1,- | 17 | 797,25 | 18 | 797,25 |
| 7 | 19 2 | 20 | 2.921,11 | 21 | 5.842,22 |
| | | | **AURRETIKO ETEKIN GARBIA** | 22 | 21.556,83 |
| | | | Inbertsioari pizgarriak: 722. epigrafea | 22A | |
| | | | **MURRIZ.KO ETEK. GARBIA** ([22] – [22A]) | 23 | 21.556,83 |
| | | | 3.1 b), c), d) indize bereziak eta 722. epigrafea | 24 | |
| | | | 3.2 indize orokorra | 25 | |
| | | | 3.3 denboraldiko indizea | 26 | |
| | | | [23] x [24] x [25] x [26] | 27 | |
| | | | 3.4 indizea 18.821,44 Soberakineraino | 28 | |
| | | | Soberakina [29] 2.735,39 X 1,30 | 30 | 3.556,01 |
| | | | [27] edo ([28] + [30]) | 31 | |
| | | | Hasierako indizea: 722. epigrafea | 31A | |
| | | | Prestazioak aldi baterako ezintasunagatik | 32 | |
| | | | **ZUZEN.KO ETEK. GARBIA** ([31] + [31A]) + [32] | 33 | 25.112,84 |
| | | | Atxikitako ondare elementuen irabaziak | 34 | |
| | | | Salbuespena berrinbertitzeagatik | 35 | |
| | | | Atxikitako ondare elementuen galerak | 36 | |
| | | | **ETEKIN GARBIA** [33] + [34] – [35] – [36] | 37 | 25.112,84 |

**NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA JARDUERAK**

Jarri "X" bat dagokion jarduera motan

| | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Nekazar. | A1 | A2 | A3 | A4 | A5 | | | | | | | | H |
| Abeltzai. | G1 | G2 | G3 | G4 | G5 | G6 | G7 | G8 | G9 | G10 | G11 | G12 | G13 |

| Unitate kopurua | | Urteko etekin garbia unitateko | | Urteko etekin garbia moduluko | |
|---|---|---|---|---|---|
| 01 | | 02 | | 03 | |
| 04 | | 05 | | 06 | |
| | | **AURRETIKO ETEKIN GARBIA** | | 22 | |
| | | 4. instrukzioaren indizea | | 23 | |
| | | [22] x [23] | | 30 | |
| | | % 25eko murrizpena | | 31 | |
| | | Prestazioak aldi baterako ezintasunagatik | | 32 | |
| | | **ZUZEN.KO ETEK. GARBIA** [30] – [31] + [32] | | 33 | |
| | | Atxikitako ondare elementuen irabaziak | | 34 | |
| | | Salbuespena berrinbertitzeagatik | | 35 | |
| | | Atxikitako ondare elementuen galerak | | 36 | |
| | | **ETEKIN GARBIA** [33] + [34] – [35] – [36] | | 37 | |

ENPRESA JARDUERAK, NEKAZARITZA ETA ... | NEKAZARITZA ETA ABEL...

Bestalde, badira beste indize batzuk zenbait jardueratan baino erabiltzen ez direnak, hala nola: taxilariak, bidaiarien errepidezko garraioa, sasoian-sasoiko jarduerak... Hori guztiaren garrantzia kontuan izanik, hona gure aholkua: irakur ezazu eskuliburu honen eranskinean **indize zuzentzaileei** eskainitako atala[12].

Honaino helduta, hauxe da egin beharreko eragiketa: orain arte lortutako etekinak bider dagokion indize zuzentzailea. Biderketa horren ondorioz, gora edo behera egin dezake etekinak

Ondoren, bidezko **murrizpenak** egin behar dira, halakorik badago jakina. Murrizpen horien artean, aparteko egoeratan aitortzen direnak azpimarratu nahi ditugu.[13] Izan ere, zure negozioan, sute, uholde, hondorapen edo jardueraren garapenerako kaltegarri gerta daitekeen beste hondamendirik gertatzen bada, laguntza eskatu ahal diozu Foru Aldundiari, zure etekinak murriztu ditzan. Horretarako, idatzi bat aurkeztu behar diozu Aldundiaren Ogasuneko Zuzendari nagusiari, egoki irizten dizkiozun frogen berri emanez eta gertatutako kalteengatik zein kalteordain jaso

[12] Ikus I. eranskina, 101. orrialdea.

[13] Ikus I. eranskina, 103. orrialdea

nahi dituzun adieraziz. Hondamendia gertatu eta hogeita hamar egun izango dituzu idatzi hori aurkezteko.

Azkenik, indize zuzentzaileak eta murrizpenak ezarri ondoren ateratako emaitzari gehitu edo kendu egin behar zaizkio atxikitako ondare-elementuak eskualdatzetik datorren ondare-irabaziak edo galerak.

**Galdera:**

Profesional bat naiz. Zenbatespen Objektiboa (hau da, Moduluen sistema) aukeratu ahal dut Errenta Aitorpena egiteko?

**Erantzuna:**

Ez. Profesionalek ezin dituzte Moduluak aukeratu. Bakar-bakarrik enpresariek erabil ditzakete; eta ez denek, horietako batzuek baizik.

### 3.3.5 Zein liburu eta erregistro eraman behar dituzu?

Moduluen sistema aukeratuz gero, ez duzu zertan kontabilitatea eraman; behartuta zaude, ordea, fakturak gordetzera (zenbatuta, daten hurrenkeraren arabera, eta hiru hilabeteka antolatuta), eta baita ezarritako moduluen ziurtagiriak ere.

## Laburpena

| Modalitatea | Ezaugarriak | Etekinen kalkulua | Liburuak |
|---|---|---|---|
| **ZUZENEKO ZENBATESPENA** | • Sistema hau fidelena da zure jarduna zein den adierazteko.<br>• Sistema hau erabili dezakezu aurreko urteko eragiketa-mugimendua 300.505,05 € baino gehiagokoa bada. | • Sarrerak-gastuak=Etekin garbia.<br>• Ez dira kontuan hartzen EPSV izenekoak. (BGAE)<br>• Ezkontidearen soldata eta adienez nagusi ez diren seme-alabenak kendu daitezke.<br>• Ondasuna lagatzeagatik izandako kontrapres-tazioak ere kendu daitezke | **Enpresariak**<br>• Merkataritza kodearen kontabilitatea<br>• Diru-sarrerak eta gastuen Erregistroa<br>• Salerosketeten Erregistroa.<br>• Inbertsio-ondasunen Erregistroa<br>• Kaixa Liburua |
| **ZUZENEKO ZENBATESPEN ERRAZTUA** | • Aurrekoaren sistema berdina da, baina zenbait gastu kendu daitezke.<br>• Sistema hau erabili dezakezu, kopuru horretara iristen ez bazara. | • Sarrerak-gastuak<br>(ez dira sartzen: probisioak, amortizazioak, jan-gastuak, ondasun patrimonialen galerak eta irabaziak).<br>• Hiru prozedura daude: Arrunta, Berezia eta Sektoriala (merkantzien errepide bidezko garraioa) | **Profesionalak**<br>• Diru-sarreren Erregistroa.<br>• Gastuen Erregistroa<br>• Inbertsio-ondasunen Erregistroa<br>• Kaixa liburua<br>• Fondo eta osakinen horniduren erregistroa |
| **ZENBATESPEN OBJEKTIBOA (MODULUAK)** | • Ez dago ez gasturik, eta ez sarrerarik.<br>• Modulu batzuk daude.<br>• Modulu bakoitzari etekin bat dagokio. Zenbat eta langile, potentzia, toki eta abar izan, etekin handiago duela kontsideratuko da.<br>• Jarduera guztiek ezin dute sistema hau erabili, zerrendatuta daudenak soilik. | • Modulu bakoitzari dagokiona ateratzen da.<br>• Gero, mota berekoak biderkatu.<br>• Azkenik, modulu guztiak batu.<br>• Guztiari, indize zuzentzailea ezarri.<br>• Murrizpenak kendu.<br>• Atxikitako ondasunen salerosketan izandako galdu-irabaziak gehitu edo kendu. | • Ez da kontabilitaterik eraman behar.<br>• Fakturak gorde behar dira, zenbatuta, daten arabera ordenatuta, eta hiru hilabeteka bilduta.<br>• Agiria gorde behar da, zein modulu ezarri den jakiteko |

# 4. Errentaren Aitorpena (PFEZ)


4.1. Oinarri ezargarria

4.2. Oinarri likidagarria

4.2.1. Zer dira, baina, murrizpenak?

4.3. Kuota osoa

4.4. Kuota likidoa

4.4.1. Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak

4.5. Kuota diferentziala

4.5.1. Zer dira atxikipenak?

4.5.2. Zer dira ordainketa zatikatuak?

4.6. Kalkulu osoaren laburpena

Lehengoan esan dizugu, beste herritar askok bezala, zeuk ere egin behar duzula urtero Errentaren Aitorpena; baina, zaude lasai: horretan ere lagunduko dizugu eta. Sistema oso erraza da; ikus dezagun urratsez urrats.

## 4.1 OINARRI EZARGARRIA

Lehendabizi, urtean izan dituzun etekin guztiak batu egin behar dituzu. Diru-sarrera horiek hainbat iturritatik etor daitezke:

- Besteren kontura egindako lanak (zure negozioaz gain, bestelako soldatarik kobratzen baduzu).
- Kapital higikorra (akzioak, ordaindukoak…).
- Kapital higiezina (alokatutako etxeak, lokalak…).

Dena dela, enpresaria zarenez, **jarduera ekonomikoen etekinak** aztertuko ditugu bereziki; alegia, zure negozioan irabazitako diruak. Jarraitu baino lehen, ohartxo bat: ez ahaztu etekin horien kalkulua erabat lotuta dagoela bere egunean Zentsu Aitorpenean aukeratu zenuen modalitatearekin: Zuzeneko Estimazio Arrunta, Erraztua edo Moduluak.[14].

Horretaz gain, kontuan hartu etekin horiei gehitu egin behar dizkiezula urtean barrena izandako ondare-irabaziak edo galerak (demagun negozioaren lokala saldu ondoren ez duzula berriro inbertitu irabazitakoa).

Horrenbestez, eragiketa horien guztien emaitzari **oinarri ezargarria** deitzen zaio.

| | | |
|---|---|---|
| OINARRI EZARGARRIA | = | ETEKINAK<br>+<br>ONDARE - IRABAZIAK ETA GALERAK |

**Adibidea**
Eman dezagun 2002an etekin hauek izan dituzula:

- Lanaren etekin garbia: 6.000 euro
- Kapital higikorraren etekin garbia: 1.800 euro
- Kapital higiezinaren etekin garbia: 2.250 euro
- Jarduera ekonomikoen etekinak: 24.000 euro

Ez duzu izan aitortzeko moduko ondare-irabazirik edo galerarik.

Oinarri ezargarria kopuru horien guztien batuketa izango litzateke; hain zuzen ere, **34.050 euro**

[14] Ikusi 3. kapitulua.

## 4.2. OINARRI LIKIDAGARRIA

Oinarri ezargarriari bidezko diren murrizpenak kenduta, **oinarri likidagarria** ateratzen zaigu.

**OINARRI LIKIDAGARRIA = OINARRI EZARGARRIA – MURRIZPENAK**

### 4.2.1. Zer dira, baina, murrizpenak?

Etekinak kalkulatzerakoan jardunaren berezko gastuak hartu behar dira kontuan; baina, gastu horietaz gain, beste gastu gehigarri batzuk ere badira: murrizpenak. Batzuek jarduera ekonomikoaren pizgarritzat hartzen dituzte murrizpenak; baina hori ez da horrela, izan ere murrizpenak benetako gastuak dira. Adibidez, pentsio plan batean sartutako diruak, behin kobratuz gero, deklaratu egin behar dituzu. Beste hitz batzuetan esateko, ordaintzen dituzunean, gastutzat jotzen dira (murrizpentzat, zuzenago hitz egiteko), eta kobratzen dituzunean, diru-sarreratzat.

Litekeena da zeure buruari honako galdera bat egitea: eta zein dira nire oinarri ezargarria txikitzeko balio duten murrizpen horiek? Hona erantzuna:

- Pentsio konpentsagarriak eta urteko mantenuak ordaindu izanagatik ezarrita dauden murrizpenak.
- Mutualitateetan, pentsio planetan eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan dirua sartu izanagatik ezarritakoak.
- Baterako Aitorpena egiteagatik ezarrita dagoen murrizpena.

**Adibidea**
Ekar dezagun gogora aurreko adibide bera. Demagun murrizpen hauek egiteko eskubidea duzula:

- Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitate batean dirua sartu izanagatik: 2.000 euroko murrizpena.
- Baterako Aitorpena egiteagatik: 3.372 euroko murrizpena.

Bi murrizpenak batuta: 5.372 euro; lehen esan dugunez, kopuru hori oinarri ezargarriari kenduta, oinarri likidagarria ateratzen zaigu. Kasu honetan:

34.050 (oinarri ezargarria) – 5.372 (murrizpenak) = 28.678 (oinarri likidagarria)

Honezkero konturatuko zinen Foru Aldundiaren tarifa edo karga eskala ezarri aurretik egiten direla murrizpenak.

## 4.3. KUOTA OSOA

**Kuota osoa** kalkulatzea tokatzen zaigu orain. Jakin ezazu "kuota" hitzaz mintzatzen garenean, zergari buruz ari garela; alegia, zure irabazien kontura Foru Aldundiko Ogasunari ordaindu behar diozun diruaz. Kuota osoa kalkulatzeko, Foru Aldundiak ezarritako tarifa edo karga eskalara jo, eta bertan ikusi behar dugu eskalako zein mailatan kokatzen den gure oinarri likidagarria. Eskalako maila bakoitzari kuota oso jakin bat dagokio, eta sobratzen denari ("gainerakoa") ehuneko bat ezartzen zaio. Erreparatu ondorengo laukiari eta ikusiko duzu zein erraz jarraitzen duzun kalkulua:

| Oinarri likidagarria | Kuota osoa | Oinarri likidagarriaren gainerakoa | |
|---|---|---|---|
| | | Kopurua | Tasa |
| 3.545,00 | 0,00 | 3.220,00 | %17 |
| 6.765,00 | 547,40 | 11.595,00 | %25 |
| 18.360,00 | 3.446,15 | 13.530,00 | %30 |
| 31.890,00 | 7.505,15 | 13.530,00 | %38 |
| 45.420,00 | 12.646,55 | 25.440,00 | %44 |
| 70.860,00 | 23.840,15 | Hortik gorakoa | %50 |

**Adibidea:**
Har dezagun berriro aurreko adibideko oinarri likidagarria: 28.678 euro. Laukiaren arabera, hirugarren mailan sartuko ginateke. Hona, beraz, kalkulua:

| Oinarri likidagarria | Kuota osoa |
|---|---|
| 18.360 | 3.446,15 |

| Gainerakoa | Tasa | Kuota osoa |
|---|---|---|
| 28.678 – 18.360 = 10.318 | %30 | 3.095,40 |

**Kuota osoa, guztira:**

3.446,15 + 3.095,40 = **6.541,55 euro**

Horrenbestez, hauxe litzateke zergaren batez besteko tasa:

$$\frac{6.541,55 \text{ x } 100}{28.678} = \%22,81$$

Begi bistan dago: zenbat eta handiagoa izan oinarri likidagarria, orduan eta handiagoa zergaren batez besteko tasa.

## 4.4 KUOTA LIKIDOA

Heldu gara **kuota likidora**. Nola kalkulatzen den? Oso erraz: kendu dedukzioak (kenkariak) aurreko kuota osoari.

Ondo da, baina zer dira kenkariak edo dedukzioak? Begira, batzuk herritar guztiei dagozkie; beste batzuk, berriz, enpresariei edo profesionalei bakarrik, eta, hain zuzen ere, horiek dira eskuliburu honetan gehien interesatzen zaizkigunak. Jarduera ekonomikoen esparruan kenkariak dira pizgarri batzuk zenbait gastu jakin bultzatzeko. Hori horrela izanik, gastu horiek zerga-tratamendu ona izaten dute, izan ere, bi tokitatik kentzen dira: jardueren etekin garbiaren kalkulutik eta baita kuota osotik ere.

**KUOTA LIKIDOA = KUOTA OSOA – KENKARIAK**

Erne: Kuota likidoa ezin izan daiteke negatiboa, beraz, ezin izan daiteke 0tik beherakoa. Beste era batera esanda: kenkariek ezin dute kuota osoa gainditu.

Berriro sortzen zaigu galdera bera: zeintzuk dira kenkari horiek? Hemen dituzu Errentaren Aitorpenean azaltzen direnak, eta hurrenkera berean (garrantzizkoa da hurrenkera):

- Kenkari familiar et pertsonalak (seme-alabak, bilobak, ezinduak…).
- Ohiko etxebizitzaren kenkariak (erosketa, hobekuntza, alokairua…).
- Ezarpen bikoitzaren kenkaria.
- Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak.
- Dohaintzen kenkariak (mezenazgoa).
- Bestelako kenkariak (Ceutan edo Melillan lortutako errentak, gardentasun fiskala…).

Dagoeneko esan dugu kenkari horiek ez dagozkiola langile autonomoei bakarrik, baizik eta edozein herritarri. Azter ditzagun guztiak, autonomoei dagozkienak[15]:

### 4.4.1 Jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak

Honaino, herritar guztiek egin ditzaketen kenkariak; dena dela, langile autonomoa zaren aldetik, baduzu eskubiderik **jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkariak** ere egiteko. Hauek dira Errenta Aitorpenean agertzen direnak (eta hurrenkera berean):

[15] Argibide gehiagorako *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Gidaliburua* irakurtzea gomendatzen dizugu.

### KENKARIAK[16]

| Inbertsioengatik | | |
|---|---|---|
| **Muga** | **Kontzeptua** | **Kenkaria** |
| BAI | Aktibo finko material berriak (eraikinak, makinak…) | %10 |
| BAI | Zine edo ikus-entzunezko produkzioak (interes kulturaleko ondasunak) | %10 |
| BAI | Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak | %10 |
| BAI | Liburugintza | %5 |
| BAI | I + G (Ikerketa eta Garapena) | %30 |
| BAI | I + G soberakina | %20 |
| BAI | Ingurumena (artatu eta hobetzeko jarduerak) | %15 |
| BAI | Esportazioa | %25 |
| | *Kenkari guztien batuketa ezin izan daiteke kuota osoaren %45 baino handiagoa* | |
| | | |
| EZ | Lanbide heziketako gastuak | %10 |
| EZ | Lanbide heziketaren soberakina | %15 |
| EZ | Enplegua sortzea | 3.606,07 € |
| EZ | Enplegua sortzea (zailtasun bereziko langileak) | 6.611,13 € |

Erne: Ikus dezakezunez, kenkari batzuek muga dute, eta beste batzuek ez. Muga duten kenkari guztien batuketa ezin izan daiteke kuota osoaren %45 baino handiagoa. Soberakina hurrengo bost zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango da.

**Adibidea:**

Demagun hauexek direla zure jardueraren datuak:

| | |
|---|---|
| Jardueraren etekina: | 18.000 € |
| Lan-etekina: | 6.000 € |
| Oinarri ezargarria: | 24.000 € |

Oinarri ezargarriari dagokion kuota osoa: 5.138,5 €.

Kuota oso horretan jardueraren etekinei dagokien zati proportzionala jakiteko hiruko erregela aplikatu behar da:

5.138,5 ⟶ 24.000
X ⟶ 18.000

Beraz, jardueren etekinei dagokien kuota osoa: 3.853,61 €. Eta muga horren % 45 = 1.734,13 €.

Jarraian, mugarik ez duten kenkariak aztertuko ditugu bereziki.

Horietako lehena "Lanbide heziketako gastuak" izenekoa da. Zer den lanbide heziketa? Bada, adibidez, zure enpresan bertako langileak (zu barne) eguneratu, trebatu edo birziklatzeko antolatzen diren ikastaroak[17]. Oro har, horri dagokion kenkaria %10 da; gainera, urtean izandako gastuak aurreko bi urteetakoen batez bestekoa baino handiagoak badira, %10 kentzeaz batera, %15eko kenkari gehigarria egin daiteke.

Enplegua sortzeagatik egiten den kenkaria (inprimakian "Enplegua" deitutakoa) ohikoenetarikoa da. Hiru baldintza bete behar dira kenkari hori egin ahal izateko:

1.- Kontratua behin betikoa izatea.

2.- Behin betiko kontratua duten langileen batez bestekoa aurreko urteko baino handiagoa izatea.

3.- Gehikuntza horri bi urtez eustea.

Aurreko urteko plantilaren batez bestekoa behin betiko kontratu batekin gehitzen duen pertsona / urte bakoitzeko 3.606,07 euroko kenkaria egin dezakezu. Kenkari hori 3005,06 euro gehituko da (guztira, 6.611,13 euro) baldin eta kontratatutako diren pertsonak lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten horietakoak badira (adibidez, 45 urtez gorakoak edo ezinduak direla behar bezala egiaztatzen dituztenak). Gainera, pertsona horiek sei hilabete eraman behar dute izena emanda INEMen.

Gomendio bat: kenkari horiek guztiak ondo aztertzea komeni zaizu. Horretarako, irakur ezazu 7/1996 Foru Araua (37-50 artikuluak), I. eranskinean aipamen bat jasotzen da (103. orrialdean).

**Galdera:**

Zer dira "aktiboak"?

**Erantzuna:**

Zure jabetzapeko ondasunak eta eskubideak dira, hain zuzen ere jarduera ekonomikorako erabiltzen dituzunak.

---

[16] Ikusi 7/1996 Foru Araua (I. eta II. eranskinak).

[17] 7/1996 Foru Araua, 44. artikulua (I. eranskina, 103 orrialdea).

**Galdera:**

Zein alde dago aktibo “materialen” eta “inmaterialen” artean?

**Erantzuna:**

“Materiala” da ukitu daitekeena, esaterako, jarduerarako behar dituzun lokalak edo makinak. “Inmaterialak” dira, besteak beste, eskubideak (erabiltzekoa, jabetza intelektuala edo industriala…).

**Galdera:**

Nire negoziorako lokal berria erosi dut, baina ez diot zuzenean erosi promotoreari, beste pertsona bati baizik. Kenkaria egin dezaket “Aktibo finko material berrietan” inbertitzeagatik?

**Erantzuna:**

Ez, ez baita “berritzat” hartzen. Lokal berritzat jotzeko promotoreari erosi behar zaio zuzenean, edo bestela, zuk zeuk eraiki (7/1996 Foru Araua, 37 artikulua[18]).

**Galdera:**

Zeintzuk dira “Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak”?

**Erantzuna:**

Esate baterako, informatikako programak, web-orriak, etab. Zure langileei ordenagailu bana oparitzekotan ere, kenkari horretarako eskubidea duzu.

**Galdera:**

Demagun langile bat kontratatzen dudala behin betirako, baina konbenioan ezarritako lan-orduen erdian aritzeko. Ba al dut eskubiderik “enplegua sortzeko” kenkarirako?

**Erantzuna:**

Bai, baina kontratatutako orduen heinean bakarrik. Zure kasuan, erdia izan denez, hauxe litzateke kenkaria: 3.606,07/2 = 1.803,03 euro.

**Galdera:**

Zer gertatzen da urtea hasita izenpetzen bada kontratua, urrian adibidez?

**Erantzuna:**

Lehenengo urtean, urritik abendura bitarteko proportzioa kenduko litzateke; eta bigarrenean, urtarriletik urrira bitartekoa.

**Galdera:**

Urte batean nire enpresako langileen batez bestekoa 2tik 3ra pasatu zen, beste langile bat kontratatu nuelako; hurrengo urtean, aldiz, behera egin zuen berriro, antzinako langileetariko bat jubilatu zelako. Zer egin beharko nuke lehen urteko kenkariaren diruarekin?

**Erantzuna:**

Itzuli egin beharko zenuke, ez baitiozu bi urtez eutsi batez bestekoari.

**Galdera:**

Zer gertatzen da soberakina 8. Eranskinean jasotzea ahazten bazaizu, alegia, “Kenkaria, inbertsioengatik (mugaduna, mugarik gabe)” izeneko laukitxoetan?

**Erantzuna:**

Hurrengo urteko kenkaria galdu egiten dela, izan ere administrazioak arau honen arabera jarduten du beti: “Inprimakian jasota ez dagoena ez da existitzen”.

**Galdera:**

Zein dira kuota osotik lehendabizi kendu behar ditudan dedukzioak?

**Erantzuna:**

Muga daukatenak, alegia inprimakian aurreneko tokian daudenak, eta, gainera, hurrenkera horretan. Hurrenkera garrantzi handikoa da, azken batean kenkariak bata bestearen ondoren egiten baitira 0ra ailegatu arte (soberakina hurrengo urterako gordetzen da).

[18] I. eranskina, 103 orrialdea.

**Adibidea**

Egin dezagun kontu arotza zarela eta zure negozioak datu hauek dituela:

– Kuota osoa: 6.541,55 euro.

– Erabili gabeko lokal bat erosi duzu zure negoziorako 60.000 eurotan (ez diozu zuzenean promotoreari erosi, beste pertsona bati baizik).

– Egurrerako makina berriak erosi dituzu 30.000 eurotan.

– Urtarrilaren 1ean 48 urteko langile bat kontratatu duzu behin betirako, baina egun erdiz bakarrik jarduteko. Langile horrek 6 hilabete baino gehiago zeraman INEMeko zerrendetan.

– Kontratatu berri duzun langileari marketeriako ikastaro bat ordaindu diozu (3.000 euro). Iaz ez zenuen ezer gastatu lanbide heziketan.

Kasu honetan, Errenta Aitorpeneko kenkarien orria honela beteko litzateke:

## EKITALDIKO KENKARIAK

IFZ | **109 PFEZ** | **3. likidazio orria**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| JARDUERA EKONOMIKOAK SUSTATZEKO KENKARIAK | | | | | | | |
| **Inbertsioengatik eta bestelako jarduerengatik** | | | | | | | |
| *Aurreko ekitaldietako kenkariak, kuotan mugatuak (8. eranskineko [33] laukia)* | | | | | | 79 | |
| *Ekitaldiko kenkariak, kuotan mugatuak* | | | | Kenkariaren oinarria | % | | |
| Aktibo finko material berriak | | | | 30.000 | % 10 | 80 | 2.943 70 |
| Interes kulturaleko ondasunak, zine/ikus-entzunezko produkzioak | | | | | % 10 | 81 | |
| Informazio eta komunikazioaren teknologiak | | | | | % 10 | 82 | |
| Laburugintza | | | | | % 5 | 83 | |
| Ekitaldiko I + G | | | | | % 30 | 84 | |
| I + G-ren soberakina | | | | | % 20 | 85 | |
| Ingurugiroa | | | | | % 15 | 86 | |
| Esportazioa | | | | | % 25 | 87 | |
| *Aurreko ekitaldietako kenkariak, kuotan mugatu gabeak (8. eranskineko [40] laukia)* | | | | | | 88 | |
| *Ekitaldiko kenkariak, kuotan mugatu gabeak* | | | | Kenkariaren oinarria | % | | |
| Lanbide heziketa | | | | 3.000 | % 10 | 89 | 300 |
| Lanbide heziketaren soberakina | | | | 3.000 | % 15 | 90 | 450 |
| | Batez besteko plantila | | | Zenbatekoa | | | |
| | Oraingo ekitaldia | Aurreko ekitaldia | Gehikuntza | | | | |
| Enplegu orokorra | | | | 3.606.07 € | | 91 | |
| Enplegu berezia | 0,5 | 0 | 0,5 | 3.305,57 6.611,13 € | | 92 | 2.847 85 |
| **Langileek enpresan parte hartzeagatik** | | | | | | | |
| Zergaldian ordaindutako zenbatekoak | | | | | % 10 | 93 | |
| KENKARIAK DOHAINTZENGATIK | | | | | | | |
| Irabazi asmorik gabeko elkarte eta fundazioak | | | | | % 20 | 94 | |
| Lehentasunezkotzat jotzen diren jarduera eta programak | | | | | % 15 | 95 | |
| BESTELAKO KENKARIAK | | | | | | | |
| Ceutan eta Melillan lortutako errentengatik | | | | | | 96 | |
| Gardentasun fiskalean dauden sozietateenak | | | | | | 97 | |
| Nazioarteko gardentasun fiskalean dauden sozietateenak | | | | | | 98 | |
| KENKARIAK GUZTIRA ( [63] tik [98] ra arteko laukien batura) | | | | | | 99 | 6.541 55 |
| KUOTA LIKIDOA ( [62] – [99] ). Negatiboa bada, jarri zero. | | | | | | 100 | 0 |
| **KONTURAKO ORDAINKETAK (ATXIKIPENAK, KONTURAKO SARRERAK ETA ORDAINKETA ZATIKATUAK)** | | | | | | | |

## DATORREN URTERAKO KENKARIAK

**Iruzkina:**

- Lokala ezin izan duzu deduzitu, ez baitiozu zuzenean erosi promotoreari (jabetzako lehen eskriturak adierazten du lokala berria den ala ez; hau da, berritzat dauka lehen eskritura horretan agertzen den jabeak).
- Muga duten kenkariak ezin izan daitezke kuota osoaren %45 baino handiagoak = **2.943,70** euro
- “Aktibo finko material berriak” laukia betetzeko, kalkulu hau egin dugu (beti ere kontuan izanik 30.000 eurotan erosi ditugun makina berriak):

  – Oinarria = 30.000,00 euro
  – %10eko kenkaria = 3.000,00 euro
  – Aurtengo kenkaria (muga): **2.943,70** euro
  – Hurrengo urtekoa (8. eranskina, muga duten kenkariak) = 56,30 euro

- Lanbide heziketak, berez, %10ko kenkaria du = **300,00** euro
  Bigarren kenkari bat ere badu (%15ekoa), iazko gastuaren aldean aurtengoak gora egin duelako (0) = **450,00** euro

  Bi hauek osorik deduzitzen dira, bi arrazoi hauek direla-eta:

  a) Ez dute mugarik.
  b) Kenkarien batuketa ez da kuota osoa baino handiagoa.

- “Enplegu bereziari” dagokion laukia betetzeko kalkulu hau egin dugu:

  – Oinarria 6.611,13/2 = 3.305,57 euro
  – Aurtengo kenkaria (kuota osoaren mugaraino) **2.847,85** euro
  – Hurrengo urtekoa (8. eranskina, Mugarik gabeko kenkariak) = 457,72 euro

- Kenkariak, guztira (ezin dute gainditu kuota osoa) = **6.541,55** euro
- Kuota osoa (ezin izan daiteke 0 baino txikiagoa) = **0,00** euro

Errenta Aitorpenaren 109 inprimakian, jarduera ekonomikoak sustatzeko kenkarien artean, honako hau ere jasotzen da (4. orria, 93 laukia):

| **Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik** | |
|---|---|
| Zergaldian jarritako diruak | %10 |

Erne: Ez hanka sartu kenkari honen izena ikustean “langileek enpresan parte hartzea”, seguru asko ez baitu zerikusi handirik izango zure egoerarekin. Aitzitik, kenkari hori bakar-bakarrik aplikatu ahalko dute enpresaren akzioak edo partaidetzak erosi dituzten besteren konturako langileek (alegia, autonomoak ez direnek). Gehienez ere, 100.000 pezetako kenkaria egin dezakete urtean (601,01 €).

## 4.5 KUOTA DIFERENTZIALA

Errenta Aitorpenera bueltatuko gara berriro ere. Aurreko puntuan esaten genuenez, kuota osoari kenkariak gutxitzen bazaizkio, kuota likidoa ateratzen zaigu. Oraingoan, Foru Aldundiari urtean zehar ordaindu dizkiogun atxikipenak eta konturako ordainketak kendu behar dizkiogu kuota likido horri (ez ahaztu enpresariek Foru Aldundiari hiru hilero egiten dizkioten ordainketa zatikatuak).

Bada, kenketa horren emaitza da kuota diferentziala:

**KUOTA DIFERENTZIALA = KUOTA LIKIDOA – KONTURAKO ORDAINKETAK**

Ondorioa zein den garbi dago: kuota diferentziala positiboa bada, zeuk ordaindu behar diozu kopuru hori Foru Aldundiari: negatiboa bada, berriz, Foru Aldundiak itzuliko dizu gehiegi ordaindu duzun dirua.

Amaitu baino lehen, bi kontzeptu argitu nahi dizkizugu, garrantzi handikoak baitira langile autonomoentzat: atxikipenak eta ordainketa zatikatuak.

### 4.5.1 Zer dira atxikipenak?

Egin dezagun kontu profesional bat zarela, enpresari batentzat lan bat egin duzula, eta horren truke, 1.000 €ko faktura bat pasatu diozula (gehi BEZ). Kasu horretan, berak 820 €+BEZ ordaindu behar dizkizu. Horrek esan nahi du enpresariak oinarri ezargarriaren %15 atxikitu dizula, eta berak ordainduko diola kopuru hori zuzenean Foru Aldundiari, hiru hileroko ordainketa zatikatua egitea tokatzen zaionean (110 inprimakia).

**Galdera:** Nori egiten zaio atxikipena?

**Erantzuna:** Profesional guztiei; ez, ordea, enpresariei.

### 4.5.2 Zer dira ordainketa zatikatuak?

Aitorpena egiterakoan sistema bat edo bestea aukeratu duzula (Zuzeneko Estimazioa edo Objektiboa) lau ordain-

keta zatikatu egin behar dizkiozu Foru Aldundiari, ordura arte urtean zehar lortutako etekinen kontura. Hona hemen ordainketarako epeak:

- Apirilaren 1 / maiatzaren 10
- Uztailaren 1 / abuztuaren 10
- Urriaren 1 / azaroaren 10
- Urtarrilaren 1 / otsailaren 10

Ordainketa zatikatuak egiteko 130 inprimakia erabiltzen da. Bertan dituzu kalkulurako behar diren argibide guztiak.

Oro har, hau egin behar duzu ordain zatikatuak zenbatekoak diren kalkulatzeko[19]: orain dela bi urte zure negozioan lortu zenituen etekin garbiak hartu, eta kopuru horri kendu garai hartan egin zizkizuten atxikipenen eta konturako ordainketen laurdena. Bada, emaitzaren %5 da hiru hilero Foru Aldundiari ordaindu behar diozuna.

**Adibidea**

Profesional bat zara eta 2000. urtean emaitza hauek izan dituzu:

– Etekin garbia: 17.000 €
– Atxikipenak, guztira: 850 €

Horrenbestez, honela bete beharko zenuke 130 inprimakia hiru hilero:

**ORDAINKETA ZATIKATUA**

Hiruhileko likidazioa (2000. urteko datuekin)


Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas
130
100165
ORDAINKETA ZATIKATUA / PAGO FRACCIONADO
A) OROKORREAN / OROHAR
01 17.000.- x 0,05 02 850.-
03 125.-
04 = 02 – 03 04 725.-
B) APARTEKO EGOERETAN / EN CIRCUNSTANCIAS EXCEPCIONALES
ORDAINKETA ZATIKATUA: ZENBATEKOA / PAGO FRACCIONADO: IMPORTE
11 725.-
12
13
14
Data eta sinadura
Fecha y firma
ORDAINDU BEHARREKOA
TOTAL A PAGAR
15 725.-

[19] 68/2001 Foru Dekretua, 118 eta 119 artikuluak (I. eranskina, 104 eta 105 orrialdeak).

Jarduera urte honetan jarri baduzu abian (eta, ondorioz, iazko emaitzarik ez bada), 130 inprimakiko B atala bete behar duzu ("Aparteko egoerak" izenekoa). Horrelako beste egoera batzuk I. eranskinean ere topatuko dituzu[20].

Kasu horretan, Zuzeneko Estimazioa edo Objektiboa (Moduluak) aukeratu, aldatu egiten da kalkulua.

Hala, Zuzeneko Estimazioa hautatu baduzu, hiru hilabete horietan fakturatutako %2 da ordainketa zatikatua.

**ORDAINKETA ZATIKATUA**

Hiruhileko likidazioa aparteko egoeragatik

(jarduerari aurten ekin badiozu)


Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas
Ekonomi jarduerak burutzen dituzten zergadunak
Contribuyentes que ejercen actividades económicas
ORDAINKETA ZATIKATUA / PAGO FRACCIONADO
130
100165
A) OROKORREAN / CON CARÁCTER GENERAL
B) APARTEKO EGOERETAN
APARTEKO EGOERETAN
Zuzeneko Zenbatespena
2002
20.000.-
400.-
ORDAINKETA ZATIKATUA: ZENBATEKOA / PAGO FRACCIONADO: IMPORTE
400.-
400.-
Data eta sinadura
Fecha y firma
ORDAINDU BEHARREKOA
TOTAL A PAGAR
15
400.-

[20] 68/2001 Foru Dekretua, 120 artikulua (I. eranskina, 105. orrialdea).

Aldiz, Estimazio Objektiboa (Moduluak) aukeratzekotan, moduluen araberakoa izaten da kalkulua, eta, jakina denez, modulu horiek aldatu egiten dira epigrafe batetik bestera. Adibidez, zure jardueraren epigrafea 673.2 balitz (Bestelako kafetegi eta tabernak), honela bete beharko zenuke 130 inprimakia:

Erne: Adibidean ikusi duzunez, Estimazio Objektiboan (Moduluak) ordainketa zatikatua (526,82) erdira murrizten da (263,41) zenbait kasutan. Zehatzago: erdia ordaindu beharra dago, bi baldintza hauek betetzen badira:

1.- Moduluan egotea.
2.- Enpresaria izatea.
3.- Langilerik ez izatea.

**ORDAINKETA ZATIKATUA**

Hiruhileko likidazioa moduluen bidez

(Besteak, kafetegi eta tabernak)



## 4.6 KALKULU OSOAREN LABURPENA

### Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

**OINARRI EZARGARRIA**

Etekinak + Ondare-irabaziak eta galerak

- Lana
- Kapital higikorra
- Kapital higiezina
- Jarduera ekonomikoak

↓

**OINARRI LIKIDAGARRIA**

Oinarri ezargarria - Murrizpenak

- Pentsio konpentsagarriak
- BGAEak
- Baterako Aitorpena

↓

**KUOTA OSOA**

Oinarri likidagarriaren %, ondorengo eskalaren arabera

| Oinarri likidagarria | Kuota osoa | Oinarri likidagarriaren gainerakoa Kopurua | Tasa |
|---|---|---|---|
| 3.545,00 | 0,00 | 3.220,00 | %17 |
| 6.765,00 | 547,40 | 11.595,00 | %25 |
| 18.360,00 | 3.446,15 | 13.530,00 | %30 |
| 31.890,00 | 7.505,15 | 13.530,00 | %38 |
| 45.420,00 | 12.646,55 | 25.440,00 | %44 |
| 70.860,00 | 23.840,15 | Hortik gorakoa | %50 |

↓

**KUOTA LIKIDOA**

Kuota osoa - Kenkariak

- Familiarrak
- Ohiko etxebizitza
- Ezarpen bikoitza
- Jarduera ekonomikoen sustapena
- Dohaintzak
- Ceuta eta Melilla

↓

**KUOTA DIFERENTZIALA**

Kuota likidoa - Atxikipenak eta konturako ordainketak

Emaitza positiboa bada (kuota positiboa +) = ordaindu egin behar duzu

Emaitza negatiboa bada (kuota negatiboa –) = kobratu egin behar duzu

**GARRANTZITSUA**

Enpresaria bazara, gogoratu zaitez, Errentaren Aitorpenarekin batera, zure patrimonioa ere aitortu behar duzula (PFEZren 109 inprimakiko 7. eranskina).

# 5. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)

5.1. Zer da BEZ?

5.2. Nola kalkulatzen da BEZ dela-eta deklaratu beharrekoa?

5.3. Jarduera salbuetsiak

- 5.3.1. Interes publikoa dela-eta salbuetsita dauden jarduerak
- 5.3.2. Interes ekonomikoa dela-eta salbuetsita dauden jarduerak
- 5.3.3. Interes kulturala dela-eta salbuetsita dauden jarduerak

5.4. Karga-tasak

5.5. Nola deduzitu BEZ?

5.6. Ordaintzeko epeak

5.7. Kontabilitate-liburuak

5.8. Erregimen Orokorra eta Erregimen Erraztua

5.9. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren Erregimen Berezia

5.10. Baliokidetasun-errekarguko Erregimena

## 5.1 ZER DA BEZ?

Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kontsumoa kargatzen duen zerga bat da, ondasunak erostea dela, zerbitzu profesionalak eskaintzea dela.

BEZ produkzio-katearen begi bakoitzean kargatzen da; esan nahi baita zuk, enpresaria zaren aldetik, BEZ ordaintzen duzula zerbait erosten duzunean, eta kobratzen, bezero bati zer edo zer saltzen diozunean (salbuetsitako jarduera ez bada, behintzat). Adibide batekin hobetu ulertuko dugu nola funtzionatzen duen zerga honek:

Jo dezagun egurketari batek egurra saltzen diola altzari-fabrikatzaile bati 100 eurotan (+ %16 BEZ, guztira 116 €). Kasu horretan egurketariak **16 €** ordaindu behar dio Foru Aldundiari, BEZ dela-eta.

Demagun fabrikatzaile horrek egurrezko altzari bat egiten duela egur horrekin, eta altzari errustikoak eskaintzen dituen denda bateko jabeari saltzen diola 400 eurotan (+ %16 BEZ, guztira 464 €). Oraingoan fabrikatzaileak **48 €** ordaindu behar dizkio Foru Aldundiari (BEZ dela-eta dendariari kobratu dizkion 64 euroak – egurketariari ordaindutako 16ak = 48 euro).

Azkenik, dendariak bezero bati saltzen dio altzaria 500 eurotan (+ %16 BEZ, guztira 580 €). Kasu honetan dendariak **16 €** ordaindu behar dizkio Foru Aldundiari (bezeroari kobratu dizkion 80 euroak – fabrikatzaileari ordaindutako 16ak).

Ikusiko duzunez, altzariaren fabrikazioan, merkaturatzean eta salmentan parte hartu duten guztiek –zeinek berea– ordaindu diote BEZ Foru Aldundiari.

Adibide horretatik, gutxienez, hiru ondorio ateratzen dira:

- BEZ produkzio-katean zehar jaisten da beheko muturreko kontsumitzailearengana ailegatu arte, bera baita, azken batean, zerga ordaintzen duena.
- Bitarteko enpresariek hau besterik ez dute egiten: kobratu duten BEZ Foru Aldundiari eman, eta ordaindutakoa deduzitu. Beste era batera esanda: enpresarientzat BEZek ez dakar, ez diru-sarrerarik, ez gasturik, eta ez du inolako eraginik enpresaren etekinetan eta galeretan. BEZ Foru Aldundiarekin daukagun zor edo kreditua baino ez da.
- Bi BEZ-mota daude:
    - **Jasandakoa**: zerbait erosterakoan ordaintzen duguna.
    - **Jasanarazitakoa:** gure fakturetan kobratzen duguna.

## 5.2 NOLA KALKULATZEN DA BEZ DELA-ETA DEKLARATU BEHARREKOA?

BEZ zerga bat da, hiru hilero Foru Aldundiari ordaindu beharrekoa. Zenbat pagatu behar dugun kalkulatzeko, ikusi behar dugu zein den aldea kobratu dugunaren (jasanarazitako BEZ) eta ordaindu dugunaren artean (jasandako BEZ).

**ORDAINDU BEHARREKO BEZ = JASANARAZITAKO (KOBRATUTAKO) BEZ – JASANDAKO (ORDAINDUTAKO) BEZ**

Emaitza 0 baino handiagoa bada, hau da, ordaindu duguna baino gehiago kobratu badugu, Foru Aldundiari eman behar diogu alde hori; kontrakoa gertatuz gero, hau da, gehiegi ordaindu badugu, BEZ hori ez digute zuzenean itzuliko; bai, ordea, gordeko hurrengo hiru hilekorako: “konpentsatzeko” esaten zaio horri.

**BEZren HIRUHILEKO AITORPENA**

"Konpentsatzeko"



Balio Erantsiaren gaineko Zerga
Impuesto sobre el Valor Añadido
Hiruhilabeteko aitorpena
Declaración trimestral

300

Ekitaldia / Ejercicio: 2002
Aldia / Periodo: 3.º

Oinarri zergagarria / Base imponible: 1.000.- — Kuota / Cuota: 160.-

Sortutako kuota guztira / Total cuota devengada: 160.-

Oinarri zergagarria / Base imponible: 2.000.- — Kuota / Cuota: 320.-

Kendu beharrekoa guztira / Total a deducir: 320.-

Diferentzia / Diferencia: – 160.-

Emaitza / Resultado: 160.-

Konpentsatu beharrekoa / A compensar: 160.-

Itxuraz, erraza da buruketa, baina konplikatu egin daiteke, kontuan hartzen ez badugu **jarduera batzuk salbuetsita** daudela, **karga-tasa ezberdinak** daudela eta **BEZ deduzitzeko baldintza** batzuk daudela. Ikus ditzagun hirurak banan-banan.

## 5.3 JARDUERA SALBUETSIAK

Jarduera bat salbuetsita egoteak esan nahi du fakturak egin daitezkeela BEZ kobratu gabe; hortaz, ez dago zertan egin, ez hiru hileroko aitorpenik, ez urteko laburpenik, ez eta erosketetan jasandako BEZen inolako dedukziorik ere (inportazioak salbu). Batzuetan, zure jarduera salbuetsita egotea interesatuko zaizu (ordaintzen duzuna baino BEZ handiagoa kobratzen baduzu); beste batzuetan, berriz, ez (ordaintzen duzuna baino BEZ txikiagoa kobratzen baduzu).

> Erne: Batasun barruko erosketak egin badituzu 309 inprimakia erabiliz ordaindu behar diozu dagokion BEZ Foru Ogasunari.

> Erne: inportazioen kasuan, aduanei dagokien BEZ L1 inprimakia erabiliz ordaindu behar duzu.

Zure jarduera salbuetsita geratzeko eskatu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Foru Aldundiarekin eta bertan esango dizute zein ziurtagiri eta inprimaki aurkeztu behar dituzun.

Jarduera salbuetsiak asko dira. Hona hemen garrantzizkoenak:

### 5.3.1 Interes publikoa dela-eta salbuetsita dauden jarduerak:

- Osasun jarduerak: ospitaleko zerbitzuak, gaixoen garraioak… (kanpoan geratzen dira botikak eta albaitariak).
- Irakaskuntza jarduerak, maila guztietakoak: klase partikularrak, ikasleen garraioa (kanpoan geratzen dira elkartutako ostatuak, kirol zerbitzuak eta autoeskolak).

### 5.3.2 Interes ekonomikoa dela-eta salbuetsita dauden jarduerak:

- Aseguru-eragiketak: aseguru-saria baino ez dago salbuetsita; ez, ordea, elkartutako zerbitzuak (adibidez, autoen konponketa).
- Finantza-eragiketak: gordailuak, maileguak, fidantzak, abalak, txekeak …
- Higiezin-eragiketak: landa-ondasunak ematea, etxebizitzak bigarren, hirugarren... aldiz ematea, lurrak alokatzea (kanpoan geratzen dira garajeak, biltegiak, merkantzia-gordailuak eta publizitatea).

### 5.3.3 Interes kulturala dela-eta salbuetsita dauden jarduerak:

- Musikagile, gidoilari, itzultzaile eta jabetza intelektualarekin lotutako zerbitzuak…

## 5.4 KARGA-TASAK

Hiru dira:

1. **Tasa orokorra %16** da eta, oro har, sal-erosketei dagokie: autoak, bitxiak, etxetresna elektrikoak etab.
2. **Tasa gutxitua %7** da eta, besteak beste, hauei dagokie:
   - Elikagaiak (kanpoan geratzen dira edari alkoholdunak eta freskagarriak).
   - Eraikinak, etxebizitzak eta garajeak.
   - Bidaiarien garraioa.
   - Ostalaritza.
   - Hileta-zerbitzuak.
   - Haginlariak.
   - Ile-apaindegiak.
   - Zinema, antzerki, kontzertu eta abarretako sarrerak.
   - Animaliak eta landareak.
   - Igeltserotza (baldintza batzuk betez).
   - Sukaldeko altzarien instalazioa dakarten salmentak.
3. **Tasa super gutxitua %4** da eta premiazko ondasunei dagokie:
   - Manipulatu gabeko elikagaiak (arrautzak, ogia, esnea, frutak, barazkiak…).
   - Gizakientzako botikak.
   - Elbarrientzako gurpil-aulkiak eta protesiak.
   - Babes ofizialeko etxebizitzak.

## 5.5 NOLA DEDUZITU BEZ?

> Erne: aldi berean BEZ pean dauden sarrerak sortarazten dituzten gastuei dagokien BEZ kendu ahal izango duzu.

Kobratutako BEZri ordaindutako BEZ kendu ahal izateko –eta horrela Foru Aldundiari diru gutxiago emateko– hiru baldintza hauek bete behar dira:

- Enpresaria edo profesionala izatea.
- Erositako ondasunek edo zerbitzuek (BEZ ordaintzea ekarri dizutenak) beharrezkoak izan behar dute zure jarduerarako; alegia, ezin duzu ur-motorra erosi arrandegi baten jabea izanik eta erosketa horren BEZ deduzitu.
- Faktura guztiak (hornitzaileek ondo beteta) gorde egin behar dituzu.

Ondasun eta zerbitzuetan ordaindutako BEZ deduzitzeko ezinbestekoa da ondasun edo zerbitzu hori bakar-bakarrik zure jarduerarako erabiltzea. Hori gertatzen ez bada, hau da, modu pribatuan erabiltzen baduzu (aldi baterako besterik ez bada) ezingo duzu BEZ deduzitu.

Baldintza hori ez da beharrezkoa inbertsio-ondasunetan ordaindutako BEZen kasuan, eta beraz, diru hori deduzitu daiteke (inbertsio-ondasunak dira urte bete baino gehiago lan-tresna gisa erabil daitezkeenak, adibidez, makinak). Autoekin %50eko erabilera-proportzio bat jotzen da, eta proportzio hori %100era heltzen da garraio-zerbitzuetan, autoeskoletan eta ordezkari komertzialen kasuan, besteak beste.

Erne: Ezin daiteke inola ere BEZ deduzitu kasu hauetan: janariak, olgetako ikuskizunak, bitxiak eta apaingarriak, eta bezero eta hornitzaileentzako opariak.

Zure jarduera guztiek baldintza horiek betetzen badituzte, orduan ez dago inolako arazorik eta deduzitu ahal duzu ordaindutako BEZ. Baina, zure jarduera batzuek deduzitzeko eskubidea ematen badute, eta beste batzuek ez, orduan ezin duzu dena deduzitu eta hainbanaketaren edo **prorrataren erregela** ezarri behar da.

Erregela horren bidez, ordaindutako BEZen portzentaje bat bakarrik deduzitzen da, hain zuen ere, buruketa honetatik ateratzen den emaitza: deduzitzeko eskubidea duten eragiketak ken eragiketa guztiak, eta behin behineko emaitza hori bider ehun, goitik biribilduz:

$$\textbf{Portzentajea} = \frac{\text{Deduzitzeko eskubidea duten eragiketak (BEZ gabe)}}{\text{Eragiketa guztiak (BEZ gabe)}} \times 100$$

## 5.6 ORDAINTZEKO EPEAK

Dagoeneko esan dugu BEZ hiru hilero ordaintzen dela, eta kopurua kalkulatzeko, kobratu dugun BEZi ordaindutakoa kendu behar zaiola, hori guzti hori hiru hilabetetan jasotako faktura guztiak kontuan izanik (adibidez, urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartekoak). Foru Aldundiari zer edo zer eman behar bazaio, hurrengo hilabeterako uzten da ordainketa, ondorengo laukian ikusten denez:

| Hiru hilerokoa | Fakturazio-aldia | Ordaintzeko egunak |
|---|---|---|
| 1. hiru hilerokoa | Urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra | Apirilaren 1etik 25era |
| 2. hiru hilerokoa | Apirilaren 1etik ekainaren 30era | Uztailaren 1etik 25era |
| 3. hiru hilerokoa | Uztailaren 1etik irailaren 30era | Urriaren 1etik 25era |
| 4. hiru hilerokoa | Urriaren 1etik abenduaren 31ra | Urtarrilaren 1tik 30era |

Hemen dituzu hiru hilero erabili behar dituzun idazkiak:

- Erregimen Orokorra: 300 inprimakia.
- Erregimen Erraztua: 310 inprimakia.

Urteko laburpena egiteko, aldiz, bi hauek:

- Erregimen Orokorra: 390 inprimakia.
- Erregimen Erraztua: 391 inprimakia.

**Galdera:**
Noiz egin behar da urteko laburpena?

**Erantzuna:**
4. hiru hilerokoari dagokion aldi berean, hau da, urtarrilaren 1etik 30ra bitartean.

**Galdera:**
Baja eman diot nire jarduerari otsailean. BEZ dela-eta, zenbat aitorpen egin behar dut?

**Erantzuna:**
Bi hauek: lehen hiru hilerokoari dagokiona eta urteko laburpenari dagokiona.

## 5.7 KONTABILITATE-LIBURUAK

BEZ dela-eta, hauek dira eginbeharrekoak:

- Eragiketa guztien fakturak egin behar dira, hartzaileak zein diren argi eta garbi utziz.
- Hornitzaileek emandako fakturak gorde egin behar dira.
- Gainera, liburu hauek eraman behar dira:
  - Egindako fakturen erregistro-liburua (PFEZen: “Diru-sarreren liburua”).
  - Jasotako fakturen erregistro-liburua (PFEZen: “Erosketa eta gastuen liburua”).
  - Inbertsio ondasunen liburua.

Bi hauen adibideak: egindako fakturen erregistro-liburua (PFEZen: “Sarreren erregistro-liburua”), eta kobratutako BEZen urteko laburpena. Ikusiko duzunez, laburpena liburutik ateratzen da.

**EGINDAKO FAKTUREN LIBURUA – SARREREN LIBURUA**

| Data | Fak. zk. | Bezeroa | | | Oin. ezarg. | %16 BEZ | Fak. guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 02/01/31 | 1 | IHINTZA SL | | | 18.400 | 2.944 | 21.344 |
| 02/02/28 | 2 | IHINTZA SL | | | 18.200 | 2.912 | 21.112 |
| 02/03/31 | 3 | IHINTZA SL | | | 19.100 | 3.056 | 22.156 |
| 02/04/30 | 4 | IHINTZA SL | | | 17.800 | 2.848 | 20.648 |
| 02/05/31 | 5 | IHINTZA SL | | | 18.500 | 2.960 | 21.460 |
| 02/06/30 | 6 | IHINTZA SL | | | 20.100 | 3.216 | 23.316 |
| 02/07/31 | 7 | IHINTZA SL | | | 18.500 | 2.960 | 21.460 |
| 02/08/31 | 8 | IHINTZA SL | | | 4.800 | 768 | 5.568 |
| 02/09/30 | 9 | IHINTZA SL | | | 20.500 | 3.280 | 23.780 |
| 02/10/31 | 10 | IHINTZA SL | | | 18.600 | 2.976 | 21.576 |
| 02/11/30 | 11 | IHINTZA SL | | | 18.000 | 2.880 | 20.880 |
| 02/12/31 | 12 | IHINTZA SL | | | 19.500 | 3.120 | 22.620 |
| **GUZTIRA EKITALDIAN** | | | | | **212.000** | **33.920** | **245.920** |

1. hiruhilekoa

2. hiruhilekoa

3. hiruhilekoa

4. hiruhilekoa

LABURPENA LIBURUTIK LORTZEN DA

**EKITALDIKO LABURPENA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. | 55.700 | 8.912 | 64.612 |
| 2. | 56.400 | 9.024 | 65.424 |
| 3. | 43.800 | 7.008 | 50.808 |
| 4. | 56.100 | 8.976 | 65.076 |
| **GUZTIRA** | **212.000** | **33.920** | **245.920** |

JASANARAZITAKO BEZ (kobratutakoa)

Bi hauen adibideak: jasotako fakturen erregistro-liburua (PFEZen: “Erosketa eta gastuen erregistro-liburua”), eta ordaindutako BEZen urteko laburpena. Ikusiko duzunez, laburpena liburutik ateratzen da, BEZ duten fakturak eta ez dutenak zein bere aldetik ondo bereizita.

**JASOTAKO FAKTUREN LIBURUA – EROSKETA ETA GASTUEN LIBURUA**

| Data | Fak. zk. | Hornitzailea | Oin. ezarg. | %16 BEZ | Fak. guztira | Soldatak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | |
| 2002/01/31 | | Hornitegia | 4.900,00 | 784,00 | 5.684,00 | |
| 2002/01/31 | | Tailerrak | 1.500,00 | 240,00 | 1.740,00 | |
| 2002/01/31 | | Aholkularitza | 64,00 | 10,24 | 74,24 | |
| 2002/01/31 | | Iberdrola | 35,00 | 5,60 | 40,60 | |
| 2002/01/31 | | Telefónica | 60,00 | 9,60 | 69,60 | |
| 2002/01/31 | | Mailegu-interesak | 528,00 | | 528,00 | |
| 2002/01/31 | | Soldatak | 3.358,00 | | 3.358,00 | |
| 2002/01/31 | | Gizarte Seg. | 1.679,00 | | 1.679,00 | |
| 2002/01/31 | | PFEZ | 392,00 | | 392,00 | |
| 2002/01/31 | | Autonomoen Giz. Seg. | 205,54 | | 205,54 | |
| 2002/01/31 | | Hainbat gastu | 680,00 | 108,80 | 788,80 | |
| 2002/02/28 | | Hornitegia | 5.100,00 | 816,00 | 5.916,00 | |
| 2002/02/28 | | Tailerrak | 850,00 | 136,00 | 986,00 | |
| 2002/02/28 | | Aholkularitza | 64,00 | 10,24 | 74,24 | |
| 2002/02/28 | | Bulegoko materiala | 156,00 | 24,96 | 180,96 | |
| 2002/02/28 | | Mailegu-interesak | 523,00 | | 523,00 | |
| 2002/02/28 | | Billabonako Udala | 445,00 | | 445,00 | |
| 2002/02/28 | | Soldatak | 3.358,00 | | 3.358,00 | |
| 28/02/2002 | | Gizarte Seg. | 1.679,00 | | 1.679,00 | |
| | | | | | | |
| | | **Guztira ekitaldian** | **186.100,00** | **13.880,80** | **199.980,80** | |

**JASANDAKO BEZ (ORDAINDUTAKOA): LABURPENA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Oinarri ezargarria %16 | 86.755,00 | 13.880,80 | 100.635,80 |
| Oinarri ezargarria %0 | 99.345,00 | | 99.345,00 |
| **GUZTIRA** | **186.100,00** | **13.880,80** | **199.980,80** |
| | | | |
| 1. HIRUHIL. | 20.608,40 | 3.297,34 | 23.905,74 |
| 2. HIRUHIL. | 17.948,00 | 2.871,68 | 20.819,68 |
| 3. HIRUHIL. | 21.386,00 | 3.421,76 | 24.807,76 |
| 4. HIRUHIL. | 26.812,60 | 4.290,02 | 31.102,62 |
| **GUZTIRA EKITALDIAN** | **86.755,00** | **13.880,80** | **100.635,80** |

**BEZdun FAKTURAK (%16)**

**BEZ gabeko FAKTURAK**

**BEZdun FAKTURAK**

**DATU HAUEK LIBURUTIK LORTZEN DIRA**

**Galdera:**

Jasotako fakturen erregistro-liburua (BEZ) eta Erosketa eta gastuen erregistro-liburua (PFEZ) liburu ezberdinak al dira?

**Erantzuna:**

Ez, funtsean liburu bera da. Gertatzen dena da zutabe batzuk hartzen direla kontuan BEZerako (Oinarri ezargarria, BEZ, Guztira), eta beste batzuk Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarako (Oinarri ezargarria eta Erosketei eta gastuei dagozkien zutabeak). Hortik dator, hain zuzen ere, bi izen ezberdin izatea, eta gauza bera gertatzen da bi hauekin ere: Egindako fakturen erregistro-liburua (BEZ) eta Sarreren erregistro-liburua (PFEZ).

**JASOTAKO FAKTUREN LIBURUA – EROSKETA ETA GASTUEN LIBURUA**

| Data | Fak. zk | Hornitzailea | Oin. ezarg. | %16 BEZ | Fak. guztira | Soldatak | Gizarte Segurantza | Konponk. | Prof. zerb. | Kanpoko beste zerb. | Zergak | Finantza-gastuak | Amorti. | Bestelako gastuak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | **Aurreko batuketa** | 39.526,03 | 3.297,34 | 42.823,36 | 11.250,00 | 5.653,62 | 3.070,00 | 192,00 | 15.152,00 | | 1.569,00 | | 2.639,40 |
| 2002/04/31 | | Estac.Servicio | 4.600,00 | 736,00 | 5.336,00 | | | | | 4.600,00 | | | | |
| 2002/04/31 | | Talleres | 650,00 | 104,00 | 754,00 | | | 650,00 | | | | | | |
| 2002/04/31 | | Asesoría | 64,00 | 10,24 | 74,24 | | | | 64,00 | | | | | |
| 2002/04/31 | | Intereses de préstamo | 513,00 | | 513,00 | | | | | | | 513,00 | | |
| 2002/04/31 | | Sueldos | 3.412,00 | | 3.412,00 | 3.412,00 | | | | | | | | |
| 2002/04/31 | | Seg. Social | 1.721,84 | | 1.721,84 | | 1.721,84 | | | | | | | |
| 2002/04/31 | | IRPF | 402,00 | | 402,00 | 402,00 | | | | | | | | |
| 2002/04/31 | | Seg. Social - autónomos | 205,54 | | 205,54 | | 205,54 | | | | | | | |
| 2002/04/31 | | Gastos varios | 825,00 | 132,00 | 957,00 | | | | | | | | | 825,00 |
| 2002/05/31 | | Estac.Servicio | 4.200,00 | 672,00 | 4.872,00 | | | | | 4.200,00 | | | | |
| 2002/05/31 | | Talleres | 710,00 | 113,60 | 823,00 | | | 710,00 | | | | | | |
| 2002/05/31 | | Asesoria | 64,00 | 10,24 | 74,24 | | | | 64,00 | | | | | |
| 2002/05/31 | | Gestoría | 68,00 | 10,88 | 78,88 | | | | | | | | | 68,00 |
| 2002/05/31 | | Iberdrola | 48,00 | 7,68 | 55,68 | | | | | 48,00 | | | | |
| 2002/05/31 | | Telefónica | 62,00 | 9,92 | 71,92 | | | | | 62,00 | | | | |
| 2002/05/31 | | Material de Oficina | 178,00 | 28,48 | 206,48 | | | | | | | | | 178,00 |
| 2002/05/31 | | Intereses de préstamo | 508,00 | | 508,00 | | | | | | | 508,00 | | |
| 2002/05/31 | | Gastos varios | 687,00 | 109,92 | 796,92 | | | | | | | | | |
| | | **batu eta jarraitu** | 82.633,16 | 6.169,02 | 88,791,18 | 22.692,00 | 11.435,76 | 5.110,00 | 384,00 | 33.112,00 | 1.600,00 | 3.093,00 | | 5.195,40 |

**BEZ**
Oinarri ezargarria
BEZ
Guztira

**PFEZ**
Oinarri ezargarria
Soldatak
Gizarte Segurantza...

Hiru hileroko lehen, bigarren eta hirugarren aitorpenen adibide bana (Erregimen Orokorra). Ikusiko duzunez, hiru hilerokoari dagozkion datuak baino ez dira jasotzen.

**BEZren AITORPENA**

1. hiruhilekoa



**BEZren AITORPENA**

2. hiruhilekoa

Balio Erantsiaren gaineko Zerga
Impuesto sobre el Valor Añadido
Hiruhilabeteko aitorpena
Declaración trimestral

**300**

Aldialdia / Período: 2.º

0013104

| | Oinarri zergagarria / Base imponible | Tasa / Tipo | | Kuota / Cuota |
|---|---|---|---|---|
| 02 | 56.400.- | 16 % | 03 | 9.024.- |
| 04 | | 7 % | 05 | |
| 06 | | 4 % | 07 | |
| 08 | | 4 % | 09 | |
| 10 | | 1 % | 11 | |
| 12 | | 0,5 % | 13 | |
| 14 | | | 15 | |

TOTAL CUOTA DEVENGADA: 03 + 05 + 07 + 09 + 11 + 13 + 15 → 16

| | Oinarri zergagarria / Base imponible | | Kuota / Cuota |
|---|---|---|---|
| 17 | 17.948.- | 18 | 2.971,68.- |
| 19 | | 20 | |
| 21 | | 22 | |
| | | 23 | |
| | | 24 | |

TOTAL A DEDUCIR: 18 + 20 + 22 + 23 + 24 → 25

DIFERENTZIA / DIFERENCIA: 16 − 25 → 26

EMAITZA / RESULTADO (26 − 29): 35 — 6.152,32.-

**BEZren AITORPENA**

3. hiruhilekoa


Balio Erantsiaren gaineko Zerga
Impuesto sobre el Valor Añadido
Hiruhilabeteko aitorpena
Declaración trimestral

300

3.º

| Oinarri zergagarria / Base imponible | Kuota / Cuota |
|---|---|
| 43.800.- | 7.008.- |
| 21.386.- | 3.421,76.- |

EMAITZA / RESULTADO: 3.586,24.-

Laugarren hiru hilerokoari dagokion aitorpenaren adibidea (Erregimen Orokorra). Inprimaki berean, alde batetik, laugarren hiru hilerokoaren ordainketa zehazten da, eta, bestetik, urteko laburpena egiten.

Erne: inprimakiaren bigarren orrian faktura guztiak sailkatzen dira tasa-motaren arabera (%16, %7, %4). Adibide honetan denek tributatzen dute %16.

## BEZren AITORPENA

Urteko likidazioa / lehenengo orria

**Gipuzkoako Foru Aldundia** / **Diputación Foral de Gipuzkoa**

Ogasun eta Finantza Departamentua / Departamento de Hacienda y Finanzas

Balio Erantsiaren gaineko Zerga / Impuesto sobre el Valor Añadido

**Urteko aitorpen-likidazioa / Declaración-liquidación anual**

**390**

Ekitaldia / Ejercicio: 4.º — Epealdia / Período: URTEKO AZKENA / ULTIMO ANUAL

**Zergaduna / Obligado Tributario**

NA / IFK – D.N.I. / C.I.F. | Izen-deiturak eta Sozietatearen izena – Apellidos, Nombre y Razón Social | Anagrama – Anagrama

Helbidea: Kale edo Enparantza – Domicilio: Calle o Plaza | Zenbakia – Número | Letra – Letra | Eskailera – Escalera | Solairua – Piso | Aldea – Mano | Telefonoa – Teléfono

Udalerria – Municipio | Post. Kodea – Cód. Postal | Gakoa – Clave | Probintzia – Provincia | Gakoa – Clave

IHARDUERARIK GABE / SIN ACTIVIDAD [01] — ENPRESA HANDIA / GRAN EMPRESA — ESPORTATZAILEEN ERREGISTROA / REGISTRO DE EXPORTADORES

**URTEKO LIKIDAZIOA / LIQUIDACION ANUAL**

*Sortutako BEZa / I.V.A. devengado*

| | | Urteko oinarri zergagarria / Base imponible anual | Tasa/Tipo | | Urteko kuota / Cuota anual |
|---|---|---|---|---|---|
| Erregimen Orokorra / Régimen General | 02 | 212.000.- | 16 % | 03 | 33.920.- |
| | 04 | | 7 % | 05 | |
| | 06 | | 4 % | 07 | |
| Oinarri eta kuotak aldatzea / Modificación bases y cuotas | 08 | | | 09 | |
| Baliokidetza Gainkargua / Recargo de Equivalencia | 10 | | 4 % | 11 | |
| | 12 | | 1 % | 13 | |
| | 14 | | 0,5 % | 15 | |
| Baliokidetza Gainkargua aldatzea / Modificación Recargo de Equivalencia | 16 | | | 17 | |
| Elkarte barneko ondasun-eskurapenak / Adquisiciones intracomunitarias | 18 | | | 19 | |
| URTEAN SORTUTAKO KUOTA GUZTIRA / TOTAL CUOTA DEVENGADA ANUAL | 03+05+07+09+11+13+15+17+19 | | | 20 | |

*BEZ kengarria / I.V.A. deducible*

| | | Urteko oinarri zergagarria / Base imponible anual | | Urteko kuota kengarria / Cuota deducible anual |
|---|---|---|---|---|
| Barne-eragiketen BEZ kengarria / I.V.A. deducible operaciones interiores | 21 | 86.755.- | 22 | 13.880,80.- |
| Inportazioetako BEZ kengarria / I.V.A. deducible importaciones | 23 | | 24 | |
| Elkarte barneko ondasun-eskurapenen BEZ kengarria / I.V.A. deducible adquisiciones intracomunitarias | 25 | | 26 | |
| Nekazaritza, Abeltzantza eta Arrantzaren Erregimen bereziko konpentsazioak / Compensaciones Régimen Especial Agricultura, Ganadería y Pesca | | | 27 | |
| Kenkarien zuzenketa / Rectificación de deducciones | | | 27.1 | |
| Inbertsioen Erregularizazioa / Regularización de Inversiones | | | 28 | |
| URTEKO KUOTA KENGARRIA GUZTIRA / TOTAL CUOTA DEDUCIBLE ANUAL | 22+24+26+27+27.1+28 | | 29 | |
| URTEKO ALDEA / DIFERENCIA ANUAL | 20−29 | | 30 | 20.039,20.- |

**ERREGULARIZAZIOA / REGULARIZACION**

| Administrazio eskuduna lurraldearen arabera / Administración competente por razón del territorio | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoa | 31 | Gipuzkoako Lurralde Historikoari egotz dakizkeen kuota / Cuota atribuible al Territorio Histórico de Gipuzkoa | 36 | 20.039,20.- |
| Araba/Alava | 32 | Aurreko urtetik konpentsatu beharreko kuotak / Cuotas a compensar del año anterior | 37 | |
| Bizkaia | 33 | Ekitaldi honetan zehar egindako SARRERAK guztira / Total INGRESOS efectuados durante el presente ejercicio | 38 | 15.353,22.- |
| Nafarroa/Navarra | 34 | | | |
| Estatua/Estado | 35 | Ekitaldi honetan zehar egindako ITZULKETAK guztira / Total DEVOLUCIONES practicadas durante el presente ejercicio | 39 | |
| Guztira/Total | | | | |

**EMAITZA / RESULTADO**

URTEKO EMAITZA / RESULTADO ANUAL: 36−37−38+39 → 40

| SARTU BEHARREKO EMAITZA / A INGRESAR | KONPENTSATU BEHARREKO EMAITZA / A COMPENSAR | ITZULI BEHARREKO EMAITZA / A DEVOLVER |
|---|---|---|
| 41: 4.685,98.- | 42: | 43: |

Data / Fecha — Sinadura eta Zigilua / Firma y Sello

Ordainketaren Egiaztagiria / Justificante de Ingreso — Ordainketa-Gutuna / Carta de Pago

Zigilua eta Sinadura / Sello y Firma — Erakundearen Gakoa / Clave Entidad — Data / Fecha — Zenbatekoa / Importe

Administrazioarentzako Alea / Ejemplar para la Administración

**URTE OSOA** – Oinarri ezargarria (egindako fakturak)

**URTE OSOA** – Jasanarazitako BEZ (kobratutakoa)

**URTE OSOA** – Oinarri ezargarria (jasotako fakturak)

**URTE OSOA** – Jasandako BEZ (ordaindutakoa)

**URTE OSOA** – Aldea

**1., 2. ETA 3. HIRUHILEKO ORDAINKETAK**

**4. HIRUHILEKO ORDAINKETA**

## BEZren AITORPENA

Urteko likidazioa / 2. Orria



**Galdera:**

Jasandako BEZ eta ordaindutako BEZ gauza "bera" al dira?

**Erantzuna:**

Ez dira gauza "bera"; azken batean, hitz egiteko moduak dira, denok elkarri ulertzeko (kontuan hartu esku artean duzun liburu hau ez dela adituentzako eskuliburu bat, dibulgaziozko argitalpen bat baizik). Saia gaitezen kontua apur bat argitzen. Demagun abenduaren 31n jasotzen duzula faktura bat (BEZ duena), eta handik 30 egunera ordaintzen duzula. Kasu horretan, fakturaren egunean "jasaten duzu" BEZ (abenduaren 31n); esan nahi baita aurreko urteko laugarren hiru hilerokoan deduzitu dezakezula BEZ, nahiz eta faktura hurrengo hilean ordaindu. Gauza bera gertatzen da jasanarazitako (kobratutako) BEZekin.

Laburbilduz: jasandako BEZ jasotako fakturei dagokiena da, eta jasanarazitakoa guk egindakoei dagokiena. Faktura horiek ordaintzen edo kobratzen diren, eta noiz ordaintzen eta kobratzen diren beste kontu bat da.

## 5.8 ERREGIMEN OROKORRA ETA ERREGIMEN ERRAZTUA

Erregimen Orokorrean, jasandako (ordaindutako) BEZ hau da: jasotako fakturetan agertzen dena; eta jasanarazitakoa (kobratutakoa), guk egin ditugun fakturetakoa. Nolanahi ere, Erregimen Erraztuan jasanarazitako (kobratutako) BEZen estimazio bat egiten da zenbait parametroren arabera; badu nolabaiteko antzik, beraz, Moduluen Sistemarekin (PFEZ). Jarduera guztiek ezin dute Erregimen Erraztua ezarri: liburu honen I. eranskinean jasotakoek baino ez dute horretarako eskubidea (107. or.).

**Adibidez:**

Gogora dezagun berriro ere 47 orrialdeko garraiolariaren datuak:

- Urteko fakturazioa — 212.000 euro
- Erosketarik ez
- Langile-gastuak
  - Soldatak — 52.500 euro
  - Gizarte Segurantza — 23.000 euro
- Garajea: zurea
- Konponketak — 20.000 euro
- Profesionalen zerbitzuak (aholkularitza, abokatuak...) — 1.000 euro
- Bestelako zerbitzuak (gasolioa, aseguruak, telefonoa, ura, argia) — 61.000 euro
- Zerga kengarriak (JEZ) — 1.600 euro
- Finantza-gastuak (maileguen interesak, letra eta zor-agirien negoziaketa-gastuak) — 6.000 euro
- Amortizazio kengarriak[21] — 11.000 euro
- Mantenu-gastuak (bazkari-gastuak zurea ez den herrietan)[22] — 7.000 euro
- Beste gastu kengarri batzuk (publizitatea, bulegoko materiala...) — 10.000 euro

Demagun datu berak agertzen direla jasotako eta egindako fakturen erregistro-liburuetan, eta 47 orrialdean. Hori horrela balitz, hauxe litzateke bi erregimenen urteko laburpenak:

| | Erregimen Orokorra | Erregimen Erraztua |
|---|---|---|
| **Jasandako (ordaindutako) BEZ** | 13.881 € | 13.881 € |
| **Jasanarazitako (kobratutako) BEZ** | 33.920 € | 19.216 € |

## 5.9 NEKAZARITZAREN, ABELTZAINTZAREN ETA ARRANTZAREN ERREGIMEN BEREZIA

Erregimen Berezi hau erabili ahal izateko baldintza hauek bete behar dira:

- Nekazaritzan, abeltzaintzan, arrantzan eta baso-ustiapenean jarduten duen pertsona fisikoa izan behar duzu (kanpoan geratzen dira itsas arrantza eta abeltzaintza independentea).
- Zure eragiketa-kopurua ezin izan daiteke 300.506,05 eurokoa baino handiagoa, ez eta 450.759,07 eurokoa baino handiagoa, zure jarduera guztiak kontuan hartuta.
- Aldez aurretik ezin diozu berariaz uko egin erregimen honi.
- Abereei jaten emandakotik % 50 baino gehiago baserriak berak ekoiztu behar du.

Behin Erregimen Berezian sartuta:

- Ez duzu zertan jasanarazi (kobratu) BEZ.
- Ezin duzu deduzitu erosketetan ordaindutako BEZ; beraz, ez diozu zertan ordaindu Foru Aldundiari.

---

[21] Taulak, kamioi eta garajeagatik (7/1996 Foru Arauaren 11. artikulua: Ikus I. eranskina, 104. orria).

[22] Ezin dute gainditu diru-sarreren eta gastuen arteko diferentziaren %28.

- Egindako salmenten %5eko konpentsazioa kobratzeko eskubidea daukazu (bezeroek ordaindu behar dizute).

## 5.10 BALIOKIDETASUN-ERREKARGUKO ERREGIMENA

Erregimen hau erabili behar dute ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten **merkatari guztiek:**

1º Pertsona fisikoa behar izan da. Sozietateek (mugatuek, anonimoek) ezin dute Erregimen hau ezarri, pertsona juridikoak direlako.

2º **Txikizkako** merkataria behar da izan; hau da, txikizkako sal-erosketan aritu, ondasunen edo produktuen transformazioan edo elaborazioan parte hartu gabe (adibidez, bonbillak erosi eta bonbilla horiek saldu), eta beti ere azken kontsumitzaileei salduz (salmenten %80, gutxienez).

Behin Erregimen honetan sartuta:

- Bezeroei BEZ kobratzen jarraitu behar duzu.
- Ez duzu zertan BEZ ordaindu Foru Aldundiari.
- Horren ordez, baliokidetasun-errekargu bat ezarri behar diezu hornitzaileei.

| Tasa orokorra | Baliokidetasun-errekargua |
|---|---|
| %16 | %4 |
| %7 | %1 |
| %4 | %0,5 |

**Adibidea:**

Txikizkako merkatari bat zara eta supermerkatu bat daukazu. 100 bonbilla erosi dizkiozu handikari bati (edo zuzenean, fabrikatzaileari) 2na eurotan. Hauxe litzateke zure hornitzaileek egingo lizuketen faktura:

- Oinarri ezargarria = 100 x 2 = 200 €
  - BEZ (%16) = 32 €
  - Baliokidetasun-errekargua (oinarri ezargarriaren %4) = 8 €

**BEZ, guztira 40 €**

**LABURBILDUZ:**

Txikizkariak (pertsona fisikoa) BEZ ordaintzen dio bere hornitzaileari baliokidetasun-errekarguaz, eta BEZ kobratzen dio bere bezeroari errekargurik gabe. Ondorioa: transformaziorik gabeko (ezinbesteko baldintza) produktu baten fakturen bidez ordaindu eta kobratu egiten du BEZ; beraz, ez dio ordainketarik egin behar Foru Aldundiari.

Erne: Zure bezeroentzako faktura bakoitzeko BEZ-tasak ezartzerakoan (%16, %7, %4), balio duena ez da jardueraren epigrafea, bezeroari kobratu diozun eragiketa, zerbitzua edo salmenta baizik.

**Galdera:**

Baserritarra naiz eta eraiki ezineko lur-sail bat dut (BEZtik salbuetsia), pinudi batekin. Lurra, pinudi eta guzti, saltzen badut, BEZ zerga ordaindu behar dut?

**Erantzuna:**

Ez, lurra eta pinudia bat eginda hartzen direlako.

# 6. Ikuskatu daitezkeen beste dokumentu batzuk

Gipuzkoako Foru Aldundiko ikuskariak, zure jarduerari dagozkion kontabilitateko liburuez gain, ondorengo hauek ere eskatu ahal dizkizu, langile autonomoa zaren aldetik:

- **Bisita-liburua**
  Funtsean, akta-liburu bat da, eta hor ikuskariaren bisitaldian gertatutakoak jasotzen dira.
- **Erreklamazio-orriak**
  Orriotan bezeroek idatzi ditzakete izan ditzaten beren kexak.
- **Prezioen zerrenda**
  Bezeroek badute eskubidea eskaintzen dizkiezun produktuen edo zerbitzuen prezioak ezagutzeko. Hori horrela ez bada, hau da, prezioen berri ematen ez badiezu, beren kexak adierazi ditzakete erreklamazio-orrietan.

Erne: Edari alkoholdunak egiten badituzu eta Zerga Berezien Erregistroan alta emanda bazaude (CAE txartela), PFEZ eta BEZ kalkulatzeko kontabilitateaz gain, zure izakinen kontabilitatea ere eraman behar duzu (kiloka eta litroka). Adibidez, zenbat kilo sagar erosi dituzun, horiekin zenbat litro zuku egin dituzun eta horietatik zenbat saldu. Eragiketa horien guztien aitorpena 553 inprimakian egin behar duzu.

# 7. Fakturak

7.1. Fakturetan jaso beharreko datuak
7.2. Baleek jaso beharreko datuak

## FAKTURAK[23]

Oro har, enpresariek eta profesionalek beren eragiketa guztien fakturak egin behar dituzte, eta gero, gorde faktura horien kopiak edo matrizeak, baita BEZek autokonsumotzat jotzen dituen eragiketa horiena ere. Nolanahi ere, hilabete baten barruan bezero berarentzat egindako eragiketa guztiak faktura bakarrean sartu daitezke dira.

**Galdera:**

Autonomoa naiz eta Moduluen Sistema erabiliz egiten dut aitorpena. Fakturak egin behar ditut?

**Erantzuna:**

Bai.

## 7.1 FAKTURETAN JASO BEHARREKO DATUAK

- Fakturek hurrenkera korrelatiboan egon behar dute zenbatuta. Fakturazio-toki bat baino gehiago dagoenean erabiliko seriea.
- Honako datuok izan behar ditu fakturak (egilearenak zein hartzailearenak)[24]:
  - Izena eta bi abizen.
  - ENA (edo IFZ).
  - Helbidea.
- Kontzeptuaren berri eman behar du (zer dela-eta egin den faktura azaldu).
- BEZek xehatuta joan behar du, eta ezarritako BEZ-tasa adierazita. Faktura berean tasa ezberdineko ondasunak edo zerbitzuak jasotzen badira, ondasun edo zerbitzu bakoitzari dagokion BEZ zein den adieraziko da. Ondasun edo zerbitzu horien prezioaren barruan BEZ sartuta badago, nahikoa da portzentajea jasotzea edo, bestela, honako hau: “BEZ barne”, horretarako baimena baldin badaukazu.
- Data eta lekua.
- BEZen Erregimen Berezian sartuta dauden erabilitako ondasunak, arte eta antzinako gauzak, eta bildumagaiak fakturatzen badituzu, adierazi egin behar duzu fakturan bertan.

[23] Apirilaren 22ko 43/1998 Foru Dekretua (ikus II. eranskina, 111. orria).

[24] Egilea da faktura egin edo bidaltzen duena, eta hartzailea, berriz, jasotzen duena.

**FAKTURA EREDUA**

Data: 2003/02/15
Lekua: Hernani
**Faktura-zenbakia: 223/03**

Egilea:
**Patxi Egiguren Azpiri**
**NAN: 15.321.233 H**
Txirrita kalea, 1
20120 Hernani (Gipuzkoa)

Hartzailea:
**Iñaki Abere Olano**
**NAN: 13.432.013 G**
Kale Nagusia, 13
20120 Hernani (Gipuzkoa)

| KONTZEPTUA | KOPURUA | PREZIOA | BEZ | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| "El caballo y su cría" liburua | 2 | 30,00 € | % 4 | 60,00 € |
| Pentsu naturala (5 Kg-ko zakua) | 5 | 20,00 € | % 7 | 100,00 € |
| *Guztira oinarri ezargarria (% 4an)* | | | | 60,00 € |
| *Guztira oinarri ezargarria (% 7an)* | | | | 100,00 € |
| *Guztira BEZ (% 4an)* | | | | 2,40 € |
| *Guztira BEZ (% 7an)* | | | | 7,00 € |
| **GUZTIRA FAKTURA** | | | | **169,40** € |

Erne: Fakturan, gutxienez, esandako datu horiek guztiak agertu behar dira. Kasu bereziak eranskinean jasota daude, 43 /1998 Foru Dekretuari jarraiki (II. eranskina, 111. orria).

## 7.2 BALEEK JASO BEHARREKO DATUAK

Zenbait eragiketan, fakturen ordez, bale-taloitegiak edo tiketak (makinen kasuan) erabil daitezke; horretarako, baldintza batzuk bete behar dira. Bale eta tiket horiek:

- Hurrenkera korrelatiboan egon behar dute zenbatuta.
- Egilearen IFZ eraman behar dute.
- Ezarritako BEZ portzentajea eraman behar dute, edo, bestela, adierazpen hau: "BEZ barne".
- Kopuru osoa izango dute jasota.

Bale horien matrizeak eta tiketen erroiluak gorde behar dira (aurreko datu horiek guztiak sartuta).

Fakturazio telematikoaren sistema erabili nahi baduzu (Interneten bidez), a la Gipuzkoako foru Aldundiari eskatu behar diozu, hain zuzen ere, Ogasun eta Finantza Departamenduari.

Fakturen kopiak, gutxienez, lau urtez gorde behar dira, ikertzeko moduan egon daitezen.

Ezin da bidali original bat baino gehiago, ez bada gertatzen hartzaile bat baino gehiago dagoela. Kasu horretan kopia bat egin ahal duzu, “kopia” hitza bertan jarrita.

Ezin duzu fakturarik egin, bezeroarekin itundutakoa aldatzeko bada edo agiri publiko batean jasotakoarekin bat ez badator (adibidez, etxebizitza baten jabetzako eskritura).

Erne: Gogoan izan fakturak “Debengo printzipioarekin” funtzionatzen dutela. Adibidez, faktura 2002ko abenduan egin baduzu, eta hurrengo urtean kobratu, 2002ko errentaren aitorpenean sartu behar duzu. Beste hainbeste gertatzen da BEZ zergaren likidazioetan. Hau da, gerta daiteke zuk zeure fakturaren BEZ ordaintzea faktura hori kobratu baino lehen. Adibidez: faktura martxoan egin baduzu eta maiatzean kobratu (BEZren likidazioa tartean, hots, apirilean, egin beharko baituzu).

Ez ezazula ahaztu: liburu hau gaian sartzeko baizik ez da. Horregatik, gutxienez jakin beharreko hori jaso da, batik bat. Informazio gehiago nahi baduzu, begiratu araudia (II. eranskinean adierazten dena, batez ere), edo eskatu profesionalen (publiko nahiz pribatuen) laguntza.

# I. ERANSKINA

## DATU ZEHATZAK

### TRIBUTAZIO-MODALITATEAK

#### I) Moduluen sistema aplika dakiekeen ekonomi jarduerak, EJZn dagokien epigrafea eta magnitudeak (68/2001 Foru Dekretua, PFEZren erregelamendua: 35. artikulua):

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea jarraian zerrendatzen diren jarduerei edo jarduera sektoreei aplikatuko zaie, beti ere horietako bakoitzerako ezartzen diren kopuruak gainditzen ez badira:

| Taldea edo epigrafea (EJZ) | Jarduera ekonomikoa | Magnitudea |
|---|---|---|
| 0 Saila | Abeltzaintza independientea.<br>Abereak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzua.<br>Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezitik kanpo dauden nekazari eta abeltzainek eginiko beste zerbitzu eta lan osagarri batzuk.<br>Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezian sar daitekeen nekazaritza edo abeltzaintza jarduera. | 10 langile |
| – | Baxurako arrantza. | — |
| 468. 5 | Altzarigintzari lotutako jarduerak (akabera, bernizadura, tapizaketa, urreztaketa, etabar). | 5 langile |
| 501.3 | Igeltsaritza eta eraikuntza orokorreko lan txikiak. | 8 langile |
| 504.2 | Iturgintza lanak egitea. | 5 langile |
| 504.5 y 7 | Era guztietako sukaldeak, osagarriak barne, muntatu eta instalatzea, industriarena ez beste erabileretarako. Edozein motatako eraikinetan telefonoa, telegrafoa, haririk gabeko telegrafoa eta telebista instalatzea. | 4 langile |
| 505.1, 2, 3 y 4 | Estaldurak eta zoladurak egitea eta isoladurak jartzea. | 5 langile |
| 505.5 | Zurgintza eta sarrailgintza. | 5 langile |
| 505.6 | Eraikin eta lokaletan edozein motatako pintura lanak eta paper, ehun edo plastikozko estaldura egitea, akabera eman eta dekoratzea. | 4 langile |
| 505.7 | Eraikin eta lokaletan igeltsu nahiz eskaiolazko lanak egitea eta dekoratzea. | 4 langile |
| 647.1 | Txikizka saltzea edozein motatako janari eta edariak establezimendu saltzailedunetan. | 3 langile |
| 647.2 | Txikizka saltzea autozerbitzu erregimenean edo erregimen mistoan edozein motatako janari eta edariak, 120 metro karratuko azalera baino gutxiagoko saltokia duten establezimenduetan. | 3 langile |
| 662.2 | Txikizka saltzea edozein motatako artikuluak, janari eta edariak barne, 661 taldean eta 662.1 epigrafean zehaztu ez diren establezimenduetan. | 3 langile |
| 663.1 | Txikizka saltzea merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo, elikagaiak, edari eta izozkiak barne. | 2 langile |

| Taldea edo epigrafea (EJZ) | Jarduera ekonomikoa | Magnitudea |
|---|---|---|
| 663.2 | Txikizka saltzea merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo, ehun eta jantzi gaiak. | 2 langile |
| 663.3 | Txikizka saltzea merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo, oinetakoak, larruak eta larrugaiak. | 2 langile |
| 663.4 | Txikizka saltzea establezimendu finko batetik kanpo, drogeria, kosmetika eta, oro har, kimikazko produktuak. | 2 langile |
| 663.9 | Txikizka saltzea merkataritzako establezimendu finko batetik kanpo, beste edozein motatako merkatalgaiak, beste inon sailkatu gabeak, salbu salgai jartzen diren artikulu edo produktuei Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baliokidetasun errekarguaren erregimen berezia aplikagarri ez bazaie. | 2 langile |
| 671.4 | Bi sardeskako jatetxeak. | 10 langile |
| 671.5 | Sardeska bakarreko jatetxeak. | 10 langile |
| 672.1, 2 y 3 | Kafetegiak. | 8 langile |
| 673.1 | Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak. | 8 langile |
| 673.2 | Bestelako kafetegi eta tabernak. | 8 langile |
| 675 | Kiosko, barraka eta antzeko lokalak. | 3 langile |
| 676 | Txokolate, izozki eta hortxata dendak. | 3 langile |
| 681 | Izar bat edo biko hotel eta moteletan ostatu ematea. | 15 langile |
| 682 | Hostal eta pentsioetan ostatu ematea. | 12 langile |
| 683 | Arroztegi eta apopilo etxeetan ostatu ematea eta zerbitzu berbera eskaintzea landa turismoko ostatuetan hauek nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzaren jarduera osagarri ez direnean. | 12 langile |
| 691.1 | Etxeko elektragailuak konpontzea | 3 langile |
| 691.2 | Ibilgailu automobil, txirringa eta bestelako ibilgailuak konpontzea. | 6 langile |
| 691.9 | Oinetakoak konpontzea. | 2 langile |
| 691.9 | Bestelako kontsumo gaiak, beste inon sailkatu gabeak, konpontzea (oinetakoen konponketa eta artelanen, altzarien, zaharkinen eta musika tresnen zaharberrikuntza izan ezik). | 2 langile |
| 721.3 | Bidaiarien errepide bidezko garraioa. | 5 ibilgailu edozein egunetan |
| 721.2 | Autotaxi bidezko garraioa. | 3 ibilgailu edozein egunetan |
| 751.5 | Ibilgailuak koipeztatu eta garbitzea. | 6 langile |
| 757 | Mudantza zerbitzua. | 5 ibilgailu edozein egunetan |
| 933.9 | Irakaskuntzarekin zer ikusia duten bestelako jarduerak burutzea, hala nola hizkuntzak, jostungintza, mekanografia eta takigrafia irakastea, edo azterketak, oposaketak eta horien antzeko beste batzuk, beste inon sailkatu gabeak, prestatzen laguntzea. | 5 langile |
| 967.2 | Kirol hobekuntzarako eskolak eta zerbitzuak. | 3 langile |
| 971.1 | Janzkiak, arropak eta etxeko artikulu erabiliak tintatu, lehorrean garbitu, ikuzi eta lisatzea. | 5 langile |
| 972.1 | Emakumezko eta gizonezkoen ileapaiçnketa zerbitzuak. | 9 langile |
| 972.2 | Apaindura areto eta institutuak. | 7 langile |
| 973.3 | Dokumentuak fotokopiagailuz kopiatzeko zerbitzuak. | 5 langile |

## II) Soldatapekoa ez den langile bezala 0,5ean konputatzeko baldintzak:

Ezkontidea edo adin txikiko seme-alabak soldatapeko langile ez direnean, 100eko 50ean konputatuko dira, baldin eta jarduueraren titularra bere osoan konputatzen bada (**1. baldintza**) eta soldatapeko langilerik ez badago (**2. baldintza**).

## III) Indize zuzentzaileak (beste jarduera batzuk):

Indize zuzentzaileak, espreski ezarrita dituzten jarduueretan baino ez dira aplikatuko, eta beti dagokion araudian (29/2003 Foru Agindua, PFEZren zenbatespen objetiboko metodoari aplikatzeko zeinu, indize edo moduluak) adierazten diren baldintzak, zenbatekoa, hurrenkera eta bateraezintasuna kontuan izanik.

*1.- Indize zuzentzaile bereziak*

a) **Autotaxi bidezko garraioa➤** jarduera gauzatzen den udalerriko biztanle-kopuruaren arabera:

| Udalerriko biztanleak | Indizea |
|---|---|
| **10.000 biztanleraino** | 0,85 |
| **10.000 baino gehiago eta 100.000 baino gutxiago** | 0,90 |
| **100.000 biztanle edo gehiago** | 1,00 |

Jarduera bat udalerri desberdinetan egiten bada eta horrek indize bat baino gehiago aplikatzeko aukera ematen badu, biztanle gehiago dituen udalerriari dagokiona bakarrik aplikatuko da.

b) **Bidaiarien errepidezko garraioa**: 0,80 indizea aplikatuko da titularrak ibilgailu bakar bat duenean.

c) **Mudantza zerbitzuen jarduera**: 0,80 indizea aplikatuko da titularrak ibilgailu bakar bat duenean eta jardueran soldatapeko langilerik ez dagoenean.

*2.- Indize zuzentzaile orokorra*

Ondoren zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituzten jarduerak:

– Titularra pertsona fisikoa izatea.
– Soldatapeko langilerik ez edukitzea.
– Jarduera lokal bakar batean egitea.
– Jarduerari ibilgailu bat bakarrik egotea atxikita eta honek 1.000 kilogramoko edukiera karga ez gainditzea.

Jarduera gauzatzen den udalerriko biztanle-kopuruaren arabera aplikatuko da indize hau. Jarduera bat udalerri desberdinetan egiten bada eta horrek indize bat baino gehiago aplikatzeko aukera ematen badu, biztanle gehiago dituen udalerriari dagokiona bakarrik aplikatuko da:

| Udalerriko biztanleak | Indizea |
|---|---|
| **2.000 biztanleraino** | 0,70 |
| **2.000 biztante baino gehiago eta 5.000 baino gutxigo** | 0,75 |
| **5000 biztanle baino gehiago** | 0,80 |

*3.- Denboraldiko indize zuzentzailea*:

| Denboraldiaren iraupena | Indizea |
|---|---|
| **60 egun bitartean** | 1,50 |
| **61 eta 120 egun bitartean** | 1,35 |
| **121 eta 180 egun bitartean** | 1,25 |

Normalean urteko egun jakin batzuetan, jarraitu nahiz txandakatuetan, burutzen diren jarduerak hartuko dira denboraldiko jardueratzat, beti ere, egun horien urteko kopuru osoa 180tik gorakoa ez bada.

*4.- Soberakinaren indize zuzentzailea.*

Hurrengo jardueren etekin garbiak jarraian adierazten diren zenbatekoak gainditzen dituenean, horien gaineko soberakinari 1,30 indize zuzentzailea aplikatuko zaio.

| Ekonomi jarduera | Zenbatekoa (€) |
|---|---|
| Egurrezko altzarigintza. Altzarigintzari lotutako jarduerak (akabera, bernizadura, tapizaketa, urreztaketa, etab.). | 31.102,66 |
| Igeltsaritza eta eraikuntza lan txikiak oro har | 33.782,42 |
| Iturgintza-instalazioak. | 35.102,41 |
| Edozein motatako sukaldeak, osagarriak barne, muntatu eta instalatzea. Edozein motatako eraikinetan telefonoa, telegrafoa, haririk gabeko telegrafoa eta telebista instalatzea. | 42.126,87 |
| Estaldurak eta zoladurak egitea eta isoladurak jartzea. | 31.633,30 |
| Zurgintza eta zerrailgintza. | 29.862,26 |

| Ekonomi jarduera | Zenbatekoa (€) |
| --- | --- |
| Eraikin eta lokaletan pintura, igeltsu nahiz eskaiolazko lanak egitea, akabera eman eta dekoratzea. | 28.104,49 |
| Saltzailedun establezimenduetan edozein motatako janari eta edariak txikizka saltzea. | 16.191,42 |
| 120 metro karratuko azalera baino gutxiagoko saltokia duten establezimenduetan autozerbitzu erregimenean edo erregimen mistoan edozein motatako janari eta edariak txikizka saltzea. | 26.558,97 |
| 661 taldean eta 662.1 epigrafean zehaztu ez diren establezimenduetan edozein motatako artikuluak, janariak eta edariak barne, txikizka saltzea. | 17.265,99 |
| Merkatal establezimendu finko batetik kanpo janariak txikizka saltzea, edari eta izozkiak barne. | 15.143,39 |
| Merkatal establezimendu finko batetik kanpo ehun eta jantzi gaiak txikizka saltzea. | 20.071,78 |
| Merkatal establezimendu finko batetik kanpo oinetakoak, larruak eta larrugaiak txikizka saltzea. | 17.988,99 |
| Merkatal establezimendu finko batetik kanpo drogeria, kosmetika eta, oro har, kimikazko produktuak txikizka saltzea. | 17.783,36 |
| Merkatal establezimendu finko batetik kanpo beste edozein motatako merkatalgaiak, beste inon sailkatu gabeak, txikizka saltzea. | 19.328,88 |
| Bi sardeskako jatetxeak. | 54.358,32 |
| Sardeska bakarreko jatetxeak. | 39.340,96 |
| Kafetegiak. | 33.795,69 |
| Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak | 32.210,38 |
| Bestelako kafetegi eta tabernak. | 19.574,30 |
| Kiosko, barraka eta antzeko lokalak. | 17.478,24 |
| Txokolate, izozki eta hortxata dendak. | 26.751,34 |
| Izar bat edo biko hotel eta moteletan ostatu ematea. | 57.555,48 |
| Hostal eta pentsioetan ostatu ematea. | 33.092,58 |
| Arroztegi eta apopiloetxeetan ostatu ematea. | 16.801,67 |
| Etxeko elektragailuak konpontzea. | 22.731,66 |
| Ibilgailu automobilak, txirringak eta bestelako ibilgailuak konpontzea. | 35.520,29 |
| Oinetakoak konpontzea. | 17.431,81 |
| Bestelako kontsumo gaiak, beste inon sailkatu gabeak (oinetakoen konponketa eta artelanen, altzarien, zaharkinen eta musika tresnen zaharberriketa izan ezik) konpontzea. | 26.121,18 |
| Bidaiarien errepidezko garraioa. | 37.065,81 |
| Ibilgailuak koipeztatu eta garbitzea. | 24.151,15 |
| Mudantza zerbitzua. | 35.427,43 |
| Irakaskuntzarekin zer ikusia duten bestelako jarduerak burutzea, hala nola, hizkuntzak, jostungintza, mekanografia eta takigrafia irakas-tea, edo azterketak, oposaketak eta horien antzeko beste batzuk, beste inon sailkatu gabeak, prestatzen laguntzea. | 35.487,14 |
| Kirol hobekuntzarako eskolak eta zerbitzuak. | 39.035,84 |
| Janzkiak, arropak eta etxeko artikulu erabiliak tintatu, lehorrean garbitu, ikuzi eta lisatzea. | 39.201,68 |
| Emakumezko eta gizonezkoen ileapainketa zerbitzuak. | 18.453,31 |
| Edertasun areto eta institutoak. | 28.376,43 |
| Dokumentuak fotokopiagailuz kopiatzeko zerbitzuak. | 24.117,98 |

5.- *Hurrenkera eta bateraezintasuna*

- Aipatu indize zuzentzaileak azaldu diren hurrenkeran aplikatuko dira.
- Indize zuzentzaile orokorra ezingo zaie aplikatu autotaxi bidezko garraioari, bidaiarien errepidezko garraioari eta mudantza-zerbitzuen jarduerari.
- Indize zuzentzaile orokor bat aplikagarri gertatzen denean, ezingo da erabili soberakinaren indize zuzentzailea.

## IV) Kenkariak (7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena: 37-47 artikuluak):

1.- Kenkaria aktibo finko material berrietan inbertitzeagatik (37. artikulua.) ➤ Zer ez da berria kenkari hau aplikatzerakoan? Aktibo finko bat berria ez dela ulertuko da aldez aurretik beste pertsona edo entitate batek erabili badu, hau da, bere ibilgetuan sartu badu edo, Kontabilitate Plan Orokorrari jarraiki, hala sartuta egon behar izan badu, funtzionatzen hasi ez bada ere.

2.- Kenkaria informazio eta komunikazioaren teknologiak sustatzeko (37bis artikulua).

3.- Kenkaria, kultur onurako ondasunetan, zinemagintzan edo ikusentzunezkoetan eta liburugintzan inbertitzeagatik (38. artikulua.).

4.- Enpresen finantzaketa sustatzeko kenkariak (39 eta 40 artikuluak).

5.- Zenbait jarduera sustatzeko kenkariak:

- Ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak (41 artikulua)
- Ingurumena zaindu eta hobetzeko jarduerak (42 artikulua).
- Esportazioak (43 artikulua).
- Lanbide heziketako gastuak (44 artikulua) ➤ Lanbide heziketatzat hartuko da enpresa batek zuzenean edo hirugarrenen bitartez garatutako prestakuntza osoa, bere langileak eguneratu, trebatu edo erreziklatzera zuzendua bada eta haien iharduerak edo lanpostuen beharrak exigitua bada. Inola ere ez dira lanbide heziketako gastutzat hartuko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 8/1998 Foru Arauak jasotakoaren arabera, lan pertsonaleko etekin moduan kalifikatutakoak.
- Enpresarien kontribuzioak, enpresen gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten diren enpleguko pentsio planei, gizarte aurreikuspeneko mutualitateei edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateei dagokienez (44 bis artikulua).
- Enplegua sortzea (45 artikulua).

## V) Zerga-erregimen bereziak (7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena: 48-50 artikuluak):

- Enpresa txiki eta ertainak (49. artikulua)
- Ibilgetu material berria amortizatzea (50. artikulua)

## ERRENTA-AITORPENA

## I) Zeinu, indize edo moduluak murriztea eta etekina gutxitzea aparteko egoerak direla eta (68/2001, Foru Dekretua, PFEZren erregelamendua: 37. artikulua – zati bat-)

1.- Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarri duten jarduera ekonomikoetan **lapurreta, sute, uholde, hondorapen edo antzeko beste egoera apartekoak gertatzen direnean** eta horiek sektore edo zona jakin batean eragiten dutenean, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak **zeinu, indize edo moduluak murriztea** baimendu dezake salbuespen gisa.

2. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarria duten jarduera ekonomikoetan **sute, uholde, hondorapen edo ekipo industrialaren matxura handiak gertatzen direnean anormaltasun egoera larriak ekarriz** jardueraren garapenean, aipatu kalte horien ondorioz zeinu, indize edo moduluak murriztea nahi duten interesatuek idatzi bat aurkeztu beharko diote Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendari nagusiari eta bertan egoera horiek gertatu direla adierazi. Horrekin batera, egoki irizten dituzten frogak aurkeztuko dituzte eta, hala badagokio, jasandako kalteengatik jaso beharreko kalteordainen aipamena ere egingo dute (aurkezteko epea: 30 egun; murrizpena onartu edo ukatzeko epea: 2 hilabete).

3. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikagarri duten enpresa jardueretan sute, uholde, hondorapen edo antzeko beste egoera apartekoak gertatzen direnean, eta horiek jardueraren ohiko prozesuarekin zer ikusirik ez duten gastuak sorrarazten dituztenean, interesatuek gastu horien zenbatekoan gutxitu ahal izango dute ateratzen den etekin garbia. Horretarako, zergadunek idatzi bat aurkeztu beharko diote

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendari nagusiari eta bertan aparteko egoera horiek gertatu direla adierazi. Horrekin batera, egoki irizten dituzten frogak aurkeztuko dituzte eta, hala badagokio, kalteengatik jaso beharreko kalteordainen aipamena ere egingo dute (aurkezteko epea: 30 egun; Zerga Administrazioak etekinaren murrizpena eragin duen zioa benetakoa den ala ez egiaztatuko du, eta gauza bera egingo du haren zenbatekoarekin).

Zenbaki honetan jasotako gutxipena bateraezina izango da, ondare elementu berberentzat, artikulu honen 2 apartatuan jasotakoarekin.

## II) Amortizazio-taula (7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena: 11. artikulua):

| Ondarezko elementuak | Urteko gehieneko koefizientea | Gehieneko urte kopurua |
|---|---|---|
| Etxebizitza eta bulegorako eraikinak (merkataritza edota zerbitzu erabilera) | 3 | 50 |
| Industri eraikin eta pabilioiak | 5 | 30 |
| Instalazioak | 15 | 10 |
| Industri makineria | 15 | 10 |
| Beste erabilerako makineria | 10 | 15 |
| Itsasontzi eta aireontziak | 10 | 15 |
| Autobus, kamioi, furgoneta eta antzekoak | 20 | 8 |
| Turismo erako ibilgailuak | 20 | 8 |
| Moldeak, modeloak, trokelak eta matrizak | 33 | 5 |
| Lanabesak eta erramintak | 30 | 5 |
| Altzariak | 15 | 10 |
| Informatikako ekipoak | 25 | 6 |
| Alokatzeko bideo filmak | 50 | 3 |
| Zehaztu gabeko beste elementuak | 10 | 15 |

## III) Ordainketa zatikatuak (68/2001 Foru Dekretua, PFEZren erregelamendua: 118, 119 eta 120 artikuluak):

➤ *Ordainketa zatikatuak egitera behartuak (118. artikulua)*:

1. **Jarduera ekonomikoak burutzen dituzten zergadunek** hurrengo artikuluetan ezarritakotik ateratzen den diru-kopurua autolikidatu eta Foru Diruzaintzari ordaindu beharko diote Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako ordainketa gisa.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, **nekazaritza, abeltzaintza edo baso jarduerak burutzen dituzten zergadunak** ez dira jarduera horiengatik ordainketa zatikatuak egitera beharturik egongo baldin eta, aurreko urte naturalean jardueratik lortutako sarreren gutxienez 100eko 70ari atxikipena edo konturako sarreraren bat aplikatu bazaio. Diru laguntza arruntak, kapital diru laguntzak eta kalteordainak kanpoan utziko dira.

3. Aurreko 1 apartatuan ezarritakoaren kaltetan gabe, **jarduera profesionalak burutzen dituzten zergadunak** ez dira jarduera horiengatik ordainketa zatikatuak egitera beharturik egongo baldin eta, aurreko urte naturalean jardueratik lortutako sarreren gutxie-

nez 100eko 50ari atxikipen edo konturako sarreraren bat aplikatu bazaio.

4. Aurreko 2 eta 3 apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduerari hasiera ematen zaion kasuetan, ordainketa zatikatuaren epealdian atxiki edo kontura ordaindu diren sarreren portzentajea hartuko da kontuan.

➤ *Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa izaera orokorrez (119. artikulua.):*

1. Aurreko artikuluan aipatutako zergadunek ondoko diru-sarrera egingo dute, izaera orokorrez eta hiru hilabetetan behin, etekin garbia kalkulatzeko **zuzeneko zenbatespena nahiz zenbatespen objektiboa** erabiltzen duten jarduerengatik: ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago lortutako etekin enpresarial edo profesional garbiei 100eko 5a aplikatuz ateratzen den emaitza. 100eko 5 horri, hala ere, indarrean dagoen araudiaren arabera bi urte lehenago egindako atxikipenen eta konturako sarreren laurdena kenduko zaio, hala badagokio.

Etekin garbia **zeinu, indize edo moduluen** modalitatearen arabera kalkulatzen duten jarduerengatik aurreko paragrafoan ezarritakotik ateratzen denaren erdia ordainduko da, baldin eta azken aurreko urtean titularra pertsona fisikoa izan bada eta soldatapeko langilerik izan ez badu.

Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa inoiz ezingo da negatiboa izan.

2. **Zergaren Foru Arauak 83. artikuluan** (➤ Ceuta eta Melillan lortutako errentengatik kenkariak) jasotakoaren arabera kuotan kenkarirako eskubidea duten jarduera ekonomikoei dagokienez, aurreko apartatuan adierazitako portzentajea birekin zatituko da.

3. Zergadunek adierazitakoa baino portzentajea handiagoa aplikatu ahal izango dute ordainketa zatikatu bakoitzean.

4. Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatuak prozedura bat ezarri ahal izango du Administrazioak ofizioz likidatu ahal izan ditzan ordainketa zatikatuak.

➤ *Ordainketa zatikatuaren zenbatekoa zuzeneko zenbatespenean, aparteko egoerak daudenean (120. artikulua):*

1. Denboraldiko jardueretan, jarduera hasi edo aldatzen denean, ordainketa zatikatuak egin baino bi urte lehenago jarduerarik garatu ez denean edo jarduera horietatik lortutako etekin garbia positiboa izan ez denean, edota, bestela, hiruhileko batean izandako eragiketa bolumena bi urte lehenagoko hiruhileko korrelatiboan izandako bolumen osoa baino txikiagoa denean, zergadunak hiruhileko horretako eragiketa bolumenaren 100eko 2a ordaindu ahal izango du etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren arabera kalkulatzen duten jarduerengatik. Saltoki orokor, berezi nahiz barrukoetan tabako laboreak handizka zein txikizka saltzen direnean, portzentajea hori hiruhilekoan izandako salmenta edo sarrera bolumenaren 100eko 1ekoa izango da.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera ateratzen den zenbatekoari kendu beharrekoak izango dira, hala badagokio, foru dekretu honek **105**. (*jarduera ekonomikoen etekinei egin beharreko atxikipenen zenbatekoa*) eta **114**. artikuluetan (*konturako sarrerak jarduera ekonomikoen gauzen bidezko ordainketengatik*) ezarritakoari jarraiki egindako atxikipenak eta konturako sarrerak, hiruhilekoari dagozkionak.

3. Zergaren Foru Arauak 83. artikuluan jasotakoaren arabera kuotan kenkarirako eskubidea duten jarduera ekonomikoei dagokienez, aurreko apartatuan adierazitako portzentajea birekin zatituko da.

4. Zergadunek adierazitakoa baino portzentajea handiagoa aplikatu ahal izango dute ordainketa zatikatu bakoitzean.

## BEZ

### I) BEZtik salbuetsitako epigrafeak (2003. urtea)

| EPIGRAFEA | EKONOMI JARDUERA |
|---|---|
| 731.1 | Bidaiarien nazioarteko itsas garraioa |
| 741.3 | Bidaiarien airebidezko garraio nazionala (ohizko zerbitzuak) |
| 742.3 | Bidaiarien nazioarteko airebidezko garraioa (ez ohizko zerbitzuak) |
| 819.4 | Moneta-ganbioko entitateak |

| EPIGRAFEA | EKONOMI JARDUERA |
|---|---|
| 821 | Bizitza eta kapitalizaziorako aseguru-entitateak: bizitza-aseguruak (821.1), kapitalizazio-aseguruak (821.1) eta bizitza eta kapitalizazioko aseguru mistoak (821.3) |
| 822 | Gaisotasun eta zenbait arriskuren aseguru-entitateak: osasun-laguntza, gaisotasun eta ezbeharretarako aseguruak (822.1), ehorzketa-aseguruak (822.2), kalte materialen aseguruak (822.3), garraio-aseguruak (822.4), beste aseguru batzuk (822.9) |
| 823 | Bestelako aseguru-entitateak (diru-gordailuak, pentsio-kutxak...) |
| 831.3 | Banku konpentsazio zerbitzuak |
| 832.1 | Aseguru-agentziak eta aseguru-artekaritza |
| 861.1 | Etxebizitzen alokairua |
| 862 | Landa-izaerako ondasun higiezinen alokairua |
| 931.1 | Haurzaintza eta haur hezkuntz irakaskuntza, soilik |
| 931.2 | Oinarrizko Hezkuntzaren Irakaskuntza |
| 931.3 | Batxilergoa, Lanbide Heziketaren irakaskuntza |
| 931.4 | Araututako modalitate bat baino gehiagoren irakaskuntza |
| 931.5 | Maila Goreneko irakaskuntza |
| 932.1 | Lanbide-hezkuntza eta hobekuntzaren irakaskuntza, go- mailakoa ez dena |
| 932.2 | Goi mailako lanbide hezkuntza eta hobekuntzaren irakaskuntza |
| 942.1 | Mediku-kontsultak, sorospen-etxeak, eta larrialdietako klinikak |
| 969.2 | Kasino-jokuak |
| 969.3 | Bingo-jokuak |
| 969.4.2.2 | B motako jolas-makinak, makinaren jabea |
| 969.4.3.2 | C motako jolas-makinak, makinaren jabea |
| 982.1 | Baimen barruko tonbola eta errifak, establezimendu finkoetan |
| 982.2 | Tonbola eta errifa baimendunak, establezimendu finkotik apartekoak |
| 982.5 | Kirol Demak, Loteria eta baste Joku batzuk antolatzea eta egitea |
| 712 | Aseguru-agente eta artekariak |
| 713 | Lotutako aseguru-agenteak, ordezkari ez direnak |
| 745 | Kolegiatutako merkataritza-artekariak |
| 821 | Goi-mailako irakaskuntzako irakasleak |
| 822 | Irakaskuntza ertaineko irakasleak |
| 823 | Oinarrizko heziketa orokorreko eta eskolaurreko irakasleak |
| 824 | Lanbide-heziketa eta hobekuntzako irakasleak |
| 831 | Medikuntza orokorreko medikuak |
| 832 | Mediku espezialistak (estomatologoak eta odontologoak izan ezik) |
| 833 | Estomatologoak |
| 834 | Odontologoak |
| 835 | Farmazilariak |

## II) BEZren erregimen erraztua aplika dakiekeen jarduerak (Ogasun Ministerioaren 225/2003 Agindua):

Ondorengo jarduera edo jarduera-sektore hauei PFEZren zenbatespen objektiboko erregimena eta BEZren erregimen erraztua aplikatu ahal izango zaie (Ogasun Ministerioaren 225/2003 Agindua, lehena):

| Taldea edo epigrafea (EJZ) | Ekonomi jarduera |
|---|---|
| 0 Saila | Abeltzaintza independientea. |
| – | Abereak hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzua. |
| – | Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezitik kanpo dauden nekazari eta abeltzainek eginiko beste zerbitzu, jarduera eta lan osagarri batzuk. |
| – | Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza erregimen berezitik kanpo dauden baso-jardueren titularrek eginiko beste zerbitzu, jarduera eta lan osagarri batzuk. |
| – | Partzuergo erregimenean garatutako nekazaritza-jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak. |
| – | Partzuergo erregimenean garatutako baso-jardueretan lagatzaileari dagozkion aprobetxamenduak. |
| – | Produktu naturalen (landare zein animali produktuen) eraldaketa, elaborazio eta manufaktura-prozesuak, baldin eta EJZn industri jarduerei dagokien tarifan alta ematea eskatzen badute eta produktu horiek zuzenean lortzen diren ustiapenen jabeek beraiek egiten badituzte. |
| 314 eta 315 | Metalezko arotzia eta metalezko egituren fabrikazioa eta galdaragintza. |
| 316.2,3,4 eta 9 | Burdindegi eta sarrailgintzako gaien fabrikazioa, torlojogintza eta alanbretik eratorritako beste artikuluren fabrikazioa, etxerako tresnena eta beste inon sartu gabeko metalezko gaiena. |
| 419.1 | Ogi eta opilgintza. |
| 419.2 | Opilgintza, pastelgintza eta gailetagintza. |
| 419.3 | Ore frijituen elaboraziorako industria. |
| 423.9 | Patata frijituak, krispetak eta antzekoak prestatzea. |
| 453 | Edozein moetatako janzki eta bere osagarrien konfekzioa sailean, oro har hirugarren bati enkargatuta egiten denean salbu. |
| 453 | Edozein moetatako janzki eta bere osagarrien konfekzioa sailean, enpresak berak zuzenean egindakoa, soil-soilik hirugarren batentzat eta enkarguz eginten denean. |
| 463 | Eraikuntzarako zurgintza piezak, parketa eta zurezko egituren fabrikazioa sailean. |
| 468 | Zurezko altzarigintza. |
| 474.1 | Edozein prozedura edo sistema bidez egin testu edo irudien inprimaketa. |
| 501.3 | Igeltsaritza eta, orohar eraikintzako lan txikiak. |
| 504.1 | Instalazioak eta muntaiak (iturgintza, hotza, beroa eta aire-girotzea salbu). |
| 504.2 eta 3 | Iturgintza instalazioak, hozkintza, berogintza eta aire akondizionatuaren instalazioak. |
| 504.4,5,6,7 eta 8 | Tximistorratzak eta antzekoak instalatzea; edozein mota eta klasetako sutegien muntaia eta instalaketa, beren akzesorio eta guzti; edozein mota eta klasetako igogailuen muntaia eta instalaketa; instalazio telefonikoak, telegrafikoak, haririk gabeko telegrafikoak eta telebistarenak, edozein motatako eraikin |

| Taldea edo epigrafea (EJZ) | Ekonomi jarduera |
|---|---|
| | eta eraikintzetan jartzekoak; muntaia elektrikoak eta industri instalazio elektrikoak, ez makinaria ez eta instalazio edo muntaiarako elementuak saltzen edo aportatzen ez direnean. |
| 505.1,2,3 eta 4 | Errebestimentuak, zoru lausoketa eta zolaztaketak, eta isolamenduak jartzea. |
| 505.5 | Zurgintza eta zerrailgintza. |
| 505.6 | Edozein motatako pintaketa, paper, ehun edo plastikozko estaldurak, eta eraikin eta lokalen akabera eta apainketa. |
| 505.7 | Igeltsu eta eskaiolaz egindako lanak, eraikuntza eta lokalen apaindura. |
| 642.1,2 eta 3 | Urdaitegiko produktuen elaborazioa (haragien txikizkakoek). |
| 642.5 | Oilasko erreen txikizkako saltzaileak. |
| 644.1 | Ogiaren, pastelkien, gozokien eta antzekoen txikizkako salmenta, hala nola esnearen eta esnegaiena. |
| 644.2 | Ogi berezi eta opilgaien saltokiak. |
| 644.3 | Pastelgintza, opilgintza eta gozogintzako ekoizkinen txikizkako salmenta. |
| 644.6 | Estaldura edo erreilenoa duten eta ez duten masa frijituen txikizkako salmenta, patata frijituena, zizka-mizka gaiena, fruitu lehorrena, hala nola, gozokiena, txokolatezko ekoizkinena eta edari freskagarriena. |
| 647.1 | Loteriak merkaturatzeagatik epigrafe honetan matrikulatutako txikizkako saltzaileak. |
| 647.2 eta 3 | Loteriak merkaturatzeagatik epigrafe hauetan matrikulatutako txikizkako saltzaileak. |
| 652.2 eta 3 | Loteriak merkaturatzeagatik epigrafe hauetan matrikulatutako txikizkako saltzaileak. |
| 653.2 | Material eta aparatu elektrikoen, elektronikoen eta etxeko elektrikoa ez den baste energiaren batez eragindako etxeko aparatuena eta sukaldeko altzariena. |
| 653.4 eta 5 | Eraikintzarako materiale eta artikuluen eta saneamendurako mobiliariaren txikizkako salmenta; Ate, leiho eto pertsiana, moldura eto markoen txikizkako salmenta, hola nola oholtzena eto parket mosaikoena eta saskigaien eta kortxozko artikuluena. |
| 654.2 | Lehorreko ibilgailuentzako akzesorio eta errekanbio piezen txikizkako solmenta. |
| 654.5 | Era guztietako makineriaren (etxeko, bulegoko. medikuntzako, ortopediko, optiko eta argazkigintzako aparatuak ezik) txikizkako salmenta. |
| 654.6 | Edozein motatako ibilgailuentzako gurpilazal, gurpiluztai edo gurpilkamaren txikizkako salmenta. |
| 659.3 | Argazkien karreteak eta bestelako argazki-materiala hartzeagatik eta kanpoko laborategi batek errebelatu ondoren dagozkion kopiak eta handituak emateagatik epigrafe honetan matrikulatutako txikizkako saltzaileak. |
| 659.4 | Loteriak, garraiobide publikoko txartelak, telefono-txartelak eta antzekoak merkaturatzeagatik epigrafe honetan matrikulatutako txikizkako saltzaileak. |
| 662.2 | Loteriak merkaturatzeagatik epigrafe honetan matrikulatutako txikizkako saltzaileak. |
| 663.1 | Ore frijituak, estaldurakin nahiz beteak, patata frijituak, aperitiboak, fruitu lehorrak eta litxarreriak soil-soilik saltzen dituen eta txokolatea eta edari freskagarriak prestatzen dituen merkatal establezimendu finkoetatik kanpo egindako txikizkako salmenta, komertzioan bertan edo komertzio-ibilgailuan txurroak eta patata frijituak egiteko ahalmena duena. |
| 671.4 | Bi sardexkako jatetxeak. |

| Taldea edo epigrafea (EJZ) | Ekonomi jarduera |
|---|---|
| 671.5 | Sardexka bateko jatetxeak. |
| 672.1,2 eta 3 | Kafetegiak. |
| 673.1 | Kategoria bereziko kafetegi eta tabernak. |
| 673.2 | Beste kafetegi eta taberna-mota batzuk. |
| 675 | Kiosko, barraka edo antzeko lokaletan ematen diren zerbitzuak. |
| 676 | Txokolategi, izozkitegi eta ortxategietako zerbitzua. |
| 681 | Hotel eta moteletako ostatu zerbitzua (izar bat edo bikoak). |
| 682 | Hostal eta arroztegietako ostatu zerbitzua. |
| 683 | Fonda eta maizter etxeetako ostatu zerbitzua. |
| 691.1 | Etxerako artikulu elektrikoen konponketa. |
| 691.2 | Auto ibilgailu, bizikleta eta beste ibilgailu zenbaiten konponketa. |
| 691.9 | Oinetakoen konponketa. |
| 691.9 | Beste inon sartu gabeko kontsumo ondasun zenbaiten konponketa (ondorengo hauek izan ezik: oinetakoen konponketa, artelan, altzari eta zaharkinen zaharberrikuntza, musika-tresnen konponketa). |
| 692 | Industri makinen konponketa. |
| 699 | Beste inon sartu gabeko konponketak. |
| 721.1 eta 3 | Hiri-garraio kolektiboa eta bidaiarien garraioa, errepidez. |
| 721.2 | Autotaxi bidezko garraioa. |
| 722 | Merkantzien garraioa, errepidez. |
| 751.5 | Ibilgailuen koipeztapen eta garbiketa. |
| 757 | Mudantza zerbitzuak. |
| 933.1 | Lurreko eta ureko ibilgailuak, nahiz aeronautikoak, etab. gidatzeko irakaskuntza. |
| 933.9 | Beste inon sartu gabeko irakaskuntza-jarduera zenbait, adibidez: hizkuntzak, jostungintza, mekanografia, takigrafia, azterketa eta oposizioen prestaketa eta antzekoak. |
| 967.2 | Kirol eskola eta kirol hobekuntzarako zerbitzuak. |
| 971.1 | Arropa eginen eta etxeko jantzi eta artikulu erabilien tindaketa, garbiketa lehorra, garbiketa eta plantxaketa. |
| 972.1 | Emakume eta gizonezko ileapaindegiak. |
| 972.2 | Apainketarako areto eta institutuak, eta estetikako kabineteak. |
| 973.3 | Fotokopiagailuekin dokumentuak kopiatzekoo zerbitzua. |

Dena den, jarduera eta jarduera-sektore horiei BEZren erregimen erraztua aplikatuko bazaie, ez dituzte gainditu behar 225/2003 Aginduan zehaztutako magnitudeak, hurrengo 3 taldeotan sailkatzen direnak (xehetasun gehiago aipatu Aginduan, hirugarren atalean):

a) Jarduera-multzoari aplikagarri zaion magnitudea: 450.000 euroko diru-sarreren bolumena urtean.

b) Diru-sarreren bolumenaren araberako magnitudea: jarduera jakin batzuetan 300.000 eurokoa.

c) Magnitude espezifiko edo zehatzak.

# II. ERANSKINA

## ARAUDI OROKORRA

### TRIBUTAZIO-MODALITATEAK

**Urtarrilaren 21eko 29/2003 FORU AGINDUA, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko diren zeinu, indize edo moduluak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboko metodoari dagozkionak, finkatzen dituena**

➤ GAO: 18. zk., 2003/01/29koa (akatsen zuzenketa: 37. zk. , 2003/02/05ekoa)

➤ Eguneratutako araudia web orrian:

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000415e.doc

- I. ERANSKINA: NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA JARDUERAK

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000416e.doc

- II. ERANSKINA: BESTE JARDUERA BATZUK

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000417e.doc

- III. ERANSKINA: JARDUERA GUZTIETARAKO OROKORRAK DIREN ALDERDIAK

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000418e.doc

### ERRENTA-AITORPENA

**Abenduaren 24ko 8/1998 Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa**

➤ GAO: 249. zk. 1998/12/31koa

➤ Eguneratutako araudia web orrian:

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000344e.doc

**Abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua**

➤ GAO: 249. zk. 2001/12/31koa

➤ Eguneratutako araudia web orrian:

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000421e.doc

**Uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena**

➤ GAO: 138. zk., 1996/07/17koa

➤ Eguneratutako araudia web orrian:

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000350e.doc

### BEZ

**Abenduaren 29ko 102/1992 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duena**

➤ GAO: 249. zk., 1992/12/31koa.

➤ Eguneratutako araudia web orrian:

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000062e.doc

**Estatutako Ogasun Ministerioraren 225/2003 AGINDUA, otsailaren 11koa, 2003. urteari begira PFEZren zenbatespen objektiboko erregimena eta BEZren erregimen erraztua garatzen dituena (*BEZri dagokion zatia bakarrik*)**

➤ Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE): 37. zk., 2003/02/12koa (5567-5617 orrialdeak)

➤ Web orria: http://www.boe.es/boe/dias/2003-02-12/pdfs/A05567-05617.pdf (gaztelaniaz soilik)

### FAKTURAK

**Apirilaren 21eko 43/1998 FORU DEKRETUA, enpresari eta profesionalek faktura egin eta emateko duten betebeharra arautzen duena**

➤ GAO: 82. zk., 1998/05/06koa

➤ Eguneratutako araudia web orrian:

http://www3.gipuzkoa.net/ogasuna/normativa/docs/0000015e.doc

OHARRA: lan hau burutu unean indarrean dagoen araudia. Ogasuneko web gunean araudia eguneratzen da aldaketak eta berrikuntzak egin ahala. Dena den, eguneratutako araudi edo testu horrek berri emateko eta dibulgatzeko xedea du, baina ez dauka izaera ofizialik.